

PSIKOPEDAGOGIA

Idoia ELETA IBAÑEZ

ESKOLAN DOLU KASU BATEN
AURREAN ESKU-HARTZEKO
PROTOKOLO DIGITALA

TFG/*GBL* 2019

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ESKOLAN DOLUAREN AURREAN
ESKU-HARTZEKO PROTOKOLO DIGITALA

Idoia ELETA IBAÑEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Idoia ELETA IBAÑEZ

Izenburua / Título

Eskolan dolauren aurrean esku-hartzeko protokolo digitala

Gradua / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Fernando TREBOL UNZUE

Saila / Departamento

Departamento de Psicología y Pedagogía / Psikologia eta Pedagogia Saila

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2018-2019

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluaren hiru artikuluetan ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluen txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituen arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduoko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduletan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, *oinarrizko prestakuntzako moduluari* esker, marko teorikoan hainbat adituren teoria psikologikoak, pedagogikoak nahiz sozialak erabili eta islatu ahal izan ditut, ikasleekin esku-hartzeko garaian kontuan izan behar direnak. Oinarrizko prestakuntzak ikasleen ezaugarriak ezagutzeko eta, zehaztutako helburuak betetzearren, horren arabera lan egiteko bidea ematen digu.

Didaktika eta diziplinako moduluak protokoloa sortzeko beharrezko ezagutzak eskaini dizkit, baita ikasgelara eramateko metodologiak eta estrategiak ere. Hauek *2. Esku-hartze protokoloa* atalean islaturik ikus daitezke, protokoloaren garapenaren baitan.

Halaber, *Practicum moduluak* hezkuntza zentroen errealitatea ezagutzeko aukera eman digu, hauen beharren azterketa egiteko bidea emanez, premia horiei erantzuteko tresnak sortzeko aukera izanik. Modulu hau *3. Protokolo digitalizatuaren aurkezpena* atalean zehazten da bereziki.

Azkenik, *PT aipameneko moduluak* ikasleen behar piskopedagogikoen detekzioan baita esku-hartze teknika eta estrategien ezagutzan lagundu du, lan honen funts izanik, moduluak esku-hartze protokoloaren eta harekin batera eskaintzen diren baliabide guztiak sortzeko bidea eman baitu.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, gaztelaniaz idatziko dira lanaren “Antecedentes, objetivos y cuestiones”, “Implicaciones pedagógicas, psicológicas y sociales en la escuela” eta “Conclusiones y cuestiones abiertas” atalak¹.

¹ En estos apartados en castellano se utilizará el genérico femenino.

Laburpena

Heriotza gizabanakoaren bizitzaren parte da. “Guztiok izanen dugu amaiera, eta guztiok sufritzen ditugu galera anitzak bizitzan zehar, gauza zehatzenetatik, hala nola, pertsonak, objektuak edo tokiak, abstraktuenetara, gaztetasuna edo ametsak bezala”. Gaur egun, eskolak gure etorkizuneko egunerokotasunean izan ditzakegun erronkei eta beharrei aurre egiteko prestatzen gaitu. Hala eta guztiz ere, galera hain ohiko sentimendua izanik, guztiok noizbait biziko duguna, gure gizartean heriotza tabua izateak galera bat kudeatzeko edo hori sufritu duen norbait laguntzen jakiteko tresnak garatzea oztopatzen du. Hortaz, lan honen helburua hezkuntzako profesionalei dolu kasu baten aurrean esku-hartzeko protokolo egituratu bat eskaintzea litzateke, hori aurrera eramateko beharrezko informazio eta baliabide guztiak erantsiz.

Hitz gakoak: heriotza; galera; dolu; esku-hartzea; protokoloa.

Resumen

La muerte forma parte de la vida del individuo. “Todas tenemos un final, y todas sufrimos pérdidas a lo largo de nuestra vida, desde las cosas más particulares, como personas, objetos o lugares, hasta las más inmateriales, como la juventud o los sueños”. Hoy en día la escuela nos prepara para los retos y las necesidades que podamos tener en nuestro día a día futuro. Sin embargo, siendo la pérdida un sentimiento tan común que todas viviremos tarde o temprano, el hecho de que la muerte sea un tabú en nuestra sociedad provoca que no desarrollemos las herramientas necesarias para gestionar una pérdida, o para ayudar a aquellas que la han sufrido. Por tanto, el objetivo del presente trabajo es ofrecer a los profesionales de la educación un protocolo estructurado para intervenir en un caso de duelo, adjuntando toda la información y los recursos necesarios para poder llevarlo a cabo.

Palabras clave: muerte, pérdida, duelo, intervención, protocolo.

Abstract

Death is part of the life of the individual. “We all have an end, and all of us will suffer losses throughout our lives, from the most particular things, such as people, objects or places, to the most immaterial ones, such as youth or dreams”. Today the school prepares us for the challenges and needs that we probably have in our future day to day. However, since loss is such a common feeling that we will all live sooner or later, the fact that death is a taboo in our society causes us not to develop the necessary tools to manage a loss, or to help those who have suffered it. Therefore, the objective of this project is to offer education professionals a structured protocol to intervene in a grief case, attaching all the necessary information and resources to carry it out.

Keywords: death, loss, grief, intervention, protocol.

Résumé

La mort fait partie de la vie de l'individu. “Nous avons tous une fin, et nous souffrons tous des pertes tout au long de notre vie, des choses les plus particulières, comme les personnes, les objets ou les lieux, aux plus immatérielles, comme la jeunesse ou les rêves”. Aujourd'hui, l'école nous prépare aux défis et aux besoins que nous pourrions avoir dans notre avenir. Cependant, la perte étant un sentiment si commun que nous vivrons tous tôt ou tard, le fait que la mort soit un tabou dans notre société nous empêche de développer les outils nécessaires pour gérer une perte, ou pour aider celles qui en ont souffert. L'objectif de ce travail est donc d'offrir aux professionnels de l'éducation un protocole structuré pour intervenir en cas de deuil, en y joignant toutes les informations et les ressources nécessaires pour pouvoir le réaliser.

Mots clés: mort, perte, deuil, intervention, protocole.

Aurkibidea

Antecedentes, objetivos y cuestiones

1. Marko teorikoa	5
1.1. Heriotzaren definizioa	5
1.1.1. Heriotzaren sinbologia kultura ezberdinetan	5
1.1.2. Heriotzaren kontzeptuaren eboluzioa haurren	6
1.2. Dolua eta galera	11
1.2.1. Doluaren faseak	13
1.2.2. Doluaren erreakzioak	18
1.2.3. Dolu motak	20
1.2.3.1. Dolu patologikoa	21
1.3. Doluaren trataera eskolan	27
1.3.1. Heriotza hezkuntzan eta curriculumean	27
1.3.2. Administrazioaren baliabideak	31
1.3.3. Eskolan dolua lantzeko nondik norakoak	32
2. Esku-hartze protokoloa	39
2.1. Helburuak	41
2.2. Arduradunak	41
2.2.1. Funtzioak	41
2.2.2. Koordinazioa	42
2.3. Eremuak	43
2.3.1. Ikaslea	43
2.3.2. Ikasgela	44
2.3.3. Familia	44
2.4. Jarraibideak	44
2.4.1. Prestaketa	45
2.4.2. Balorazioa	51
2.4.3. Esku-hartzea	62
2.4.4. Jarraipena	75
2.5. Ebaluazioa	82
3. Dolmen: dolu kasu bati aurre egiteko tresna digitalizatua	88
3.1. Web gunea	90
3.2. Informazioa	92
3.3. Esku-hartzea	95
3.4. Baliabideak	101
4. Implicaciones psicológicas, pedagógicas y sociales en la escuela	115

Conclusiones y cuestiones abiertas

Bibliografía

Eranskinak

- I Dolu kasu baten aurrean esku-hartzeko protokoloaren laburpena
- II Inprimakien bilduma
- III Baliabide didaktikoen bilduma

ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES

La muerte forma parte de la vida del individuo, “todas tenemos un final, y todas sufrimos pérdidas a lo largo de nuestra vida, desde las cosas más particulares, como personas, objetos o lugares, hasta las más inmateriales, como la juventud o los sueños” (Gil-Juliá, Bellver, Ballester, 2008, 104). Cada una de estas pérdidas inevitables es acompañada por una reacción concreta, con su propio dolor, que nos afecta de una forma u otra. Por tanto, siendo la muerte y, en general, la pérdida, algo tan común en la vida humana, es curioso lo difícil que nos resulta hablar de ello.

Todas, tanto niñas como adultas, somos capaces de percibir la ocultación de la muerte en la sociedad, convirtiéndola en un tabú difícil de eliminar. Cuando sufrimos una pérdida o alguien tiene que afrontar esta situación nos faltan herramientas para hacerle frente, y las dificultades se multiplican para las niñas y adolescentes.

En esta línea y de acuerdo con Izagirre (2003), en la escuela, en comparación a otros aspectos de la realidad humana, apenas se examinan los valores, actitudes, sentimientos y acciones relacionadas con el sufrimiento, la pérdida, la muerte y el duelo. Históricamente, la idea de la muerte ha aterrado al ser humano, y por causa de la actitud de negación que las adultas transmitimos a las niñas sobre este tema, eliminamos toda opción de que estas generen recursos para combatir el dolor de la pérdida. Está claro que no es un tema para tratar con frecuencia, sin embargo, coincidiendo con Izagirre, deberíamos empezar a trabajar la pedagogía de la muerte desde pequeñas, siempre y cuando respetemos la capacidad de entender las cosas dependiendo de la edad.

Por otro lado, Izagirre (2003) afirma que solemos defender el silencio que hay sobre la muerte convenciéndonos de que “lo que no se conoce no hace daño”. Esto hace que me plantee ciertas cuestiones, ¿las niñas y niños están preparadas para hablar de la muerte?, ¿hay que evitar introducir este tipo de temas en el currículo? Si reivindicamos que las alumnas deben ser capaces de gestionar y analizar de manera crítica aquello que sucede en el mundo, ¿por qué omitimos temas como la pérdida, la muerte, las guerras o las crisis humanas?

Hoy en día cada vez se cuestiona más la funcionalidad de los contenidos que enseña la escuela: “educar para vivir”. Muchas de las cosas que aprendemos en la escuela son necesarias porque en algún momento de nuestras vidas vamos a tener que enfrentarnos a una situación en la que requeriremos de esos aprendizajes. Teniendo en cuenta esto, y sabiendo que tarde o temprano nos encontraremos ante una pérdida y necesitaremos ciertas habilidades emocionales para hacerle frente, podemos decir que existe una necesidad real de prepararnos para ello desde pequeñas.

Siendo la escuela, junto a la familia, una de las instituciones sociales más importantes que se encarga de la educación de los niños y niñas, olvidamos trabajar ciertos aspectos que son importantes para que el alumnado pueda desarrollar la personalidad necesaria para enfrentarse a la vida, en todas sus formas, ya que la muerte es parte de la vida. “Una enseñanza que no tenga en cuenta la muerte, no se está dirigiendo a los seres humanos, ya que los delimita impidiendo una mirada global hacia su condición de ser vivo” (Cortina, 2010, 57).

Sin embargo, mientras la mentalidad de la sociedad continúe negando la realidad de la pérdida, será difícil introducir estos aprendizajes en la escuela, dentro de la educación emocional. No obstante, teniendo en cuenta que la muerte puede estar presente en la vida de las niñas, como mínimo, deberíamos considerar que tanto los padres y madres como los profesores puedan acceder a unos recursos con los que ayudar a las más pequeñas en caso de que esto ocurriera.

Así como la escuela y las profesionales que forman parte de la comunidad educativa acompañan al alumnado en muchas de las etapas de su vida y les ayudan a hacerle frente a diversas dificultades educativas, personales y sociales con las que se pueden encontrar, no cabe duda de que la escuela también tendrá que intervenir en casos de duelo, como puede ser la muerte de un ser querido con el que se ha creado un vínculo afectivo, ya sea algún familiar cercano o, incluso, un profesor, profesora o algún compañero o compañera de clase.

La razón por la que escogí abordar el trabajo desde esta temática fue, principalmente, responder a una necesidad que pueda aparecer de forma más inusual, pero que es igualmente importante. Cuando una persona está siendo formada para ser docente, ya sabe que hay ciertos casos de necesidades educativas especiales con los que se va a

encontrar a lo largo de su trayectoria, y a los que va a tener que responder. Sin embargo, la gran mayoría nunca se llega a plantear que puede tener un caso de duelo en su aula, por un lado, porque afortunadamente no son tan frecuentes, y por otro lado, por lo que venimos diciendo hasta ahora. Al ser un tema que evitamos a toda costa en la sociedad, también evitamos pensar en que algo así podría ocurrir en nuestro colegio o aula. Sin embargo, son situaciones que podrían darse, y tenemos que saber, o por lo menos, contar con herramientas que nos guíen para saber cómo intervenir en esos casos.

La segunda razón que me ha llevado a elegir la pérdida y el duelo como eje central de mi trabajo han sido motivos personales. Cuando estaba en primaria sufrí la pérdida de un compañero de clase, que removi6 totalmente tanto a las compañeras como a todas las familias, docentes y alumnas. El colegio se volc6 completamente en intervenir y ayudarnos a superar algo que, a esas edades, resulta complicado de asimilar. Ahora, al analizarlo desde la perspectiva de la madurez, me doy cuenta de lo importante que fue la labor de intervenci6n y c6mo benefici6 a las alumnas y alumnos. Por lo tanto, al realizar este trabajo, no solo tengo en cuenta la perspectiva como futura docente, sino tambi6n la perspectiva de alumna que ha perdido a un ser querido y que tiene ciertas necesidades, miedos, preocupaciones e incertidumbres.

Adem6s de eso, tambi6n me pareci6 importante hacer el trabajo sobre esto, para poder dejar mi grano de arena en el trabajo que se est6 haciendo por darle la importancia que se merece, acorde con la presencia que tiene en la sociedad, ya que en mi entorno tengo personas que han sufrido p6rdidas recientemente, tanto personales como inmateriales, y que est6n en proceso de duelo, incluso yo misma, y si me paro a pensar, esas personas no son pocas.

Por otro lado, es un tema que la mayorí a de los centros expresan que es importante para ser tratado por toda la comunidad educativa, sin embargo, la mayor parte del profesorado considera que no est6 lo suficientemente formado para ello. Obviamente, un docente no es un ser omnisciente que sabe c6mo responder a cada situaci6n que se le presente por peculiar que sea. Sin embargo, el duelo es un tema ante el que, casualmente, muchas docentes se sienten perdidas.

Así pues, veo la necesidad de que las educadoras tengan herramientas para tratar el duelo en la escuela, donde puedan encontrar todos los recursos necesarios para poder

abordar la situación, aunque no tengan grandes conocimientos sobre ello. Es cierto que podemos encontrar multitud de información sobre el tema, pero las fuentes son tan diversas y es un campo tan amplio y disperso que muchas profesoras pueden sentirse abrumadas. Además, generalmente precisamos de estos recursos cuando alguna de nuestras alumnas ha sufrido una pérdida, y la respuesta ante esto debe ser inmediata, lo que dificulta el trabajo de preparación y planificación de la intervención.

Por todo lo mencionado, los objetivos del presente trabajo son los siguientes:

1. Contrastar y unificar la documentación sobre el tratamiento del duelo en la escuela, de manera que pueda servir de utilidad para las docentes que lo precisen.
2. Crear una herramienta estructurada y digitalizada dirigida a las educadoras que recoja todos los recursos y pautas necesarias para poder intervenir ante un caso de duelo en el aula, la cual tendrá un apartado con información útil para las familias, y así favorecer la coordinación entre esta y la escuela.
3. Responder a las preguntas sobre si los niños y niñas están preparadas para hablar de la muerte (adecuándonos a la etapa de madurez en la que se encuentren), demostrando que ocultarlo no es beneficioso para ellas y que no es necesario esperar a que ocurra para poder trabajar el tema, y así, concienciar a la comunidad educativa de esta necesidad.

En consecuencia, mediante el presente trabajo se intentará responder a la pregunta general de *cuál es el papel de la escuela cuando una o varias de sus alumnas han perdido a un ser querido*, a la par que resolver otras cuestiones, tales como *cuál debe ser la forma de intervenir* ante estos casos de duelo, *de quién es la responsabilidad de actuar* y *cuál es la función* de cada una de ellas y, por último, *cuáles son los peligros y las complicaciones posibles en este proceso y cómo reducirlas*. De la misma forma, también se quiere resolver una última cuestión: *¿Con qué herramientas cuentan las docentes y qué servicios y recursos pone la administración a su disposición?*

1. MARKO TEORIKOA

Atal honetan heriotzaren definizioa, sinbologia eta hurrek horren inguruan duten kontzeptua azaltzeaz gain, dolu prozesuaren garapenaren aspektuak definitzen dira, horren trataerarako jarraibideak aurkezten direlarik.

1.1. Heriotzaren definizioa

Heriotzaren esanahiaren inguruan hitz egiteko, lehenik, argi izan behar dugu adierazpen konplexua dela. Izan ere, gertakari biologikoaz gain, ñabardura sozialak, kulturalak nahiz erlijiosoak dakartza harekin.

Hortaz, existitzen diren pentsaera eta sinesmen bakoitzetik abiatuz heriotzaren definizio bat eraiki genezake, heriotzak baduelako, batetik, alde objektiboa, guztiok modu berean ulertzen duguna, eta, bestetik, alderdi subjektiboa, heriotzaren ostean gertatzen denaren inguruko usteari dagokiona. Bernard Gert-ek heriotzaren definizioa ikuspuntu biologikotik aurkezten du, bere hitzetan “heriotza klinikoki behagarri diren organismoaren funtzio guztien gelditzea da, bai eta organismo beraren alderdi identifikagarri guztietan kontzientziaren galtze iraunkorra” (Ortúzar, 1996, 4). Hala ere, honek organismoa osotasun baten moduan ulertzen du, baina badira beste aditu batzuk gorputzaren heriotza eta adimenaren heriotza bereizten dituztenak, horrek ondorio batzuk edo beste ekarriz.

Garrantzitsua da heriotza ulertzeko modu ezberdinak daudela presente izatea, gizabanakoaren sinesmenek dolu prozesuan eragina izanen dutelako. Heriotzaren inguruko ezberdintasun horiek pertsonaren izaera eta pentsaeraren arabekoak izan daitezke, baina, askotan, jatorri orokorrago bat dute, hala nola, kultura edo erlijioa.

1.1.1. Heriotzaren sinbologia kultura ezberdinetan

Gaur egun, mendebaldeko gizartean, non erlijioek orain arte gizabanakoengan zuten eragin gehiena galdu duten, heriotza tabu moduan bizitzen da sozialki, eta garai honek heriotza arinkeriaz tratatzera mugatzen da, horren inguruko kezka ukatuz, zutik dagoen galderari arreta zuzendu gabe: zer da “hiltzea”? (González, 2013). Beraz, heriotza onartzea eta horren inguruan hitz egitea biziki zaila izaten da, heriotzak harekin dakarren itzulezintasunak estutzen gaituelako (Izagirre, 2003). “Hilkorra izanik, heriotza ukatzen

duen gizarte baten aurrean gaude, eta errefus honek seguruenik ez du gizabanakoa lagundu heriotzari aurre egin behar izan dion une horietan” (Gómez, 2005).

Aipatzekoa da lan hau mendebaldeko pentsaera² honetan oinarrituz garatuko dela. Hala ere, argi izan behar dugu historian zehar heriotzaren inguruko pentsaera aldatuz joan den heinean, gaur egun munduan hau ez dela heriotza ulertzeko modu bakarra (González, 2013). Mendebaldeko kulturen bizitzari gogor heltzeko jarrera sustatzen da “betirako” ideiarekin haziz, heriotzaren inguruan hitz egin gabe, dolu prozesua modu osasuntsuan aurrera eramateko zailtasunak bultzatuz (Guerri, 2018). Beste kultura batzuetan, aldiz, heriotza bizitza arruntean integraturik dago, horren parte izanik, normalizatua eta onartua dagoelarik.

1.1.2. Heriotzaren kontzeptuaren bilakaera haurrengan

Haurrek heriotzaren gertaera ulertzeko gai ez direlako uste orokortua dela eta, askotan, helduek pertsona maiteen galerak ezkututzen saiatzen dira zehaztasunik gabeko hitzen eta topikoen bitartez (“orain beste toki batean dago”, “bidai batera joan da”...), seguruenik, haurra heriotzatik babesteko beharrik gabeko saiakera batean (Álvarez, 1998).

Heriotzaren ulermena adinarekin aldatuz doa, hortaz, adinak badu zerikusia heriotzaren inguruan dugun kontzeptuan (Zañartu, Krämer, Wietstruck, 2008). Gai honetan sakontzen hasi aurretik, lagungarria izan daiteke haurraren jokabide sozialei lotutako aspektuak gogoratzea, garunaren garapenaren emaitza direlarik, eta aldi berean, gaitasun kognitiboan eragiten dutenak.

Colomba Norero doktorearen arabera (2018) 6-8 hilabeterekin, baita lehenago ere, umea aurpegiak ezagutzeko gai da. Hemen hasten da imitazio prozesua. 2 urterekin lengoia eskuratzen du, eta 3 urte izan arte bereizketa emozionala erabiltzen du, atsekabe nahiz alaitasun adierazpen neurrigabeak agertuz, askotan, arrazoirik gabekoak. Hortik aurrera eta, bereziki, 7 urteetatik gertu indibidualtasunaren zutabeak garatzen dituzte, lehenago ez baitu “ni”-aren kontzientziarik. Honekin batera, kontzientzia subjektiboa garatuz doaz, memoria autobiografikoaren hastapenak ematen

² Beste kulturetako heriotzaren inguruko ikuskerak desberdinak dira.

dira, besteen benetako intentzioak eta emozioak antzeman eta arauak betetzen hasten dituzten bitartean. Segituan, pentsaera dualistikoa garatzen dute, ideia kontrajarriak aldi berean eta modu berean onartuak izaten ahal dituztelako. Nerabezaroari dagokionez, ezarritakoaren aurrean errefus-mekanismoak garatzen dituzte, baita epaiketa autonomoak ere.

Barbara Kane (1979) psikologoak heriotzaren kontzeptuaren garapenean hiru fase bereizi zituen (Rincón, Martino, Catá, Montalvo, 2008):

1. Lehenengo fasea bereizketa kontzeptuen eta mugiezintasunaren erdiespenari dagokie, hots, hildakoak ez dutela gure artean bizitzen eta geldirik daudela.
2. Bigarren fasean unibertsaltasun kontzeptua berenganatzen joaten da, hau da, guztiei helduko zaigula hiltzeko unea, itzulezintasunarekin batera, heriotzak ez duela atzera-bueltarik, hain zuzen. Horretaz gain, heriotzaren kausalitateaz jabetzen dira, kanpo arrazoi bat egon daitekeela (istripu bat, adibidez) edo barne arrazoi batengatik gerta litekela (eritasuna).
3. Azkeneko fasean, haurra heriotzaren inguruan modu abstraktuan hitz egiteko gai da, heldu batek eginen lukeen gisan.

Egungo azterlanak Barbara Kaneren ildo jarraitzen du. Heriotzaren ulermen biologikoan zentratzen da, eta ulermen hori heldutzat hartzen da hurrengo bost azpi-osagaiak eskuratu direnean, ikerketa ugaritan identifikatuak eta berretsiak izan direnak (Norero, 2018):



1.irudia. Heriotzarekin lotutako nozioak.

- *Itzulezintasuna.*

“Izaki bizidun bat hiltzen denean inoiz ez da berpiztuko”. Kontzeptu hau 4 urterekin barneratua egon daiteke, azkarrak diren haurretan. Bizi-funtzioen gelditzearekin lotzen dute (arnasketarena, esaterako), baita mugiezintasunarekin ere.

- *Unibertsaltasuna.*

“Izaki bizidun guztiak hilko gara”. 6 urte izan arte, haurrek ez dituzte argi bereizten objektuen eta pertsonen arteko ezberdintasunak, objektuei bizidunen ezaugarriak esleituz, nozio hau barneratzeko zailtasunaren jatorri dena.

- *Saihetsezintasuna.*

Itzulezintasunari eta bizi-funtzioen gelditzeari estuki loturiko osagaia da. Guztioi helduko zaigu heriotza, baina 11 urte izan baino lehen, ideia kontrajarriak garatzen dituzte, besteen heriotza onartzen dutelarik, baina ez beren buruen heriotza. Hau kontzeptu biologikoak eta kontzeptu erlijiosoak (hil ondorengo bizitza) zein naturaz gaindikoak nahasten dituen pentsamendu dualaren ondorio da.

- *Gelditze funtzionala.*

Kontzeptu hau 4-6 urterekin barneratzen da, bizitzeko elikadura eta arnasketa beharrezkoak direla ulertuz, itzulezintasunaren ideia eskuratzeko lagungarria dena. Bizi-funtzioen gelditzea ulertzea haurtzaro berantiarrean modu arrazionalerik soilik eskura daitezkeen ezagutza baliabideak eskatzen ditu. Hala ere, era guztietako salbuespenak daude, izan ere, badira zenbait ume txiki agureen heriotza azaltzeko “bere bihotza gelditu zen” edo antzeko adierazpenak erabiltzen dituztenak, baita denbora luzez hil ondoren prozesu mentalek jarraitzen dutela uste dutenak ere. Beraz, sinesmen kulturelek, erlijioek, inguru sozialak eta gurasoen eskolatzeak ideia honen barneraketan eragina izan dezakete.

- *Kausalitatea.*

Denbora luzez, beranduen barneratzen zen kontzeptutzat hartu izan da hau. Hurrek bizi-funtzioen gelditzeak eragindako heriotzaren barne-arrazoiak ezagutzea lortzen dute (zahardadea, eritasunak...), baina zailagoa egiten zaie kanpo-arrazoien ondorioz emandakoak ulertzea (indarkeria, terrorismoa, istripuak, hondamendiak...).

Esan beharra dago adimen koizienteak heriotzaren nozio helduarekin positiboki lotuta dagoela, gertaera biologikotzat hartzen delarik. Egoera sozioekonomikoak ez du eragin esanguratsurik prozesu honetan, ezta heriotzarekin izandako aurre-esperientziek zein esperientzia erlijiosoek ere. Bilakaera honetan adina eta garunaren heldutasun prozesua oinarrizko faktoretzat hartzen dira, non zuzeneko nahiz zeharkako esperientziek eta testuinguru soziokulturalak rol bat izan dezaketen (Norero, 2018).

Hurrek, beraz, ez dute beren dolu prozesua helduek bezala garatuko, beren ulermen gaitasunen eta heldutasun emozionalaren eta beste hainbat faktoreren araberakoa izanen da. Gainera, adinarekin bat datozen ezaugarriek heriotzaren ondoriozko erreakzioak eta erantzunak baldintza ditzakete. Ondorioz, dolu prozesuan sartu baino lehen, adin bakoitzean heriotza nola ulertzen duten ezagutu beharko da. Andonegi, Ormazábal, Pascual, Rosas eta Ugalde autoreek (2016) hurren heriotzaren kontzepzio horiek eskola etaparen arabera antolatu zituzten, azpiko taulan ikus daitekeen moduan:

1.taula. Heriotzaren ulermena etapa ebolutiboen arabera.

HAUR HEZKUNTZA	0-3 urte	Adin honetan oraindik ez dute heriotza kontzeptua ulertzeko gaitasunik eta ezin dituzte beren beharrak ahoz adierazi. Hala ere, zaintzaile duen erreferentziako helduaren falta nabaritzen dute, eta banaketa horrengatik sufritu egiten dute, beren segurtasuna mehatxatzen duen abandonu gisa bizitzen dutelarik. Horretaz gain, bere inguruko pertsonen emozioen antsietateaz ere jabetzen dira.
	3-6 urte	Adin honetan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, oraindik ez dute barneratu heriotzaren itzulezintasun kontzeptua. Aldi baterako kontua dela uste dute, ez baitute galera behin betikotzat hartzen. Pentsamendu egozentrikoa eta magikoa dutenez, pentsa dezakete gertatzen ari diren gauzak beraiekin zerikusia dutela, baita gertatutakoa beraien desioen ondorio izan dela ere, zerbait gaizki egin dutela, eta ondorioz, "abandonuaren" errua bere gain hartu.
LEHEN HEZKUNTZA	6-9 urte	Tarte honetan pixkaka itzulezintasunaren kontzeptua barneratzen doaz, eta gai dira bizidunen bizitza zikloa ulertzeko, hots, bizitza heriotzarekin amaitzen dela, eta heriotza betirako dela. Hala ere, kausalitatearen nozioa oraindik ez dute erabat barneratua eta heriotza, beraiekin zerikusi duen zerbaitek sortu izan duela pentsa dezakete, erru sentimenduren bat elikatuz. Errituetan eta sinesmen erlijiosoetan interesa agertzen dute eta horietan parte-hartzeko gogoia adieraz dezakete.
	9-12 urte	Une honetan hasten dira kausalitate eta unibertsaltasun kontzeptuak bereganatzen. Beren heriotzan pentsatzen hasten dira eta egunen batean hilko direla onartzen dute. Gainera, erritualen esanahiaz jabetzen dira, maite zuten pertsona nola hil zen eta heriotzak familian eta beraiengan sortzen duen inpaktua ulertzen dute eta zalantza espiritual eta erlijiosoak izan ditzakete.
BIGARREN HEZKUNTZA	Nerabezaroa	Adin honetan heriotzaren kontzeptua barneratuta dute bere osotasunean. Beren bizitzan garrantzitsuak diren gertaera edo arlo guztietatik urrunen dagoena da heriotza, badakite itzulezina dela eta egunen batean hilko direla, baina urrun ikusten dute eta, normalean, horrek ez ditu kezkatzen. Nerabezaroa emozionalki oso aldakorra den bizitzako unea da, eta gehienetan nahiago izaten dute emozioei ihes egitea, modu horretan sufrituko ez dutelakoan. Besteen aurrean ez dute negarrik egiten, ahultzat hartu ez ditzaten. Zenbaitetan, haien artean hitz egiten dute heriotzaz, hiltzeko uneaz edo hiltzoriaz.

Haurren heriotzaren ulermena nolakoa den ikusita, hasierako zalantzara itzul gaitzke: haurrak gai al dira heriotzaren inguruan hitz egiteko? Gizaki guztioi heriotzari aurre egitea kezkatzen eta larritzen gaituenez, hura ahalik eta gehien urruntzen dugu geure burutik, beraz, heldu guztiek sentitzen dugu haurrak maite dugun pertsona baten galerak ekartzen duen minetik eta sufrimendutik babesteko beharra, umeei heriotzatik urrun bizitzen irakatsiz (Cid, 2011). Gaur egun gurasoak erabat kezkatu bizi dira beren seme-alabek bizitza eroso eta erraza izan dezaten, ez baitituzte sufritzen ikusi nahi, nahi duten guztia lortuz, hoberenak sentituz... Paradigma hauekin, “mugarik gabeko bizitza”, edozer lortzea posiblea delarik eta sufrimendua saihesgarria delarik, heriotzak (gure mugarik handiena dena) ez du tokirik, eta harekin ez ikusiarena egiten dugu, gure aurrean izan arren. Benetan uste dugu hori eginez haurrak babesten ari ditugula?

1.2. Dolua eta galera

Galera kontzeptuaz ari garenean hitzaren zentzu zabal eta subjektiboaz ari gara, hau da, estimatzen dugun zerbait galtzeaz edota espero genuen zerbait ez iristeaz ari gara. Galera gertatu ondoren gizabanakoak balorazio bat egiten du, kontzienteki nahiz inkontzienteki, eta faktore arrazionaletan, emozionaletan eta soziokulturaletan oinarritzen da (Izagirre, 2003), dolu prozesuari hasiera emanez. *Dolua* gizabanakoak galera bat izan ostean pasatzen duen prozesu emozionalean datza, eragin psikologikoak, fisikoak nahiz sozialak dituena (Cid, 2011). Hortaz, elkarren artean estuki lotuak dauden bi kontzeptu dira, nolabait esanda, bata bestearen ondorio baita.

Dolu prozesu hori abiatuko duten galerak askotarikoak izan daitezke. Zenbait autorek ondoko taulan azaltzen den sailkapena zehaztu dute (Cid, 2011, 65; Izagirre, 2003, 13; Nomen, 2007, 21).

2.taula. Galera motak.

<i>Galera pertsonalak</i>	Maila sozialean nahiz familian burutzen dituen rol edo eginkizunei lotuta (lanetik botatzea, erretiratzea...).
	Ahalmen fisikoei eta psikologikoei lotua (gorputz-atal bat galtzea, desgaitasunen bat izatea, gorputzaren zatiren bat aldatzea edo gorputz funtzioaren bat gutxitzea, helburu, ideal nahiz ilusioen galera...).
<i>Harreman galerak</i>	Maite diren edo gertuko pertsonen galera (heriotzaren, dibortzioaren, banaketaren, abandonuaren... ondorioz)
<i>Galera materialak</i>	Gurea den objektu edo jabetza baten galera.
<i>Galera ebolutiboak</i>	Garapenarekin erlazionaturikoak, bizi-zikloaren faseen galerak (haurtzarora, nerabezarora, helduarora, zahartzarora... baita heriotza bera ere).

Beraz, dolua eguneroko bizitzako gertaera anitzei lotuta dago, gizaki gehienok pairatzen baititugu galerak, esanahitsuak batzuk eta hain adierazgarriak ez diren beste batzuk, baina modu batean zein bestean, dolua eragiten digutenak. Hortaz, hori da argi izan beharreko lehen ideia “dolua prozesu arrunta dela” (Cid, 2011, 65).

Emozio onik eta txarrik ez dagoela diogun moduan (guztiak beharrezkoak direlako), dolu prozesua ez dugu negatibotzat hartu behar, beharrezkoa eta espero izatekoa baita, eta ez da eritasun bat. Depresio zein antsietate nahasteen zenbait sintomekin bat eginagatik ere, ezin dugu depresiotzat hartu, doluaren erreakzio psikologikoak dira eta (Cid, 2011).

Horretaz gain, dolua ez da estatikoa, gizabanakoaren egoera fisikoan, psikologikoan eta sozialean aldaketak eragiten dituen prozesu dinamikoa baizik. Beraz, ohikoa da gorabeherak jasatea, dolua ez baita jardunbide lineala, hau da, emozioen intentsitatea aldakorra izan daiteke, eta hori guztia espero daitekeenaren barne dago (Díaz, 2016). Horrek ez du esan nahi “atzera joaten” garenik, prozesu dinamikoa denez gero, aldaketa hauek bere zentzua eta zergatia dute (Cid, 2011).

Doluaren prozesua edo galeraren aurrean erantzuteko modua, baita erreakzio emozionalen sekuentzia eta iraupena ere, gizabanakoa bakoitzean ezberdina da (Díaz, 2016). Aldaketa hauek pertsona bakoitzaren izaeraren, nortasunaren, adinaren, hildakoarekin izandako harremanaren eta jasotako laguntzaren arabera dira (Cid, 2011).

Horretaz gain, dolua onarpen soziala behar duen prozesua da Cid-en arabera (2011). Subjektuentzat sobera lagungarria da bere gertuko pertsonen laguntza eta errefortzua jasotzea. Aldi berean, partekatutako galera bada, hauek ere beren dolua lantzen egon daitezke.

Ondorioz, dolua aurrera eramaten ari den pertsonaren prozesua errespetatzen, baimentzen eta onartzen den neurrian, subjektuak bere egoera berria onesteko prozesuan zailtasun gutxiago izanen ditu beren dolua presionaturik eta onarpenik zein laguntzarik gabe bizitzen duten pertsonekin alderatuz (Cid, 2011).

Hala eta guztiz ere, kanpo-laguntza edukitzea lagungarria bada ere, dolua lanketa pertsonala behar duen prozesu aktiboa da. Díaz-en arabera (2016) edozein galerak dolu dakar harekin, horrek egite pertsonala eskatzen duelarik. Hainbat autorek dolua gainditzeko zenbait zeregin burutu behar direla diote, galeraren onarpen emozionaletik hasita, emozio horien adierazpenetik eta heriotzak eragindako minetik igaroz, hildakoa ez dagoen errealitate berri horretara egokitu arte, bizitzarekin jarraitu ahal izateko. Autore hauen artean J. William Worden dugu, aurrerago aipatuko duguna.

1.2.1. Doluaren faseak

Doluaren iraupenaz ari garenean, ezinezkoa da horri erantzuna ematea, behin eta berriz azpimarratu denez, gizabanakoak anitzak garen neurrian, dolua garatzeko moduak ere anitzak direlako, iraupena barne. Dolua burututzat ematen da bihozminik gabe hildakoa gogoratzen ahal den unean, gure emozioak bizitzari eta bizidunei zuzenduta daudelarik (Meza et al., 2008).

Doluaren iraupena eta intentsitatea hainbat faktorek eraginda daude, hala nola, subjektuaren adina, heriotza mota (espero zena edo ustekabekoa, baketsua edo bortitza...), hildakoarekin zegoen loturaren intentsitatea, harreman mota (dependentzia, liskarrak...), etab.

Dena dela, nahiz eta doluak iraupen finko bat ez duen, aditu askok ikusi dute gizabanako guztiek prozesuan zehar dinamika edo joera antzekoa dugula, eta hainbat fase edo etapa zehaztu izan dituzte. “Gizabanakoak dolu prozesua osatzeko ezinbestekoa da fase horiek burutzea” (Meza et al., 2008, 29).

Hala ere, honen inguruan iritzi ezberdinak daude. Interesgarria da Worden-ek (1998) proposatzen duena. Bere aburuz, faseen ikuspegi horiek zailtasunak ematen dizkigute, faseak gainezartzen direlako eta etapak ez direlako segidan burutzen. Beraz, Wordenek prozesua faseetan izan beharrean, gainditu beharreko zereginetan banatu zuen:

3.taula. Dolu prozesuan gainditu beharreko zereginak (Worden, 1998).

Lehenengo zeregina	<i>Galeraren errealitatea onartu.</i>	Maite genuen pertsona hil da, ez da itzuliko eta hori onartu beharra dago.
Bigarren zeregina	<i>Galeraren emozioak eta minak landu.</i>	Jokabidezko eta emoziozko bihozmina landu. Zeregin hau ez bada egoki burutzen, baliteke aurrerago terapiaren beharra izatea, mina ekidin delako.
Hirugarren zeregina	<i>Hildakoa ez dagoen ingurura egokitu.</i>	Rol bat onartu eta aurrera egiteko trebezia berriak garatu, errealitatearen inguruko zentzu berri batekin.
Laugarren zeregina	<i>Bizitzen jarraitu.</i>	Burutzeko zeregin zailena da, askok puntu honetan blokeaturik geratzen baitira. Hildakoari toki bat aurkitu behar zaio gure bizitza emozionalaren barne, modu egokian aurrera egin eta bizi ahal izateko.

Beste autore batzuek, aldiz, etapa edo faseetan banatzen dute prozesua, eta horren inguruko proposamenak anitzak dira. Hurrengo irudian zenbait adibide ikus daitezke, autore bakoitzak zehazten dituen faseak ageri baitira:




2.irudia. Dolu prozesuaren faseak (Gil-Juliá et al., 2008).

Dena dela, esan beharra dago Wordenen zereginen proposamena eta beste aditu batzuek proposatzen dituzten etapak ez direla aurkakoak izan beharrik, zeregin hauek burutzen diren bitartean, subjektua hainbat egoeratik igarotzen baita, prozesuan zehar jarrera nahiz kontzepzio ezberdinak dituelarik. 1969.urteko Kübler-Rossen etapen eredua ezagunenetarikoa da horien artean. Psikiatra hau heriotzarekin lotutako esperientziei buruzko ikerketetan aitzindari izan zen, eta berak azaltzen duenez, dolu prozesuan bost fase bereizten dira (Kübler-Ross, Kessler, 2006):




3.irudia. Doluaren faseak Kübler-Rossen arabera (Kübler-Ross, 1969)

Kübler-Rossek azpimarratzen du gizaki guztiak ez direla etapa hauetatik modu eta iraupen berean igarotzen, baliteke etapa bat pasatzea eta, ondoren, berriz fase horretara itzultzea (Oviedo, Parra, Marquina, 2009). Garrantzitsuena da etapa bakoitza gainditzean emanen dugula burututzat dolu prozesua (Kübler-Ross et al., 2006, 23-42).



4.irudia. Ukapena.

Galeraren aurreko lehen erreakzioa ukapena da. Noski, kasu gehienetan sentipen simbolikoa da, maite dugun pertsona hil dela badakigulako, baina ezin dugu sinistu pertsona hori betiko galdu dugula (“Egia da?”, “Nola gertatu izan da hau?”, “Ezinezkoa da”). Etapa honen funtzioa galera gainditzea litzateke, geldiarazten gaituen erantzuna da, mundua zentzugabe bilakatu eta bizitzaren zentzua galtzen dugu. Heriotza ezeztatzea babes-mekanisмотzat funtzionatzen du, ezin baitugu utzi galerari lotutako sentimendu guztiak bat-batean sartzea, beraz, galera onartu bitartean mina kudeatzeko modua da, eta errealitate hori onetsi ahala ukapena desagertzen hasiko da.




5.irudia. Amorrua.

Amorrua galeraren injustiziak eragindako erreakzio naturala da. Haserre hori modu ezberdinetan bidera daiteke, nork bere buruaren kontra, lagun, senide, hildako nahiz mediku baten aurka... nahi eta merezi ez den egoera batean aurkitzeagatik (“Zergatik niri?”, “Ez da justua!”). Fase hau oinarritzkoa eta beharrezkoa da eta, gehiegi luzatzen ez bada, sendatze prozesuaren parte da. Amorrua dolu prozesu osoan zehar presente egonen da era anitzetan, hortaz, garrantzitsua da epaitu gabe eta zentzurik bilatzeko ahalegin gehiegirik egin gabe sentitzea.




6.irudia. Negoziazioa.

Negoziatioari dagokionez, fase hau heriotza eta gero eman daiteke, baita heriotzaren unea baino lehen hasi ere, esate baterako, gaixo terminalekin. Kasu horretan, jainko edo izaki nagusi batekin negoziatzen da, maite dugun pertsona hori ez galtzarren. Heriotza eman ostean, hildakoa zerbaiten ordeztuz itzultzea negoziatzen da. Denboran atzera joatea bilatzen da.



7.irudia. Depresioa.

Depresioaren etapan hutsune sentazioa nabaria da, tristura, pena, beldurra sentitzea ohikoa da, baita ziurgabetasuna ere. Gerta liteke aurrera jarraitzearen zentzua zalantzan jartzea (“Zergatik egin aurrera?”, “Zertarako atera etxetik?”, “Zertarako altxatu?”). Badirudi bizitzak zentzua galdu duela, eta edozein ekintza gehiegizko ahalegina iruditzen zaigu. Kontuan eduki behar dugu erreakzio hau ohikoa dela, pertsona bat inoiz itzuliko ez dela dakigunean arrunta baita deprimitzea, eta horrek ere bere erabilgarritasuna du dolu prozesuan zehar. Horregatik, bihozmina senti dezaten utzi behar zaie, ondoren, sendatu ahal izateko.



8.irudia. Onarpena.

Azkenik, errealitate berri hori onartzera heltzen da subjektua, non galera iraunkorra dela onartzen den. Honek ez du esan nahi gertatutakoarekin ados egotea, baizik eta pertsona hori gabe bizitzen ikasten dela, errealitatea onartuz. Etapa hau gainditzean, batzuetan eskuraezina dirudien doluaren amaierara heldu gara. Denbora pasa ahala, iragana zen

bezala mantendu ezin dela onartuko dugu, eta bizitza berrira egokituko gara. Horretarako, doluaren prozesu naturalari beharrezko denbora eskaini beharko zaio.

1.2.2. Doluaren erreakzioak

Dolu prozesuan zehar galerak eragindako zenbait pentsamendu, sentimendu eta jokabide eman daitezke, printzipioz, ohikotzat har daitezkenak (Lacasta, Novellas, Bleda, 2005). Aditu gehienen arabera, maite dugun pertsona baten heriotzaren ondorioz ematen den erantzuna gizakion oinarritzko ezaugarria da, aurkezteko modua bitxia dirudi arren. Hurrengo taulan Wordenek zehaztutako doluaren ohiko erreakzioak azaltzen dira, hala haurretan nola helduetan ager daitezkenak (Lacasta et al., 2005).

4.taula. Doluaren ohiko erreakzioak Worden-en arabera.

<i>Sentimenduak</i>	<i>Sentipen fisikoak</i>
Tristura	<i>Inpotentzia</i>
Haserrea	<i>Lasaitasuna</i>
Errua	<i>Shock-a</i>
Blokeoa	<i>Bihotz-gogortasuna</i>
Antsietatea	<i>Nahastea</i>
Bakardadea	<i>Nekea</i>
<i>Jokaerak</i>	
Hildakoarekin amets egin	<i>Bular edo eztarri opresioa</i>
Hildakoa gogoratzeko saiakerak ekidin	<i>Goragaleak</i>
Hasperen egin	<i>Loezina</i>
Negar egin	<i>Soinuarekiko hipersentsibilitatea</i>
Hildakoarenak ziren objektuak bildu	<i>Aire falta</i>
Ozenki bilatu eta harekin hitz egin	<i>Muskulu-ahulezia (indar galera)</i>
	<i>Aho-lehortasuna</i>
	<i>Ikusmen lausoa</i>
	<i>Hutsunea edo korapiloa sabelean</i>
	<i>Irensteko zailtasunak</i>
	<i>Pentsaerak</i>
	Sinesgogortasuna Kezka
	Nahastea Zalantzak
	Haluzinazio laburrak eta igarokorrak

Esan bezala, goiko taulako erreakzio horiek haurren nahiz helduengan modu berean ager daitezke. Dena dela, zenbait autorek erreakzio horiek haurren ikuspegitik zehaztu izan dituzte, beren errealitatetik eta ulermen gaitasunetik abiatuz, hortaz, helduek normalki agertzen ez dituzten beste erantzun batzuk biltzen dira.

Ondoko taulan Cid-ek (2011) zehaztutako haurren erreakzio ohikoenak azaltzen dira.

5.taula. Haurren erantzun ohikoak dολουaren aurrean.

Gertatutakoa ukatzen dute	Gehiago jolasten da, mugituago dago... guraso askok erreakzio hau ikustean haurrak galeraren ondorioz deus sentitzen ez duela uste dute eta hala interpretatzen dute. Egia esan, haurrak sufritzen du, baina portaera hau babes gisa erabiltzen du.
Haur txikiagoen jarrerak azaltzen dituzte	Askotan haur txikiagoak bailiran jokatzeko dute, bere garapenean atzera eginez, esate baterako, pixa gainean egin, hori gainditu izan denean, iluntasunari beldurra izan, txikiagoa zeneko jostailuekin jolastu, hitz egiteko modua aldatu haur txikiago bat irudituz, etab.
Maite dituzten beste pertsonen heriotzaren beldur dira	Bizitzan bakarrik geratuko direlako kezka dute. Beren senideen eta lagunengatik lagunen ongizateaz larritzen dira.
Errudun sentimenduak	Heriotzaren kausa direla pentsa dezakete, adibidez, berarekin haserretzeagatik edo noizbait bere desagerpena nahi izateagatik. Egoera honek ezinegona eta estutasuna eragiten du.
Idealizazioa	Hildakoari bertuteak esleitzen dizkio, harekin harreman imajinarioa izatearren.
Tristura	Honen azalera bere jokaeran eta lengoian (sentimenduak azalera badiuzte) edota errendimendu akademikoaren murriztean ikus daiteke.
Ondoeza fisikoa	Buruko mina, sabelean estutasuna, nekea, logurea...
Hildako pertsonaren bilaketa	Heriotza behin betikoa dela ulertu arren, adin hauetan badago une bat non hildako pertsonaren itzulera espero duten. Badakite ez dela bueltatuko, baina minarekin borrokatzeko erabiltzen dute.
Suminkortasuna eta umore txarra	Modu bortitzean joka dezakete, motibazio ezarekin, desadostasuna adieraziz.
Bazterketari beldurra	10-13 urteko haurrek bere lagun-taldetik baztertuak izateko beldurra dute, ahul ikusiko dutelakoan, hortaz, ez dute jendaurrean negarrik egiten.
Hildakoak zuen rola onarpena	10-13 urteko haurrek hildakoak utzitako tokia betetzeko beharra sentitzen dute, hortaz, jokaera arduratsuagoak eta helduagoak aurkezten dituzte, hildakoak zuen rola betez.

1.2.3. Dolu motak

Arestian aipatutako moduan, dolua ohikoa, aktiboa eta dinamikoa dela esan dugu, eta, horretaz gain, anitza da ere bai. Heriotzari lotutako doluan zentratuz, honen aldaera ugari daude: dolu patologikoa, kronikoa, izoztua, erreprimitua, ezkutukoa, aurreratua, urrutikoa, atzeratua, suspertua edo berpiztua, elkarren segidan agertzen dena, ezinezkoa, kaltegarria, etab. (Cobo, 1999). Horien artean hauek dira haurretan maiztasun gehiagoz aurki ditzakegunak:

6.taula: Dolu motak (Meza et al., 2008; Cobo 1999).

<i>Dolu patologikoa</i>	Dolu mota honi izen anitzak eman zaizkio: patologikoa, konplexua, kronikoa, ebatzi gabekoa, neurritz gainekoa... Funtsean, honek esan nahi du doluaren biziagotzea eman dela, gizabanakoa gainezka dagoelarik, eta egoera honetan irauten du, dolu prozesuaren ebazpenean aurrera egin gabe.
<i>Dolu aurreratua</i>	Kasu honetan, dolua ez da heriotza ematen den unean hasten, lehenago baizik. Esate baterako, sendaezintasun pronostikoa igortzean, gizabanakoak, kontzienteki nahiz inkontzienteki, sortu berri den egoera berrirako egokitzapenari ematen dio hasiera. Une horretatik aurrera sortzen da dolu aurreratua deritzoguna, tartean sartuta dauden pertsonei galerarako prestatzeko aukera ematen diena.
<i>Aurre-dolua</i>	Erabateko dolua da bere baitan, eta oraindik bizirik jarraitzen duen pertsona bat hildakotzat hartzean datza. Adibidez, eritasun batek maite dugun pertsona hainbesteraino eraldatzen duenean, non, zenbait kasutan, ez zaion ezagutzen.
<i>Dolu ukatua</i>	Doluaren adierazpena erreprimitzen da, subjektuak ez diolako galeraren errealitateari aurre egiten. Gerta liteke nolabaiteko euforia faltsua gailentzea, saminduraren joera patologikoa aditzera ematen duena.
<i>Dolu kronikoa</i>	Gehiegizko iraupena duen dolu mota da, behar bezalako amaierara heldu gabe. Dolu kroniko batek bizitza osoa betetzera hel daiteke. Carlos Coboren arabera (2001) badira zenbait pertsona doluaren arabera existentzialki egituraturik daudenak, honek beren bizitzaren nukleo osagarria baldintzatzen duelarik.

<i>Dolu ezkutatua</i>	Subjektua galeraren bihozminak menderatuta dagoela jakin arren, hori ez erakusteko borondatezko ahalegina egiten du, bere senideak ez tristatzeko edo inguruko jendeak bere atsekabea ulertuko ez lukelako ustearen eraginez (Cobo, 1999). Doluaren hasierako faseetan egoeraren kontrola dutela diruditen pertsonengan ageri ohi da, sufrimendu zeinurik azaleratzen ez dutenean. Zenbait kasutan, inplikaturako beste pertsona batzuk laguntzen nahiz egoerak eskatzen dituen izapideei arreta ematen hainbesteko denbora ematen da, non geure buruaz arduratzeko astirik ez dugun.
<i>Dolu zalantzarria</i>	Zalantzarriko galera bat jasaten denean ematen da, nolabait zehaztu gabe dagoena. Galera anbiguo horrek izaera anitzak ditu, hala nola, heriotzaren egiaztapenik edota gorpurik ez dagoenean, pertsona guda baten edo hondamendi natural baten ondorioz desagertu denean, baita hain muturrekoak ez diren bestelako egoeren ondorioz eman daiteke ere.

1.2.3.1. Dolu patologikoa

Arestian aipatu den bezala, dolu mota honi izen anitzak eman zaizkio: patologikoa, konplexua, kronikoa, ebatzi gabekoa, neurriz gainekoa... Horowitz-en arabera (1980), honek esan nahi du doluaren biziagotzea eman dela, gizabanakoa gainezka dagoelarik, eta egoera honetan irauten du, dolu prozesuaren ebazpenean aurrera egin gabe (Vedia, 2016). Vedia-ren arabera (2016) doluaren zailtze hori emaitza edo adierazpen ezberdinak izan ditzake. Gerta daiteke doluak gehiegizko iraupena izatea (dolu kronikoa); beranduago azaltzea dolua erreprimitu egin delako (dolu ukatua); erreakzioak gehiegizkoak izatea (neurriz gainezko dolua); edo subjektuak zailtasunak eragiten dizkion erreakzioak sufritzea, baina galerarekin loturik daudela ukatzea (dolu ezkutatua).

Dena dela, dolu patologikoaren ezaugarriak eta adierazpenak ezagutu arren, zaila da dolu ohikoaren eta patologikoaren arteko muga non dagoen zehaztea. Bien arteko ezberdintasuna sintomen intentsitatean, erreakzioaren iraupenean eta ohikoak ez diren erantzunen agerpenean datza (Worden, 1998).


7.taula. Dolu patologikoaren eta ohikoaren arteko diagnostiko diferentziala (Vedia, 2016).

	<i>Dolu ohikoa</i>	<i>Dolu patologikoa</i>
Agerpen unea	Heriotza gertatu eta hurrengo egunetan.	Asteak edo hilabeteak igaro direnean (dolu atzeratua). Agerpenik ez (dolu ukatua).
Intentsitatea	Egun batzuetan zehar ezgaitzen du.	Asteetan zehar ezgaitzen du.
Ezaugarriak	Heriotzaren zenbait aspektu ukatzen ditu (egoera, hildakoaren ezaugarriak...).	Hildakoaren heriotza ukatzen du, ez du hilda dagoela onartu nahi..
	Hildakoarekin identifikatzen da (bere ezaugarriak imitatu, bere gauzak gorde...)	Hildakoa dela pentsatzen du.
	Hildakoa entzuten, ikusten nahiz usaintzen du, modu iragankorrean, erreala ez dela jakinik.	Haluzinazio konplexuak eta egituratuak ditu.
	Hildakoari heriotza eragin zioten sentazioen antzeko sintoma somatikoak edukitzen ditu.	Eritasun beraren ondorioz hil egingen dela pentsatzen du, medikuarengana jotzen du behin eta berriz arrazoi horrengatik.
	Hildakoari lotutako jokabideak aurrera eramaten ditu, kulturalki onartuak daudenak (lutoa, esaterako).	Jokabide ez-ohikoak ditu (errautsak mantentzea, aldareak eraiki, egunero hilerria bisitatu...).

Eritasun eta nahaste gehienetan ematen den moduan, dolu patologikoak ere bere agerpena areagotzen duten arrisku-faktore batzuk ditu. Esan bezala, dolu mota hau garatzeko arriskua dago min morala denboran zehar modu esanguratsuan luzatzen denean, intentsitatea subjektuaren aurreko izaerarekin bat ez datorrenean, beste pertsona batzuk maitatzeko ezintasuna agertzen bada edota subjektua eguneroko

bizitzan baliogabetua sentitzen denean, ezin diolako utzi hildakoa gogoratzeari (Meza et al., 2008). Hala ere, agerpen eta seinale horiek ikusi aurretik, badira beste zenbait faktore dolua konplikatzeke aukerak areagotzen dituztenak. Beraz, arrisku-iragarle hauen bitartez galera bat pairatu ostean laguntza gehiago beharko duten pertsonak identifikatzeko gai gara, eta modu honetan, aurreratu dezakegu nork izan ditzakeen dolua burutzeko zailtasunak, prebentzio moduan jardun dezakegu, ebatzi gabeko dolua ekiditeko esku-hartze goiztiarraren bitartez (Vedia, 2016).

Hauek dira dolu patologikoaren arrisku-faktoreak (Acinas, 2012):



9.irudia. Arrisku-faktoreak

- *Pertsonaren araberakoak*
 - Adina.
 - Aurrekari psikiatrikoak (antsietatea, depresioa, suizidio saiakerak...).
 - Sustantzia psikotropikoen kontsumoa.
 - Burutu gabeko doluak edukitzea.
 - Interes edo zaletasun gabezia.
 - Amorr, erruduntasun zein samintasun erreakzio biziegiak.
 - Behar afektiboen ukatzea.
 - Egoerari aurre egiteko baliabide falta subjektiboa.
 - Estresa kudeatzeko tresnen gabezia.
 - Autoestimu baxua.

- *Harremanaren araberakoak*
 - Seme-alaba, bikotea, anai-arreba edota gurasoa adin goiztiarrean galtzea.
 - Hildakoarekiko mendekotasun harremana. (fisikoa, psikologikoa, soziala nahiz ekonomikoa).
 - Hildakoarekin harreman gatazkatsua.

- *Egoeraren araberakoak*
 - Hildakoa gaztea denean.
 - Bat-bateko heriotza. Istripu, erailketa, hondamendi edo suzidioaren ondoriozko heriotzak.
 - Galera ziurra ez denean (desagertuak).
 - Galera anizkoitza, hau da, gertuko hainbat pertsonen heriotza ematea edo hainbat galera une berean izatea (etxea, lanpostua...).
 - Estresa eragiten duten zenbait gertakizunen metaketa.
 - Gorpua berreskuratua ez izatea.
 - Gorpua ikusteko ezintasuna.
 - Heriotza prozesuaren oroitzapen gogorrak.
 - Estigmatizatutako heriotza (hiesaren ondoriozkoa, esaterako).

- *Inguruaren araberakoak*
 - Bakarrik bizi diren pertsonak.
 - Laguntza eta errefortzu sozialaren gabezia.
 - Familia-disfuntzioa.
 - Baliabide sozioekonomiko urriak.
 - Seme-alaba txikien ardura izatea.
 - Galeraren inguruan sozialki ezin hitz egitea.
 - Bestelako faktore estresagarriak: lan-gatazkak, geldiarazitako biritza proiektua, etab.

Horretaz gain, garrantzitsua da gizabanakoen osasuna babesten duten faktoreak ere azpimarratzea, beren arazoak eta zailtasunak gainditzeko erraztasunak eskaintzen dizkigutenak (Acinas, 2012):

- *Izaera aldagaiak eta baliabide pertsonalak*
Baikortasunerako joera duten pertsonak hobeki jasaten dute egoera.
- *Familia baliabideak*
Laguntza afektibo solidoak eta familia-egitura egokiak dolua positiboki gainditzen laguntzen dute.
- *Parte-hartzea eta pertsona maitatuaren zainketa*
Minak heriotzaren onarpenean laguntzen du, baita harremanaren aspektu onuragarriak oroitzen eta emozionalki hobeki sentitzen lagundu ere.
- *Erlijiositatea*
Pertsona erlijiosoagoek heriotzaren aurrean beldur urriagoa aurkezten dute, gertatutakoari zentzua aurkitzeaz gain, eta honek egoera arintzen laguntzen du.

Dolu patologikoaren diagnostiko egokia lortzea ezinbestekoa da, ondoren, dagokion tratamendua jasotzeko, hortaz, azterketa mediko eta psikologiko sakona egin ohi da. Zenbait kasutan, dolu konplexua eta depresioa aldi berean eman daitezke, ondorioz, ongi aztertu behar da egoera, elkarren artean ez nahasteko, sintoma antzekoak baitituzte. Dena dela, orientazio moduan, hurrengo taulan Gil-Juliá et al. (2008) egileek proposatzen duten “Adaptación al castellano del inventario de duelo complicado” galdetegia aurki daiteke, dolu patologikoa edo konplexuaren diagnostikorako irizpide batzuk ematen dizkigunak:

8.taula. Dolu patologikoaren diagnostikorako irizpideak

A irizpidea	Heriotzak eragindako <i>bereizketa afektiboaren</i> ondoriozko estresa	Egunero hurrengo sintometatik gutxienez 3 aurkeztea: 1. <i>Intrusio-pentsamenduak</i> – etengabe burura datozenak, hildakoari lotuta. 2. <i>Nostalgia</i> – bere falta tristura sakonarekin gogoratu. 3. <i>Hildakoaren bilaketa</i> – hilda dagoela jakin arren. 4. <i>Bakardade sentimenduak</i> – heriotzaren ondorioz.
B irizpidea	Heriotzak ekartzen duen <i>trauma psikikoaren</i> ondoriozko estresa	Egunero, heriotzaren ondorioz, hurrengo sintometatik gutxinez 4 aurkeztea: 1. Helburu gabezia edota etorkizunari begira dena alferrekoa dela. 2. Axolagabekeria, hoztasun eta erantzun emozional ezaren sentsazio subjektiboa. 3. Heriotzaren errealitatea onartzeko zailtasunak. 4. Bizitzak zentzurik ez duela eta hutsa dela pentsatzea. 5. Bere buruaren parte bat hil dela sentitzea. 6. Hildakoarekin lotutako sintoma zein jokabide kaltegarriak hartu. 7. Heriotzarekin lotutako gehiegizko suminkortasuna, haserrea edota samintasuna. 8. Mundua ikusteko eta interpretatzeko era aldatua izan.
C irizpidea	<i>Kronologia</i>	Nahastearen iraupena (goian zehaztutako sintomak) 6 hilabete baino gehiagokoa da.
D irizpidea	<i>Narriadura</i>	Nahasteak subjektuaren bizitza modu esanguratsuan baldintzatzen du.

1.3. Doluaren trataera eskolan

1.3.1. Heriotza hezkuntzan eta curriculumean

Heriotzaren gaia, eduki gisa, zenbait arloren barne egon litzateke eskolan. Batetik, heriotza ikuspuntu biologikotik aztertuta, Natur Zientzien barnean koka genezake, eta gizarteak honi ematen dion zentzua eta sinbologia Gizarte Zientzien barne. Dena dela, heriotza eta horrek bizitza arruntean bizi arazten dizkigun esperientzietan zentratzen bagara, galera batek eragiten digun dolu prozesua eta hori gainditzeko garatu beharreko tresnak adimen emozionalaren barne kokatzen ditugu.

Salovey eta Mayer adituek 90. hamarkadan zehar adimen emozionalaren kontzeptuan sakontzen aritu ziren. Modu honetan, adimen emozionala trebetasun multzo batez osaturik zegoela definitu zuten, eta horiek emozioen ezagutza, erabilera, ulermena eta erregulazioa ziren, laburki esanda.

Gure barnean behatzeko gaitasuna behar dugu, gure emozioak eta, ondoren, besteenak identifikatu ahal izateko, baita emozioak eta sentimenduak ikuspegi konstruktibo batean erabiltzeko gaitasuna ere. Modu honetan, horiek gure pentsamendua eraikitzeko, arazoak konpontzeko eta besteekin komunikatu ahal izateko erabiliko ditugu. Honekin batera, emozioen ezaugarriak, bilakaera, jatorria eta beste sentimendu batzuekin duten lotura ulertuta, horiek erregulatzeko eta kudeatzeko gai izanen gara (Salovey, Mayer, 1997. Salovey, Sluyter edizioaren barne).

Laburbilduz, adimen emozionala emozioak aldatzeko edota erregulatzeko estrategiak aplikatzeko trebetasuna da, gure pentsaera eta jokabidea errazteko helburuarekin.

Idea hau dolu prozesuarekin lotzearren, esan beharra dago galera bat jasateko eta horrek dakarren dolua gainditzeko kontzientzia emozionala izatea erabat lagungarria dela. Azken boladan, eskolan adimen emozionala lantzeko saiakerak egiten ari dira, merezi duen garrantzia eta presentzia eman nahian. Modu honetan, ikasleek eguneroko bizitzan aurki ditzaketen oztopo emozionalak kudeatzeko estrategiak garatzen dituzte, eta askotan ahazten dugu galera bat sufritzea horien artean dagoela.

Aipatu izan dugu dolu emozionala galera bat gainditzeko igaro beharreko ezinbesteko prozesua dela, eta bistakoa den moduan, egoera errazago kudeatuko dugu sentitzen ari garena identifikatzeko, ulertzeko eta erregulatzeko trebeziak izanda.

Azpiko irudian 60/2014 Foru Dekretuak ezartzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumean biltzen diren helburu orokorrak ageri dira.

4. artikulua. Etoparen helburuak.
- Honako helburu hauek erdieste ahalbidetuko dieten gaitasunak haurren garatzen lagundu behar du Lehen Hezkuntzak:
- a) Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.
 - b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzukizun ezartzea, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena ikasketen prozesuan, eta ekintzailerak.
 - c) Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.
 - d) Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea eta, halaber, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren berdintasuna, eta desgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.
 - e) Gaztelania eta, bere kasuan, euskara modu egokian jakin eta erabiltzea eta irakurtzeko aztura bereganatzea.
 - f) Atzerriko hizkuntza batean, gubuzien, oinarritzko komunikazio gaitasuna bereganatzea, mezu errazak adierazi eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko aukera emanen diena.
 - g) Matematikako oinarritzko gaitasunak garatu eta kalkuluko eragiketa oinarritzkoak, geometria ezagutzak eta estimazioak egitea eskatzen duten problemak ebazten hastea, eta horiek guztiak eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko gauza izatea.
 - h) Natur zientzien, gizarte zientzien, geografiaren, historiaren eta kulturaren oinarritzko alderdiak ezagutzea eta, orobat, ezagutzen hastea Nafarroaren geografia eta historia eta Nafarroa berezi egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna, Nafarroako Foru Komunitateko kide izatearen sentimendua garatzeko asmoz.
 - i) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea.
 - j) Era askotako irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea, sentikortasun estetikoak, sormena eta artelanez eta arte adierazpenez gozatzeko ahalmena garatzea, eta ikusizko eta ikus-entzunezko proposamenak gauzatzen hastea.
 - k) Higienea eta osasuna aintzat hartu, norberaren eta besteen gorputza onartu, desberdintasunak errespetatu eta gorputz hezkuntza eta kirola garapen pertsonal eta sozialerako lagungarri gisa erabiltzea.
 - l) Landareak eta animaliak ezagutzea eta balioestea, bereziki Nafarroan daudenak, eta haien zaintzearen, garapen iraunkorren eta ingurumenarekiko errespetuaren aldeko portaerak hartzea.
 - m) Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreintzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.
 - n) Bide hezkuntza eta zirkulazio istripuen prebentzioan eragina duten begirune jarraiek bultzatzea.

10.irudia. Lehen Hezkuntzako etaparako helburu orokorrak Nafarroako Curriculumean.

Ikusten denez, ez dago adimen emozionalarekin loturiko helbururik, hortaz, legean ez da bermatzen ikasleek bizitzan aurki ditzaketenen gorabeherak kudeatzeko tresnarik eskuratzea.

8. artikulua. Gaitasunak.

Ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak honako hauek dira:

- 1.–Hizkuntza komunikazioa.
- 2.–Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarritzko gaitasunak.
 - 2.1.–Matematika gaitasuna.
 - 2.2.–Zientzia eta teknologiko oinarritzko gaitasunak.
- 3.–Gaitasun digitala.
- 4.–Ikasten ikastea.
- 5.–Gaitasun sozial eta zibikoak.
- 6.–Ekimena eta ekintzailerak.
- 7.–Kultura kontzientzia eta adierazpenak.

11.irudia. Lehen Hezkuntzako oinarritzko gaitasunak Nafarroako curriculumean.

Lehen Hezkuntzako oinarrizko gaitasunei begira (11.irudia), ez dago aipatzen ari garen gaiarekin argi lotutako gaitasunik. Lotura gehien izan ditzaketenak *gaitasun sozial eta zibikoak*, eta *ekimena eta ekintzailtza* izan litezke, baina ez daude zuzenki erlazionatuak. Curriculumaren arabera, “etapan zehar gaitasun hauen garapena indartuko da: hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna, eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak”. Hortaz, gaitasun horiei lehentasuna ematen zaie, nolabait esanda.

Arestian aipatu den gisan, dolua lanketa pertsonala eskatzen duen prozesua da, baina aldi berean, prozesu soziala da (Cid, 2011). Howard Gardnerrek 1983.urtean proposatutako *Adimen Anitzen Teoria* ezagunaren arabera, gizakion adimena hainbat alorretan banatuta dago, garuneko hainbat gunetako neuronak inplikaturik daudelarik. Horretan oinarrituz, adimenaren zortzi dimentsioak zehaztu zituen, hurrengo irudian adierazten direnak:



12.irudia. Adimen anitzen teoria (Gardner, 1983).

Adimen mota horien artean, badira bi gaiarekin estuki loturik daudenak. Batetik, *pertsona barneko adimena* dago, hau da, norberak bere buruaren inguruan dituen ezagutzak, esaterako, emozio eta sentimenduen identifikazioa, autoerregulazioa, etab. (Gardner, 1983). Era laburrean esanda, norberak dituen tresnak ezagutzean eta horiek garapen pertsonala lortzeko bidean egoki erabiltzen jakitean datza. Bestetik, *pertsona arteko adimena* besteak ulertzeko gaitasunari dagokio. Honen barne, empatia kokatuko genuke.

Honen harira, 1995ean Golemanek adimen emozionalaren inguruko definizio bat proposatu zuen, aurreko adimenak batuz (*pertsona barnekoa* eta *pertsona artekoa*). Bere hitzetan, “adimen emozionala nork bere bizitza behar bezala gidatzeko emozioen kontrolean oinarritzen da, *pertsona barneko* nahiz *pertsona arteko* mailan. Adimen honek helburu zehatzak lortzeko trebeziak kontrolatzen laguntzen gaitu, epe luzerako zorientasuna areagotuz. Hitz gutxitan, adimen emozionala nork bere emozioak kudeatzeko gaitasuna da” (Fernández, Mihura, 2015, 8).

Doluaren eremura eramanda, *pertsona barneko adimenak* dolu prozesuak eskatzen duen lanketa pertsonal hori burutzeko beharrezko tresnak ematen dizkigu. Bestera esanda, gure sentimendu eta emozioetara heltzean datza, eta horiek nork bere pentsaera eta jokaera gidatzeko erabili, dolu prozesua gainditzera zuzenduz. Aldi berean, *pertsona arteko adimenak* ere doluak duen alderdi sozial horretan lagun gaitzake. Honen barnean galera bat sufritu duen norbaiten tokian jartzeko tresnak, *pertsona hori laguntzeko* estrategiak... kokatuko genituzke.

1999.urtean, “*La inteligencia reformulada*” liburuan, Gardnerrek bederatzigarren adimen bat egon litzatekeela ezagutzera eman zuen, *adimen existentziala* edo *espirituala* izenekoa, gaur egun alde batera utzi dena. Adimen hau pertsonen gure bizitzaren inguruan egiten ditugun galdera sakonak eta horiei ematen saiatzen garen erantzunak sortzen dituena da. Adimen moten barne egon ala ez, alderdi hau kontutan eduki behar dugu heriotzaren gaia lantzean, gizakiok, eta bereziki haurrek, bizitzaren eta heriotzaren inguruko kezka anitzak aurkezten dituztelako.

Ondorio moduan, esan genezake heriotzaren gaia gizartean presentzia urria ematen zaion moduan, eskolan eta curriculumean ere toki eza duela. Mar Cortinak heriotzaren eta horren irakaskuntzari buruz lan sakonak garatu ditu, eta berak argi dauka kontzeptu horren inguruan dugun jarrera aldatzeak eragin positiboa izanen lukeela guregan, heriotza normalizatzea “bizitza ulertzeko hezte” delako, hori eginez heriotzaren aurreko beldur hori murriztuko litzatekeelarik (Cortina, 2010). Horrekin batera, bere aburuz, heriotzaren normalizazioak hurrengo puntuak barne hartuko lituzke:

- *Hezkuntza emozionala.*
Nork bere beldurrak, estutasunak, kezak... adierazteko eta partekatzeako konfiantzazko eta errespetuzko inguru segurua eskainiz.
- *Demokraziarako heziketa.*
Pentsaera kritikoa, parte-hartzea, erantzukizuna, errespetua, berdintasuna eta aniztasuna sustatuz.
- *Kulturartekotasunerako heziketa.*
Beste kulturak eta gurea bera historian zehar ikertuz gure pentsatzeko era eta sinesmen hegemonikoak erlatibizatzeako aukera dugu, heriotzari aurre egiteko dauden modu anitzekin aberastuz.
- *Heziketa estetikoa.*
Heriotzan pentsatzeak geure begirada orainaldira bideratzen du, gure inguruaren eta ingurukoaren edertasuna antzemanaz.
- *Bakerako heziketa.*
Bakea lortzeko beharrezko baloreak eta ezagutzak eskuratuz, baita nork bere buruarekin, besteekin eta inguruarekin harmonian bizitzeko trebetasunak ere.

1.3.2. Administrazioaren baliabideak

Eskolak ikasleen behar ugarietara erantzun behar die, ez soilik curriculumeko edukiei lotuta, baizik eta garapen pertsonal eta sozialari dagozkion alderdiei ere. Lan horretan laguntzeko, administrazioak baliabide ugari eskaintzen ditu. Heriotzaren gaiari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, bere web gunearen Osasun atalean, informazio eske dagoen edozeinek erabili ahal izateko liburuxka labur batzuk eskaintzen ditu, hala euskaraz nola gazteleraz.

Lehenengoa, “Maite zenuena hil da / Tú ser querido ha muerto” izenekoak, galera bat gainditzeko zenbait aholku eta horren ostean ohikoak diren sentimenduak laburtzen ditu 6 orrialdetan, amaieran nahi bezala erabiltzeko tarte zuri bat utziz. Bigarrenak, “Bizitzea maite dena hil denean / Vivir cuando un ser querido ha muerto”, maite dugun pertsona hil eta geroko epeari zuzendutako orientabideak eskaintzen ditu. Bi hauek ez daude haurrei espresuki zuzenduak, baina bertan ageri den informazioa egokituz baliagarriak izan daitezke. Hirugarrenak, ordea, adin ezberdinetako haurrei gertuko pertsona baten galera gainditzeko laguntzeko jarraibideak ematen dizkigu, ondorio negatiboak saihesteko asmoz. Honek “Dolua haurrengan / El duelo en los niños” izenburua dauka.

Ikus daitekeenez, baliabideak egonagatik ere, hauek erabat eskasak dira, eta haurren ikuspegitik garatutako liburuxka bat eskaini arren, ez dago eskolari berriaz zuzendutako baliabiderik. Orduan, pentsa genezake ikastetxeek ez dutela gaia egoki lantzeko beharrezko baliabiderik ezta laguntzarik ere (behintzat administrazioaren aldetik), eta horri erantzutea da lan honen helburuetako bat, hain zuzen ere.

1.3.3. Eskolan dolua lantzeko nondik norakoak

Familia-inguruaz gain, dolu prozesuan dagoen haur baten sintomak eta erreakzioak bizitasunez adieraziko diren bigarren ingurua eskola da. Honek esan nahi du eskola prozesu honetan dauden haurrak laguntzeko toki garrantzitsu bilakatzen dela.

Ikastetxe batek galera bat sufritu duen ikasle baten kasuari aurre egin behar dionean, ezinbestekoa da irakasletza gertatutakoaz behar bezala informatzea, haurra prozesuan laguntzeko, dolua zailtzen duten akatsetan ez erortzeko ezagutzak izatearekin batera (Cid, 2011). Hortaz, beharrezkoa da familiak eskolari gertatutakoaren berri ematea, harremanetan jarraituz ikaslearen egoerari buruzko informazioa partekatzeko, inguru ezberdinetan izandako bilakaera aztertzeko edota familia laguntzeko.

Eskolatik esku-hartze eraginkorra eskaini ahal izateko, garrantzitsua da dolu prozesuan dauden ikasleek ikasgelan aurkezten dituzten jokabide ohikoak ezagutzea (elkarren artean sobera lotuak daudenak), horren arabera esku-hartzeko. Hurrengo puntuetan, Cid-ek (2011) jokamolde horiek bilduz plazaratzen duen zerrenda azaltzen da:

- *Arreta eta kontzentrazio arazoak.*

Galera bat sufritzean energia gehiena egoera horren asimilaziora eta dolu prozesura zuzentzen da. Kanpotik haurra adigalkor eta bere baitan bilduta dagoela irudi lezake, bere barnean aurrera eramaten ari den dolu prozesu gogorraz jabetu gabe. Hala helduoi nola haurrei, barne-prozesu hori geldiaraztea izugarri zaila egiten zaigu, hortaz, ezinezkoa izaten da beste gauza batzuei arreta bera eskaintzea, eta ohikoak izan daitezke arreta eta kontzentrazio arazoak.

- *Memoria zailtasunak.*

Aurrekoaren arrazoi bera dela eta, baliteke dolu prozesuan dauden haurrek memoria arazoak izatea eta gauzak erraztasunez ahaztea, arreta galeran zentratua baitu.

- *Eskola-errendimendu murrizketa.*

Memoria, arreta eta kontzentrazio gabezia dela eta, dolu prozesuan dauden ikasleen eskola-errendimendua baldintzatua egonen da. Gehienetan, gutxitze horrek ez du garrantzi gehiegirik izaten, baina egoera luzatzen bada, haurrak estuturik edo larriturik senti daitezke beren emaitzak okertzean edota kideen erritmoa jarraitu ezin dutela ikustean. Honek estresa eta antsietatea eragin dezake ikasleengan.

- *Antsietate motako jokabideak.*

Ohikoa da heriotza gertutik antzematean haurrek lehen ez zituzten beldur berriak garatzea, bereziki, maite duten beste pertsona bat hiltzeko beldurra. Askotan, egoera horiek zer ondorio izanen lituzketen pentsatzen dute, bakarrik geratuko direlako beldurra garatzen dute, etab. Gehienetan, beldur horiek ez dituzte hitzen bitartez azaleratzen, baina antsietate handiko jokabide horien bitartez pentsamendu horiek beren barnean eragiten duten estresa hauteman dezakegu. Jokabide horien adierazleak askotarikoak izan daitezke, hala nola, gurasoengandik bereizteko zailtasunak, edo lagunekin jolasteko errefusa, beti heldu batekin egoteko ahaleginak eginez.

- *Bat-bateko negarrak.*

Helduen nahiz haurren dolu prozesuaren ezaugarrietako bat hildako pertsonaren irudi eta oroitzapenen iraunkortasuna da. Honek esan nahi du denbora igaro arren, oroitzapenak eta emozioak edozein unetan azalera daitezkeela, dolu prozesuan dauden pertsonengan espero daitekeen zerbait.

Haurrek ikasgelan ager ditzaketen ohiko jarrerak ezagututa, hurrengo urratsa ikasle hori laguntzeko irakasleek zer egin dezaketen jakitea izanen litzateke. Azpian zenbait autoreek (Cid, 2011; Izagirre, 2003; Andonegi et al., 2016) horren inguruan aipatzen dutena biltzen da:

1. *Ikasgelan normaltasunari eutsi, malgutasunarekin.*

Dakigunez, gertuko senide baten heriotza ematean haurra laguntzeko bete dezakegun jarraibiderik eraginkorrenetarikoa eguneroko bizitzaren erregularitasunera itzultzea dela. Ikasgelan, gauza bera aplika daiteke. Garrantzitsua da haurra eskolara itzultzean, ikasgela modu berean funtzionatzen jarraitzea, mugak, arauak eta eskakizunak berdin jarraitzen dutelarik. Hala eta guztiz ere, normaltasunak haurrak biziki laguntzen dituen arren, irakasleak ezin du ahortzi ikaslearen benetako egoera. Ezinbestekoa da ikaslearen errendimendua, arreta eta kontzentrazioa bere minaren eta barneko ondorearen ondorioz murriztuko direla kontuan izatea, ikasgelaren erritmoa jarraitzeko, bere zereginak betetzeko eta azterketak egoki egiteko zailtasunak eraginez. Horregatik, ohikotasun horren barne ahalik eta malguten izatea komeni da. Irakasleak modu anitzetan lagun dezake, hala nola, lanen entregatze epea luzatuz, azterketak beste une batean egitea edo ikasgela lasaiago batean burutzea baimenduz, etxerako lanak gogoan hartu dituen galdetuz edota epealdi batean zehar errefortzu akademiko gehigarria eskatu.

2. *Familiarekin modu erregularrean harremanetan egon.*

Komeni da tutoreak ikaslearen familiarekin harremanetan egotea, ahalik eta gehien, eskolako psikopedagogia sailaren laguntzarekin, beharrezkoa izanez gero. Honen helburua, batetik, familiaren eta ikaslearen inguruaren errealitatea

eta familiako kideek bizi duten egoera ezagutzea litzateke (bereziki hildakoa gurasoren bat edo anai-arreba balitz), eta, bestetik, eskolan ikaslearekin lantzen ari garenaren edo detektatu dugun edozein adierazle esanguratsuren berri emateko. Hortaz, orokorrean, xedea informazioa partekatzea litzateke.

Bilera hauek ere, gurasoei laguntza edo aholkua eskaintzeko baliagarriak izan daitezke. Beraz, garrantzitsua da irakasletza eta eskolako psikopedagogia saileko kideek gaiaren inguruko oinarrizko ezagutzak izatea, baita familiarentzako laguntza materiala edukitzea ere. Halaber, funtsezkoa da familiarekin eskolan jarraitu behar diren jarraibideei buruz hitz egitea, baita umeak errefortzua behar duen edo bere bilakaeran geldialdia nabari den komunikatu ere, horren araberako neurriak hartzeko.

3. *Eskola-eremuan ikasleari errefortzu gehigarria eskaini.*

Haurrak eskolan ordu ugari igaroko ditu, hortaz, baliteke umeak, egunean zehar, gainerako senideen egoeraren inguruan kezkatu edo larriturik sentitzea, eta horretaz gain, arreta edo jokabide arazoak azaltzea, ikaskideekin nahiz irakasleekin liskarrak izanik.

Ikaslearen ondoezaren areagotzea ekiditeko, aukera bat izan daiteke pertsona bat finkatzea, egoera horietan berarentzat arnasbide izan daitekeen espazio bat edukitzeko, lasaitasuna ematen dion pertsona horren laguntzarekin. Beharrezkoa balitz, erabat lagungarria izan daiteke pertsona horren bisita erregularrak jasotzea, segimendu erregularrago bat egin ahal izateko, krisialdi egoera puntualak egotera itxaron orde.

Bestalde, lagungarria da haurrarekin harremanetan dauden irakasle guztiek ikasleari bere egoera ezagutzen dutela jakinaraztea. Batzuetan, irakasle askok distantziari eusten diote, zer esan ez dakitelako edota gaiaren inguruan hitz eginez ikaslea kaltetuko dutelako beldur direlako. Hala ere, ikaslearentzat lagungarria izan daiteke bere irakasleak gertu daudela jakitea eta, bere ondoezaz hitz egin nahi izanez gero, beren laguntza duelarik.

4. *Telefono deiak edota ikasgelatik ateratzea baimendu.*

Behin eta berriz esan dugunez, dolu prozesuan dauden haurrak bere gertuko pertsonak kalte ditzakeen zerbait gertatzeko beldurra izan ohi dute. Batzuetan, beldur hau neurritz gainera estutasuna eragin diezaieke. Kasu hauetan, eskolako zuzendaritzak senideen deiak jasotzeko edo egiteko baimena ematea baliagarria izan daiteke, hauek ongi daudela ziurtatzeko, bere ezinegona murrizteko asmoz. Beste egoera batzuetan, ikaslea deseroso eta larriturik senti daiteke bere kideen begiradak sentitzean, edo gerta liteke une zehatz batean, berehalakoan, min eta atsekabe bizia sentitzea. Garrantzitsua da erne egotea, une horietan ikasgelatik ateratzeko baimena emateko, komunera joateko nahiz laguntza-pertsona horrengana jotzeko, benetan behar hori badu.

5. *Data bereziak errespetatu eta kontuan izan.*

Komenigarria da haurrak modu desatseginean bizi ditzakeen egun esanguratsuei erreparatzea, hala nola, Eguberriak, amaren/aitaren eguna, aiton-amonen eguna... Horiek kontuan izan beharreko datak dira. Egun horiek ospatzeko programatutako eskola-jarduerak ez burutzea baimen dezakegu, ikasleak hala nahi badu edo zailtasun gehiegirekin biziko dituela aurreikusten badugu. Hala ere, umeak laguntza egokia jasotzen badu, eta berarentzat positiboa eta aberasgarria izan daitekeela baloratuz gero, jarduera hauek aurrera eramatea baliagarria izan daiteke, ikuspegi egokia emanaz. Adibide bat jartzearren, amaren edo aitaren egunean beraientzat postal bat egitea proposatzen bada, ama edo aita galdu duen ikasle horrek oroitzapenezko zentzuarekin gauzatzen ahal du.

Bestelako egun garrantzitsuak hildakoaren urtebetetzea edota heriotzaren urteurrena izan daitezke. Egun horietan, haurra bereziki triste edo adigalkor egon daiteke. Data horiek ezagutzen baditugu, arretatsu egon gaitzke, umeari zer gertatzen zaion ulertu eta bere gogo-aldarte aldaketaren arrazoia ezagutu.

Emandako informazioa osatzearen, azpian Nafarroako Gobernuaren web gunean eskuragarri dagoen “Dolua haurrengan” liburuxkan ematen diren iradokizunak ditugu, hasierako zerrendan daudenak, helduei zuzenduak (kasu honetan irakasleei egokituak), eta taulan daudenak ikasleei zuzenduak.

- *Haurra lagundu baino lehen, lagundu zeure burua.*

Irakaslea ere heriotzak eraginda badago (eskolako ikasle edo langileren bat hil delako, esaterako), dolua hark ere bizi du. Galerei aurre egiteko moduz gogoetarik egin ez badu, ezin die ikasleei lagundu.

- *Adierazpen hauek ekidin: “ez kezkatu, luze bizi izan da”, “ez kezkatu, orain ez du sufritzen” edo “ez kezkatu, leku hobean dago”,* dolu prozesuan dagoen pertsonak sentitzen duenaren guztiz aurkakoak direlako. Gertaera triste, mingarri edo negatiboen aurrean tristura, samina eta sentipen negatiboak izatea bidezkoa eta osasungarria da.

9.taula. Ikasleekin doluaren aurrean esku-hartzeko iradokizunak

<i>Adina</i>	<i>Iradokizunak</i>
0-10 hil.	<ul style="list-style-type: none"> ● Haurren ohiturei eusten saiatu. ● Ohiz kanpoko soinu eta gertakariak ahal diren gutxienak izan daitezela.
10 hil. 2 urte	<ul style="list-style-type: none"> ● Ohiturei eutsi. ● Erabateko maitasuna eta laguntza eman. ● Berarekin ahal duzun guztietan egon. ● Antzemandako tristuraren zergatiak eta arrazoiak azaldu.
2-5 urte	<ul style="list-style-type: none"> ● Heriotzaren berria modu sinplean eta argian eman, hitzak kontuz erabiliz, hitzez-hitz har ditzakete eta. ● Heriotza zer den azaltzen saiatu (“Hiltzea dena gelditzea da, ezin da jan, arnasik hartu, ibili...”). ● Pazientziarekin jokatu, haserretu edo haurra errudun sentiarazi gabe. ● Ez urrundu zugandik, ez bidali beste toki batera. ● Bere sentipenak kanporatzeko aukera eman. ● Lasaitu, abandonatua izateko beldurrik izan ez dezan.

5-9 urte	<ul style="list-style-type: none"> ● Heriotzaren berria lehenbailehen eman. ● Sentimenduen inguruan mintzatu. Bultzatu berak ere kanpora ditzan. ● Kontuan izan kontsolamendua behar duela. ● Ez idealizatu hildakoa. ● Okerreko jokabideak zuzendu, baina ohi baino maitasun eta kontu handiagoz. ● Heriotzaren arrazoia adierazi, ulertzeko moduan eta soseguz. ● Ez esan gisa honetako esaldirik: “ez egin negarrik”, “indartsu izan behar duzu”...
9-12 urte	<ul style="list-style-type: none"> ● Haserre badago lasaitu, baina ez onartu indarkeriazko edo kontrolik gabeko jokabideak, ezta ezikusia egin ere haien aurrean. ● Denbora hartu sentimenduak adieraz ditzan. ● Sentimenduen inguruan mintzo egin. ● Beldurrak agertzen badira, horiei erantzuna eman. ● Ziurtatu hitz egindakoa zuen artean geldituko dela. ● Lagunekin jolastera ateratzera animatu. ● Esan bere ondoan egonen zarela. ● Ez behartu gisa honetako esaldiekin: “aitak hau eta beste nahiko luke...”, “amari hau edo beste gustatuko zitzaiokeen...”.
Nerabeak	<ul style="list-style-type: none"> ● Heriotzak izan ditzakeen ondorioez hitz egin berarekin. ● Ateratzeko, lo egiteko, ikasteko... ordutegiari eusten saiatu. ● Adiskideekin ateratzera animatu, erabat lagungarria baita adin horretan. ● Maite duzula adierazi eta segurtasuna eman.


2. ESKU-HARTZE PROTOKOLOA

Atal honetan ikasle baten gertuko pertsona baten heriotza ematean (eskola-komunitatekoa nahiz kanpokoak) eskolak martxan jarri beharreko protokoloaren proposamena azaltzen da, prozesuan arduradun bakoitzak izanen dituen eginkizunak eta beharrezko jarraibideak eta baliabideak bilduz. Protokoloa bera, bertan eskaintzen diren baliabide gehienak eta inprimaki guztiak marko teorikoan jasotako informazioan oinarrituz izan dira sortuak. Horretaz gain, graduan zehar ikasitako kontzeptu eta edukiak erabili ditut, baita eskola-praktiketan izandako esperientziak eta ikaskuntzak ere, ikasgelan ematen den errealitatea ezagutzeko aukera eskaini didatelarik. Gainera, eskerrak eman behar dizkiot Iosu Cabodevilla psikologoari, dolu prozesuan aditu esanguratsua dena Nafarroa mailan, bere iradokizunak eta aholkuak lagungarriak izan zaizkidalako tresnaren hobekuntza egiterakoan, baliabide ugari gomendatzeaz gain.

Heriotza eta horri lotutako behar psikologikoei dagokienez, bi esku-hartze mota bereiz ditzakegu (Andonegi et al., 2016):

1. *Hezitzailea*. Honek prebentzioari erantzuten dio, hau da, heriotzaren pedagogia helburu izanik, ikastetxeko curriculumean eta eskola-jardueretan doluaren bizipenaren ezagutzarako eta heziketarako programa bat aurrera eramatea.
2. *Aringarria*. Kasu honetan, eskola-komunitateko edo ikaslearen inguruko norbaiten heriotzaren ostean ematen den laguntzari dagokio, hau da, heriotzak eragindako dolu prozesuaren gaineko esku-hartzea litzateke, haurrak prozesua era egokian burutu dezan.

Kasu honetan, bigarren mota horretan zentratuko gara, jarraian azaltzen den protokoloa heriotza gertatu eta gero eskolak eman beharreko erantzuna azaltzen baitu. Hala ere, nik, honen barne, hirugarren egoera bat bereiziko nuke: oraindik heriotza eman ez denean baina ikaslearen inguruko pertsonaren bat hiltzear dagoenean. Kasu horretan, ikaslea dolu prozesu batean dago ere, baina beste era batean. Hortaz, sortutako protokoloa halako egoeretan zer egin zehazten ez badu ere, esku-hartzeko ez dugu heriotza eman arte itxaron beharrik, protokoloa molda daiteke edota bere baliabideak erabili, familiarekin harremanak finkatzen hasteko.



13.irudia. Protokoloaren atalak

2.1. Helburuak

Protokoloaren helburu orokorra eskolako profesionalei ikasleen behar psikopedagogikoei erantzuna emateko jarraibideak ematea litzateke. Horren barne, hurrengo helburuak aurki ditzakegu:

- Ikasleak dolu prozesua egoki burutzeko beharrezkoa duen gidaritza zein jarraibideak eskaintzea.
- Ikaslearen heziketan inplikatuak dauden arduradun guztien koordinazioa zuzendu, beharrezkoa den eremu guztietan (banaka, ikasgelan nahiz familia eremuan).
- Familiari eta eskolako profesionalei beharrezko laguntza eta orientabideak eskaini prozesu osoan zehar.

2.2. Arduradunak

Ikaslearen esku-hartzean parte-hartuko duten bi talderik garrantzitsuenak eskola eta familia izanen dira. Eskolaren barne, ardura tutorea izanen da, orientatzailearen laguntza izanik. Horretaz gain, kasu berezietan, kanpo-erakundeen parte-hartzea ere beharrezkoa izanen da.

2.2.1. Funtzioak

Tutorea:

- Familiarekin informazioa partekatu dolu prozesu osoan zehar.
- Ikasgela mailan lagungarriak izan daitezkeen ekintzak eta jarduerak antolatu.
- Ikasgela konfiantzazko inguru segurua dela bermatu.
- Ikaslearen bilakaera, emozioen adierazpena eta baliagarria izan daitekeen edozein datu behatu.
- Orientatzailearekin koordinatu (jarduerak planifikatzeko, informazioa partekatzeko, etab.)

Orientatzailea:

- Familiari etxean egoera kudeatzeko jarraibideak eman.
- Irakasleei orientabideak eman eta ikaslea laguntzeko beharrezkoa den informazioa helarazi.
- Ikaslearen egoera baloratu, aztertu eta jarraitu, beharrezkoak ikusten dituen neurriak proposatuz.
- Ikasgelako tutoreari jarduerak proposatu eta materialak nahiz baliabideak kudeatu.
- Kanpo-erakundeekin koordinatu.

Familia:

- Tutorearekin baliagarria izan daitekeen informazioa partekatu.
- Eskolarekin koordinatu ikaslea laguntzeko helburuarekin.
- Egoera kudeatzen eta gaia beren seme-alabarekin tratatzen ikasteko irekiak egon, orientatzailearen aholkua jasoz.

*2.2.2. Koordinazioa**Familia - Tutorea - Orientatzailea:*

- Hasiera batean tutoreak familiarekin bilera deituko du, orientatzailearekin batera, hasierako balorazioa egin ahal izateko.
- Hortik aurrera, familia tutorearekin harremanetan egonen da, beharrezkoa izanez gero orientatzailearen esku-hartzea emanik.
- Halaber, familiari eskolan ikaslearekin lantzen ari garenaren edo detektatu dugun edozein adierazle esanguratsuren berri emanen diegu, baita berarekin aurrera eramaten ari den esku-hartzeari buruz jakinarazi.

Tutorea - Orientatzailea - Espezialistak:

- Ikaslearekin lotura duten gainerako irakasleei egoeraren berri emanen zaie *.
- Hauen koordinazioari arreta eskaini beharko zaio esku-hartzearen neurriren bat hala eskatzen badu.


- * Ikasleak bestelako hezkuntza premia berezirik balu, edota PTaren laguntza jasoko balu (espezialisten artean sartzen duguna), honek ere rol garrantzitsua izanen luke, ikaslearen premia horiek modu zuzenagoan ezagutzen eta horiei erantzuna ematen baitie, beraz, dolu egoera batek premia horietan eragin zuzena izan dezakeenez gero, bere ekarpenak esanguratsuak izan daitezke.

Tutorea/Orientatzailea - Kanpo-erakundeak:

- Kanpo-erakundeek eskolei nahiz familiei laguntza eskaintzen ahal diete.
- Nafarroaren kasuan, Goizargi Elkarteak arduratzen da lan horretaz.

2.3. Eremuak

Esku-hartzea zenbait eremutan emanen da, maila indibidualean (ikaslea), talde-mailan (ikasgela) eta familia-mailan.



14.irudia. Esku-hartze eremuen laburpena

2.3.1. Ikaslea

- *Laguntza:* Dolu prozesuan zehar berarekin egon.
- *Esku-hartzea:* Ikasleak dolu prozesua konplikaziorik gabe burutu dezan. Aipatu beharra dago familiari ikaslearekin aurrera eramaten ari garen esku-hartzearen berri eman beharko diegula, baita edozein egoera dela eta hartu nahi diren neurrien berri, bereziki, dolua konplikatuko balitz.

2.3.2. Ikasgela

- *Egoera normalizatu*: Dolu prozesuan dagoen ikaslearen harrera prestatu.
- *Gaia tratatu*: Ikaslea eta familia ados egonez gero, gaia ikasgelan tratatu daiteke jarduera ezberdinen bitartez, dolu prozesuan dagoen ikasleen zalantzak, kezka... argituz, eta modu berean, gainerako ikasleenak ere bai.
- *Dolu kolektiboa (kasu berezietan)*: heriotza eskola-komunitateko kide batena izan bada (ikaslea, irakaslea, eskolako langilea...) esku-hartze kolektiboa beharko da.

2.3.3. Familia


- *Aholkularitza*: Orientatzaileak familiari dolu prozesua aurrera eramateko eta heriotzaren gaia tratatzeko jarraibideak emanen dizkio.
- *Jarraipena*: Ikaslearen bilakaeraren inguruan informazioa partekatuko dute.

2.4. Jarraibideak

Protokoloak lau urrats nagusi izanen ditu, edozein esku-hartze protokolo izan ditzakeenak (kasu honetan, dolu kasu bati aurre egiteko egokituak): prestaketa, balorazioa, esku-hartzea eta jarraipena. Hala ere, halako kasu batek bi norabide har ditzake, egoeraren arabera. Aipatu dugun moduan, ohikoena da ikasle batek dolu prozesu batean egotea gertuko pertsona bat galdu duelako. Hala ere, hain ohikoa ez izanagatik ere, gerta liteke eskolako kideren bat (ikaslea, irakaslea nahiz bestelako langile bat) hiltzea. Kasu honetan, esku-hartzea beste modu batean bideratu behar da, ikasle bakoitzak bere banakako dolu prozesua burutu arren, ez delako kasu isolatu bat, dolu kolektiboa baizik, ikuspegi orokorrago batetik esku-hartu behar dena. Hortaz, urrats bakoitzean bi egoera horiek ezberdindu dira, kasuaren arabera modu batean edo bestean esku-hartuz.

2.4.1. Prestaketa

Protokoloari dagokion prozedurarekin hasteko, behin detekzioa egin dela eta informazioa nola eta zein pertsonengandik jaso dugun argi dugula, lehenengo urratsa protokoloa martxan jartzean datza eta prozedura horren egoerari dagokio. Hortaz, atal honetan heriotzaren berria jasotzen denetik, hurrengo pausoak zein izanen diren azalduko da.



15.irudia. Prestaketa

2.4.1.1. Heriotzaren berria jaso.

Ikasle baten gertuko pertsona baten heriotza:

Eskolako irakasleren batek heriotzaren berri izatean, segituan, ikaslearen tutoreari informazio hori emanen dio. Heriotza ikaslea ikastetxean dagoen bitartean ematen bada, hurrengo urratsak jarraituko ditugu:

- Heriotzaren berri *telefonoz jasotzen badugu*:

Normalean, halako zerbait gertatzean familiako kideren bat haurraren bila joan ohi da ikastetxera, une horretan bertan edota egunaren amaieran. Hortaz, ikaslea jasotzera etorri baino lehen, erreferentziazko irakasle bat (orokorrean, tutorea) ikaslearen bila joanen da, gela lasai batera eramanen du eta norbait bere bila etorriko dela esanen dio, familia-aferra larri bat dela eta. Informazio hau beti pribatuan, inguru lasai batean emanen da (inoiz ez pasabideetan, ikasle gehiagoren aurrean...) eta ez da inoiz ikaslea bakarrik utziko, beti pertsona bat egon beharko da harekin.

- Heriotzaren berria ikastetxera hurbildu den *senide batek ekartzen badu*:

Senide horri gela lasai batean itxarotea eskatuko zaio, erreferentziazko irakasle bat (orokorrean, tutorea) ikaslearen bila doan bitartean. Behin elkarrekin daudela, bakarrik geratu nahi diren eskainiko die tutoreak, bere laguntza eskura dutela argi utziz.

Eskola-komunitateko kide baten heriotza:

- Ikasgelan bilduko gara, gaiaren inguruan hitz egiteko. Guztiek heriotzaren berri dakitela ziurtatu, gertatu dena laburki azalduz, gezurrik esan gabe, eufemismorik gabe, pertsona hori behin betiko galdu dugula ulertuz.
- Adierazpenari tokia utzi. Ikasleen kezkak, galderak... entzun eta erantzuten saiatuko gara, beren emozioak adierazten utziko diegu, etab.
- Hildakoa ikaskide bat izanez gero, ez dira bere gauzak kenduko. Une honetan, ikasle guztiekin bilduta gaudelarik, kidearen gauzekin zer egin erabakiko da (elkarrekin bildu eta gorde, ikasleari eskainitako txoko bat sortu...).

Hurrengo puntuetan, urrats honi lotutako ohiko galderak azaltzen dira:

- *Nola izan behar da gure jarrera irakasle gisa?*

Ikasgelan heriotza bat ematen denean, bereziki ikasle edo irakasle batena bada, tutorea atsekabetuta egon daiteke, eta agian, bera ere dolu prozesu batean dago. Beraz, ikasgelan gaia lantzean, irakaslea minduta azal daiteke, umeen aurrean mina erreprimitzea ez baita lagungarria, baina garrantzitsua da uneoro bere emozioak kudeatzen dituela adieraztea. Hau da, argi izan behar du une horretan ikasleentzat euskarri bat dela, bere laguntza behar dutela, hortaz, zaila izanagatik ere ezinbestekoa da egoera, bere mina eta bere emozioak kontrolpean izatea. Egoerak gainezka egiten badio eta ez bada prest sentitzen, beste irakasle bati laguntza eska diezaioke. Ez da deus gertatzen ikasleek helduek ere sufritzen dutela ikusten badute, hala ere, ezin gara egoera zail horretan bere laguntzaile gisa aurkeztu, ezin badugu ezta geure burua lagundu eta ezin badugu aurrera egin, beraz, ez badu bere burua gai ikusten, irakasleak eskubide osoa du lankide bati laguntza eskatzeko eta hark ikasleen laguntzaile izatea tutorea prest egon arte.

Horretaz gain, garrantzitsua da partekatzeke espazio bat sortzea, bertan ikusten eta hautematen dugunari arreta eskaini, baita berria ematen dugun bitartean ager daitezkeen hitzezko nahiz hitzezkoak ez diren adierazpenei ere (gorputz-adierazpenak, keinuak, eskuak, hanken mugimenduak...). Adierazpen emozionala sustatu, adierazitakoari harrera eginez, ulertuz eta epaitu gabe, emozio horri balioa emanez.

Gerta liteke haurrak elkarren artean epaitzea besteen adierazpen emozionalak ikustean, esaterako, beste ikasle batzuk negarrez ikustean. Halako kasuren bat ematen bada, tutoreak ez du iritzi hori areagotu behar, doluari balioa edo indarra kentzen ari baitio. Hala ere, komenigarria da ikasleen arteko emozioen adierazpenen epaiketei mugarik ez jartzea, baizik eta emozio adierazpenei balioa ematea. Ikasleen aurreko esperientzietan halako egoerak gainditzeko lagungarria izan zena aztertu eta arakatu daiteke, baita lagungarria izan ez zena ere. Egoera hau ikasleen iraganeko adierazi gabeko doluak arintzeko aukera paregabea izan daiteke, alderaketak ekidinez.

- Zeintzuk dira oinarrizko jarraibideak ikasgelan dolu prozesuan dagoen ikasle bat dugunean?

- *Ikasgelan normaltasunari eutsi, nolabaiteko malgutasunarekin.*

Garrantzitsua da haurra eskolara itzultzean, ikasgela modu berean funtzionatzen jarraitzea, mugak, arauak eta eskakizunak berdin jarraitzen dutelarik. Hala eta guztiz ere, normaltasunak haurrak biziki laguntzen dituen arren, irakasleak ezin du ahantzi ikaslearen benetako egoera. Ezinbestekoa da ikaslearen errendimendua, arreta eta kontzentrazioa bere minaren eta barneko ondorezaren ondorioz murriztuko direla kontuan izatea, hortaz, irakasleak modu anitzetan lagun dezake, hala nola, lanen entregatze epea luzatuz, azterketak beste une batean egitea edo ikasgela lasaiago batean burutzea baimenduz, etxerako lanak gogoan hartu dituen galdetuz edota epealdi batean zehar errefortzu akademiko gehigarria eskatu.

- *Familiarekin modu erregularrean harremanetan egon.*

Komeni da tutoreak ikaslearen familiarekin harremanetan egotea, familiaren eta ikaslearen inguruaren errealitatea eta familiako kideek bizi duten egoera ezagutzeko eta eskolan ikaslearekin lantzen ari garenaren edo detektatu dugun edozein adierazle esanguratsuren berri emateko. Bilera hauek ere, gurasoei laguntza edo aholkua eskaintzeko baliagarriak izan daitezke.

- *Haurrarekin harremanetan dauden irakasle guztiek ikasleari bere egoera ezagutzen dutela jakinaraztea.*

Batzuetan, irakasle askok distantziari eusten diote, zer esan ez dakitelako edota gaiaren inguruan hitz eginez ikaslea kaltetuko dutelako beldur direlako. Hala ere, ikaslearentzat lagungarria izan daiteke bere irakasleak gertu daudela jakitea eta, bere ondorezaz hitz egin nahi izanez gero, beren laguntza duela.

- *Data bereziak errespetatu eta kontuan izan.*

Badira zenbait data esanguratsu (Eguberriak, amaren/aitaren eguna, hildakoaren urtebetetzea, heriotzaren urteurrena...) bere izaera dela eta haurrak modu desatseginean bizi ditzakeenak. Beraz, egun horiei erreparatuko diegu, beharrezko neurriak hartuz. Egundorietan, haurra bereziki goibel edo adigalkor egon daiteke. Data horiek ezagutzen baditugu, adi egon gaitezke, umeari zer gertatzen zaion ulertu eta bere gogo-aldarte aldaketaren arrazoia ezagutu.

- *Nola prestatu ikaskideak galera sufritu duen ikasleari harrera egiteko?* (Cid, 2011)

Ikaskide batek galera bat sufritzean, tutoreak egin beharreko lehenengo gauza familiarekin harremanetan jartzea dela aipatu izan da, bilera batera deituz. Bilera horretan, haurrari gertatutakoa gainerako ikasleei azaltzeko baimena eskatuko diegu, hau ikaslearentzako onuragarria izanen dela adieraziz. Gauza bera egin beharko da hildakoa ikasle bat izanez gero, irakasleak haren familiarekin harremanetan jarri beharko dira, hauek onespina emateko.

Irakasleak txikiak direnean, funtsezkoa da jasoko duten mezua sinplea eta argia izatea. Irakasleak esandako guztia ulertu dutela ziurtatu beharko du, ezagutzen ez dituzten hitzak argituz. Ikasle helduagoekin, berria zailtasunik gabe ulertua izan delako ziurtasuna dugunean, ikasleek sentitzen dutena adierazteari eta beren kezkek partekatzeari lehentasuna emanen diogu. Horretarako beraientzat erosoagoa den modua bilatu beharko dugu, esaterako, errazago egiten ahal zaie mezu anonimoen bitartez bere sentimenduak edota dolu prozesuan dagoen lagunari esanen lioketena modu anonimoan idaztea. Horretaz gain, antzeko egoera bat bizi duten edo gertutik ezagutu duten galde diezaiekegu, eta taldea harkor badago, heriotzaren inguruan izan ditzaketen zalantzak eta kezkek lan daitezke.

Ikasle helduagoekin lantzeko beste ariketa interesgarria dolu prozesuan dagoen kidearen tokian jartzea eskatzea litzateke, egoera horretan baleude bere klasekideek zein jarrera izatea gustatuko litzatekeen pentsatuz. Ikasle batzuek

gaiaren inguruan ez hitz egitea nahiko luketela esan dezakete, eta beste batzuek sentitzen dutenaren inguruan modu irekian hitz egitea nahiko luketela. Kasu gehienetan, denek modu ezberdinean tratatuak izatea nahiko ez luketelako ideian bat egiten dute. Horretaz gain, gehienetan ez lukete arreta gune bilakatu nahi, baina ez lukete nahiko jendeak deus gertatu ez balitz bezala jokatzeari.

Ariketa honek ere ikasleek bere kidea laguntzeko eskura dituzten baliabideen inguruko gogoeta bultzatzen dezake (ikasgelan egindako lanak eta jasotako apunteak partekatu, kidea sobera ez estutu, marmarkarik ez egin, guztien artean mezu bat idatzi...).

Bestalde, krisialdi egoera hauetan, non irakasleak bere ikasleei norbaiten heriotzaren berria eman behar dien, komenigarria da hark zenbait aspekturen inguruko hausnarketa egitea, hala nola, ikasleek berria nola jaso duten eta honek nola eragin dien, baita ikasleek gai hau ikasgelan lantzeko duten gaitasuna aztertzea ere.

Hortaz, ezinbestekoa da irakasleak beharrezko laguntza eta aholkularitza izatea, zentroko orientazio taldearengana joz, beharrezkoa balitz. Krisialdi egoeretan irakasleek eman dezaketen laguntza garrantzitsua da, baina zeregin horretan dituzten mugak ezagutzea ere bai, beste profesional batzuei laguntza eskatuz.


2.4.1.2. Protokoloa martxan jarri.

Tutorea orientatzailearekin bilduko da protokoloa martxan jartzeko.

- Tutoreak familiari doluminak emanen dizkio eskola osoaren partez. Hiletan edota beilatokian zentroaren ordezkariak komenigarria litzateke.
- Irakasletza informatu. Tutoreak gainerako irakasleei egoeraren berri eman aurretik, duen informazioa zuzena dela ziurtatu beharko du. Zurrumurruek ekiditeko gertatu dena izan den modura azalduko da, giroa oker dezaten espekulaziorik egon ez daitezen. Gainera, orientatzaileak egoera kudeatzeko oinarritzko jarraibide batzuk emanen dizkie.

2.4.2. Balorazioa ³

Atal honetan protokoloa martxan jarri ondoren, esku-hartzea zehaztu ahal izateko ikasleari eginen zaion baloraziorako jarraibideak jasotzen dira. Horren barnean, informazio hori eskuratzeko zein iturrietara jo, zer galdetu, zer informazio bildu eta horrekin zer egin eta, esku-hartzeari begira, zer ondorio atera azalduko da.



16.irudia. Balorazioa

³ Oharra: Eskolako kide baten heriotza eman bada, balorazioa taldekoa izanen da, baina banakako balorazioa eginen da hala behar duten ikasleekin (hildakoarekiko harremanaren eta heriotzaren eragina biziki esanguratsua bada).

2.4.2.1. Familiarekin bildu

Tutoreak familiarekin bilera bat deituko du, orientatzailearen presentzia ere izanen duena. Kontuan izan behar dugu heriotza gertatu ostean, hurrengo egunak nahiko zailak izaten direla, hortaz, ikaslearen familiarekin bilera programatzeko malgutasuna beharko da, familia prest egon behar delako. Hala ere, aldi berean tarte hori ezin da gehiegi luzatu, komenigarria baita ikaslea eskolara itzuli baino lehen tutoreak bere egoera berria ezagutzea, lehen bai lehen esku-hartu eta ikasleari harrera egokia egin ahal izateko. Bilera horrek bi funtzio nagusi izanen ditu:

- Ikaslearen egoeraren inguruko *galderak* egin.

Honen helburu nagusia ikasleak eskolatik-kanpo (familiaren bitartez) eta eskolan (behaketaren bitartez) duen egoera ezagutzea litzateke, baita heriotzaren ondorioz izandako erreakzioak eta aldaketak ere, geroago, arrisku eta babes faktoreak definitu ahal izateko, esku-hartzera begira ondorioak ateraz.

Hurrengo inprimakian hasierako datu bilketa egiteko galdetegiaren eredu bat dago, familiari egin beharreko galdera lagungarriekin.⁴

Inprimakiaren lehenengo atalean (17.irudia) ikasleari buruzko eta bizi duen dolu egoerari buruzko informazioa bilduko da. Hemendik aurrera eskainiko diren inprimaki guztien lehenengo atala honen antzekoa izanen da, dokumentua berrikustean beharrezko datu guztiak eskura izan ahal izateko, horien artean, hildako pertsonaren senidetasuna ikaslearekiko eta heriotzaren kausa, datu esanguratsuak direnak ikaslearen dolu prozesuaren bilakaeran.

⁴ Inprimakiaren ereduak eranskinetan aurki daitezke (II.Eranskina).

FAMILIA-BILERAREN EREDUA

1. Ikaslearen izena:

2. Jaiotze-data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

3. Bilerako partaideak:

4. Bilera data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

5. Hildako pertsonaren izena eta senidetasuna ikaslearekiko:

6. Heriotzaren data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

7. Heriotzaren kausa

Markatu aukera bakarra.

- Eritasuna (3 hilabete baino gehiagokoa)
- Eritasuna (3 hilabete baino gutxiagokoa)
- Bat-bateko heriotza naturala
- Suizidioa
- Istripua edo erailketa
- Beste batzuk: _____

17.irudia. Datu bilketarako galdetegi eredua lehenengo atala: Ikaslearen eta egoeraren datuak.

Bigarren atalean familiari egin beharreko galderak proposatzen dira (18.irudia). Galderak haurrek heriotzaren aurrean ematen dituzten ohiko erantzunetan oinarriturik daude, honen helburua ikaslearen erreakzioen erregistro bat osatzea delarik. Azken finean, bilera honetan ikaslearen balorazioa egin ahal izateko eta horren arabera esku-hartzea zehazteko informazioa bildu behar dugu, hortaz, proposatzen diren galdera hauek baliagarriak izanen zaizkigu ikaslearen hasierako egoera ezagutzeko, baita esku-hartzerako orduan zein aspektutan zentratu behar garen jakiteko ere, era batean edo bestean bideratuz. Modu berean, dokumentu honi esker etorkizunean arazoak ekiditeko abiapuntu bat izanen dugu, arrisku eta babes faktoreak ezagutzeko bidean.

FAMILIARENTZAKO GALDERAK

(Proposamenak)

8. Nola eman zenioten heriotzaren berri?
Zein izan zen bere erantzuna?

9. Hileta errituetan parte hartu zuen?
Zein erreakzio izan zituen?

10. Erljio edo sinesmen zehatzen bat duzue?

11. Baimena ematen duzue gaia ikasgelari azaltzeko
eta guztiek batera lantzeko?

Markatu aukera bakarra.

- Bai
 Ez

12. Heriotzaren ostean, zure semeak/alabak haur txikiago
baten jarrerak al ditu? Hala bada, nolakoak? Zein izan
da zuen erantzuna jarrera hauen aurrean?

13. Zeinekin ematen du denbora gehiena?
Heriotza eta gero hori aldatu egin da?

14. Arreta bereganatzeko deiak egiten al ditu?
Zer egiten du?

15. Azkenaldian normalean baino amets-gaizto
gehiago izaten ari ditu?

16. Bere jolasean aldaketarik egon al da?

17. Sentitzen duena adierazten du? Zeren bitartez?
(Hitzez, negar egiten...)

18. Gertatutakoaren inguruko zalantzak ditu?
Galderak egiten ditu? Kasu horretan,
zer erantzuten diozue?

19. Heriotza baino lehen ez zituen jokabideak
aurkeztu ditu (harremaiari dagokien jokaera
aldaketa, ez-ohiko galderak egin...)

18.irudia. Datu bilketarako galdetegi eredu bigarren atala: Familiari egiteko galderak.

Amaitzeko, ondorioen atalean (19.irudia) bileraren inguruko ondorioak jasotzeko tokia izanen dugu. Erabat garrantzitsua da bilera honetan familiari gaia ikasgelan aurkezteko eta lantzeko baimena eskatzea, ondoren talde-mailako esku-hartu ahal izateko.

ONDORIOAK (Esku-hartzeari begira)

21. Familiak baimena ematen du gaia ikasgela osoari azaltzeko eta lantzeko:

Markatu aukera bakarra.

- Bai
 Ez

22. Gurasoek kanpo-laguntza eskatzen dute:

Markatu aukera bakarra.

- Bai
 Ez

23. Tutorearen/Orientatzailearen iritziz:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Gurasoen erantzunak egokiak dira haurrak bizi duen dolu prozesuarekiko.
 Gurasoen erantzunak ez dira egokiak dira haurrak bizi duen dolu prozesuarekiko.
 Gurasoek haurren dolu prozesuaren kudeaketari buruzko aholkuak behar dituzte.
 Gurasoek ez dute haurren dolu prozesuaren kudeaketari buruzko aholkurik behar.

24. Bestelako ondorioak:

19.irudia. Datu bilketarako galdetegi eredua hirugarren atala: Ondorioak.

- Hurrekin heriotza kudeatzeko jarraibideak *eskaini*.

Bileraren bigarren helburua familiari egoera tratatzeko nondik norakoak eskaintzea litzateke. Horretarako, jarraibideak emanen dizkiegu gurasoei, oinarri bat izan dezaten.

Dolu kasu baten aurrean gaudenean, lehenik eta behin, lau gako izan behar ditugu argi. Hurrengo taulan gako horiek eta horiei erantzuteko modua azaltzen zaigu, familiarekin parteka dezakegularik:

10.taula. Dolu prozesuan dagoen haurrekin kontuan izateko 4 gako (Cid, 2011).

<i>Nola bizi dute hurrek dolua?</i>	<i>Nola erantzun horri?</i>
<p>Haurrak oraindik beren egitura kognitiboa garatzen ari dira, beraz, galeraren inguruan ematen zaizkien azalpenak bere modura interpretatzen dituzte.</p>	<p>Adierazpenari lekua utzi, izan ditzaketen galdera eta kezka guztiak entzunez.</p>
<p>Emozioak beste era batera adierazten dituzte.</p>	<p>Jolasak, marrazkiak edota ipuinak dira beren adierazpenaren bidea. Hurrek emozioak helduengan ikustea behar dute, horiek eredutzat hartzeko, beraz, ez da komenigarria helduek beren emozioak erreprimitzea, umeari on egin beharrean kalte egiten baitiogu.</p>
<p>Atxikimendu figuren presentzia behar dute.</p>	<p>Maitasuna eta segurtasuna eskaini, bere beharrak aseturik egonen direla sentiaraziz.</p>
<p>Dolu prozesutik bazterturik senti daitezke.</p>	<p>Informazioa noiz eta nola ematen den, dolu prozesuan eragina dauka. Informazio okerra emateak zailtasun kognitiboak eta emozionalak eragin ditzake haurreengan.</p>

Oinarrizko klabe horiek ulertuta, familiekin biltzean hurrengo puntuak betetzea komenigarria litzateke (Cid, 2011; Iturbe, d.g.):

- Beren haurrak izan ditzakeen erreakzioak azpimarratuko zaizkie, ohikoak zeintzuk diren azalduz, eta dolua egoki burutzen ez dela adierazten dizkiguten sintomak zeintzuk diren aipatuz.
- Haurren jolasak edo interesak hildakoen, heriotzaren eta hiletan inguruan izan daitezkeela azalduko zaie, gertatutakoa hobeki ulertzeko egiten dutelarik.
- Haurrarekin ongi komunikatzeko eta esku-hartzeko beharrezko jarraibideak eman: hizkuntza egokia erabili, gezurrik ez esan, beren galdera guztiak erantzun, hitz egin nahi ez badute hori errespetatu, soilik uler dezakeena esan, haur txikiekin “oso” eta “asko” hitzen erabilpen handia egin (aitona oso, oso, oso gaixo zegoen...), zerbait ez dakigunean hori onartu, etab.
- Gozotasun eta maitasun jarrerak gomendatu.
- Eguneroko errutinei eusteko garrantzia azpimarratu.
- Haurrak hildakoari buruz oroitzapen positiboa izateko ahaleginak egitea gomendatu.
- Errudun sentimenduak egonez gero, hauek detektatzea komeni dela azaldu eta hauek nola kanporatu daitezkeen azaldu.
- Adierazpen desegokiak ekiditeko eskatuko zaie: “bidai batean dago” (umea pertsona hori itzultzen ez delako haserretu daiteke), “orain lo dago” (umeak amets gaiztoak izan ditzake, baita lo egiteko beldurra ere), “hildakoa beti zurekin egonen da” (haurrei haiek ikusi ezin duten pertsona batek entzuten, ikusten eta sentitzen diela pentsatzeak deskontrola eta beldurra eragiten die)...
- Haurrari gorputzaren gelditze funtzionala zer den azaltzea gomendatu.
- Familiako koherentzia espiritualarekin jarraitzea eskatuko zaie, dolua errazago egiten lagundu diezaiokeen beste erlijio edo errito batzuk bultzatu gabe.

Ikaslearen anaia edo arreba hil bada, hurrengoa egingen da (Cid, 2011; Iturbe, d.g.):

- Bizi den haurren beharrei erantzuteko garrantzia azpimarratuko zaie.
- Bizirik dauden anai-arrebak hildakoarekin konparatzeak dituen ondorio txarrak azpimarratu, hildakoa idealizatzeko erraztasuna azpimarratuz eta besteak gutxietsiz.
- Hildakoaren izaera bereganatzeak eta hildakoak zituen jarrerren imitazioak izan ditzakeen eragin kaltegarriak azpimarratu.
- Ez da komenigarria hildakoaren gauzekin edo jostailuarekin ibiltzea debekatzea.
- Bizirik gelditu den haurra gehiegi babestearen ondorio kaltegarriak azpimarratu.
- Hildakoarenganako isiltasuna ez dela komenigarria adierazi, horrelako jarrerekin emozioak erreprimitzen baitira.

Ikaslearen gurasoak edo erreferentziazko helduren bat hiltzean hurrengoa egingen da (Cid, 2011; Iturbe, d.g.):

- Xantaia emozionala ekidinen dela azaldu: “zure aita/ama bizi zenean, hobeki portatzen zinen, zure aita/ama begira dago”...
- Kontuz ibili haurrak horrelako esaldiak erabiltzen baditu: “Zuk ez nauzu lehen bezala maite. Aitak/amak benetan maite ninduen”... Azken finean, xantaia emozionala da ere bai.

2.4.2.2. *Ikaslearekin bildu*

Ikaslearen balorazioa egin ahal izateko, familiak emandako informazioaz gain, tutoreak ikaslearekin banaka hitz egin beharko du (bere egoera zuzenean ezagutu ahal izateko) eta heriotzaren ostean eskolan nola moldatzen eta jokatzen duen behatu beharko du.

- Ikaslearekin indibidualki hitz egiteko nahia modu ahalik eta naturalenean adierazi beharko da, egunerokoaren barne (egoera deserosoak eta desatseginak ekiditeko).

- Tutore gisa behar gaituenerako bertan gaudela argi utzi beharko zaio ikasleari, segurtasuna eta konfiantza transmitituz.
- Familiari bezala, ikasleari gaia ikasgela osoan zehar azaltzeko eta lantzeko prest dagoen galdetuko diogu. Onartzen ez badu ez zaio behartuko, malguak izan beharko gara eta bere erabakia errespetatu.
- Kontuan izan behar dugu ikaslea eskolara itzultzean bere lehentasunak eta beharrak aztertu, egindako jarduerak azaldu eta eginbeharretan nolabaiteko malgutasuna onartuko da (gehiegizko babestean erori gabe).

Behin hasierako balorazio bat egiteko informazio nahikoa izan, hurrengo inprimakia bete daiteke ⁵.

Lehenengo atalean (20.irudia), inprimaki guztietan bezala, ikaslearen datuak eta egoeraren informazio orokorra bilduko da, inprimakia ikusten duen edonork balorazioaren testuingurua ulertu ahal izateko.

IKASLEAREN HASIERAKO BALORAZIOA:
Heriotza baten ondorengo dolu prozesuaren balorazioa.

<p>1. Ikaslearen izena:</p> <p>_____</p>	<p>5. Hildako pertsonaren izena eta senidetasuna/lotura ikaslearekiko:</p> <p>_____</p>
<p>2. Jaiotze-data:</p> <p>_____</p> <p><i>Adibidea: 2012ko abenduaren 15a</i></p>	<p>6. Heriotzaren data:</p> <p>_____</p> <p><i>Adibidea: 2012ko abenduaren 15a</i></p>
<p>3. Behatzailea(k):</p> <p>_____</p>	<p>7. Heriotzaren kausa: <i>Markatu aukera bakarra.</i></p> <p><input type="radio"/> Eritasuna (3 hilabete baino gehiagokoa)</p> <p><input type="radio"/> Eritasuna (3 hilabete baino gutxiagokoa)</p> <p><input type="radio"/> Bat-bateko heriotza naturala</p> <p><input type="radio"/> Suizidioa</p> <p><input type="radio"/> Istripua edo erailketa</p> <p><input type="radio"/> Beste batzuk: _____</p>
<p>4. Behaketa data:</p> <p>_____</p> <p><i>Adibidea: 2012ko abenduaren 15a</i></p>	

20.irudia. Ikaslearen hasierako baloraziorako inprimakiaren lehenengo atala:
Ikaslearen eta egoeraren datuak.

⁵ Inprimakiaren eredia eranskinetan aurki daiteke (II.Eranskina).

IKASLEAREN ERREAKZIOAK

Marka itzazu ikasleak heriotzaren ondorioz aurkeztu dituen erantzunak:

9. HAURREN ERREAKZIO OHIKOAK

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Gertatutakoa ukatzen du.
- Maite dituen beste pertsonen heriotzaren beldur da.
- Errudun sentitzen da.
- Hildakoaren idealizazioa.
- Tristura.
- Somatizazioak (ondoez fisikoa).
- Hildakoaren bilaketa.
- Suminkortasuna eta umore txarra
- Hildakoak utzitako hutsunea betetzen saiatzen da, bere rola hartuz.
- Beste batzuk: _____

10. HARREMANEI DAGOKIENEZ

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Irakasleei nahiz kideei laguntza eskatzen die.
- Irakasleekiko jarrera desegokiak adierazten ditu.
- Irakaslearekiko desafiozko jarrerak azaltzen ditu.
- Gertatutakoari buruzko galderak egiten ditu.
- Harremanak okertu dira.
- Harremanak hobetu dira.
- Beste batzuk: _____

11. IKASGELAN:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Lan-errendimendua jaitsi du.
- Ez da jolasten.
- Kideengandik urruntzen saiatzen da.
- Haur txikiagoa bailitzan jokutzen du.
- Bere pentsamenduetan murgilduta dagoela dirudi (ez du hitz egiten, ez dago erne...).
- Negar egiten du.
- Urduritasuna eta ezinegona aurkezten du.
- Emozio-xantaia erabiltzen du.
- Erreakzio bortitzak ditu.
- Ez du hamaiketakoa jaten.
- Beste batzuk: _____

21.irudia. Ikaslearen hasierako baloraziorako inprimakiaren bigarren atala: Ikaslearen erreakzioen erregistroa.

Aurreko irudian bigarren atala ageri zaigu (21.irudia). Bertan ikaslearen erreakzioak bilduko dira, horien erregistro bat izatearren eta prozesua aurrera joan ahala edozein unetan horiek kontsultatu ahal izateko, informazioa esanguratsua baita ondoren ikaslearen jarraipena egiteko, erantzun horien bilakaera ikusteko hasieran zituen erreakzioak areagotu edo gutxitu diren ikusiz.

Hirugarren atalean (22.irudia) ikaslearengan eta bere inguruarengan antzeman ditugun arrisku-faktoreak bilduko ditugu, dolua zailtzeko dauden aukerak baloratzeko baita horiek gutxitzeko neurriak hartzeko.

ARRISKU-FAKTOREEN BALORAZIOA

Atal honetan, ikasle bat dolu prozesuan aurkitzen denean, prozesu hori korapilatzen ahal duten arrisku-faktoreak bilduko dira.

12. Marka itzazu betetzen diren ezaugarriak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Inguru ezegonkorrean bizi da, aldizkatuz doan arduradun ereduarekin.
- Laguntza eskasa jasotzen du bere ingurutik.
- Hildakoarekiko dependentsia, eta bizirauten duten senideekiko erreakzio ezegokiak.
- Ikasleari ezarritako disziplinan sendotasun falta.
- Ama eredu galduta duen neska* bat da (10-11 urte baino gutxiagokoa).
- Anaia edo arreba galduta du.
- Burutu gabeko doluak ditu.
- Autoestimua eskasa aurkezten du.
- Heriotza traumatikoa (bat-batekoa, suizidioa, erailketa edo istripu baten ondoriozkoa, desagertzea, gorpuaren falta...).
- Hildakoa gurasoetako bat izanez gero, bizirik dirauen gurasoak bikote berria izatea.
- Beste batzuk: _____

13. Ikasleak beste behar psikopedagogikoren bat du? Zein?

22.irudia. Ikaslearen hasierako baloraziorako inprimakiaren hirugarren atala:
Arrisku-faktoreak.

Azkenik, ikaslea behatuz eta familiarengan eskuratutako informazioari esker antzeman ditugun babes-faktoreak bilduko ditugu (23.irudia), eta aurrekoan bezala, horiek ezagutzea eta aprobetxatzea baliagarria izanen zaigu, hauek doluaren garapen egokia bermatzearren.

BABES-FAKTOREEN BALORAZIOA

Atal honetan, ikasle bat dolu prozesuan aurkitzen denean, prozesu hori behar den moduan burutzen laguntzen ahal duten babes-faktoreak bilduko dira.

14. Marka itzazu betetzen diren ezaugarriak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Ikaslea baikortasunerako joera du.
- Laguntza afektibo solidoak ditu.
- Familia-estruktura egokiak ditu.
- Beste batzuk: _____


Bestelako oharra:

23.irudia. Ikaslearen hasierako baloraziorako inprimakiaren laugarren atala:

Babes-faktoreak.

2.4.3. Esku-hartzea

Behin balorazioa eginda eta ikaslearen beharrak ezagututa, neurriak har daitezke. Esku-hartzea hiru eremutan egingen da (banakako eremuan, ikasgelako eremuan, familia-eremuan):



24.irudia. Esku-hartzea

2.4.3.1. Banakako esku-hartzea (Ikaslea)

Hona hemen esku-hartzea zehazteko inprimakia ⁶. Hartuko diren neurriak ikaslearen inguruan egin den balorazioan oinarrituko da, bere adina, izaera eta gaitasunak kontuan izanik. Beraz, neurri guztiak justifikatuak egon beharko dira.

Lehenik, ikaslearen datuak eta egoerari buruzko informazioa biltzeko atala dugu (25.irudia), esku-hartzearen testuingurua baitira.

⁶ Inprimakiaren eredu eranskinetan aurki daitezke (II.Eranskina).

ESKU-HARTZEA ZEHAZTEKO INPRIMAKIA

1. Ikaslearen izena:

2. Jaiotze-data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

3. Ikaslearen tutorea:

4. Esku-hartzea zehazten duen arduraduna:

5. Data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

Esku-hartzearen arrazoa: Ikaslearen gertuko pertsona baten heriotza.

6. Hildako pertsonaren izena eta senidetasuna/lotura ikaslearekiko:

7. Heriotzaren data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

25.irudia. Esku-hartzea zehazteko inprimakiaren lehenengo atala: Ikaslearen eta egoeraren datuak.

Doluari aurre egiteko zuzenduta dagoen esku-hartzea bada ere, ezin ditugu ikasleak lehendik zituen hezkuntza premiak alde batera utzi. Beraz, behar horiei erreparatuko diegu esku-hartzea zehazterakoan, pedagogikoak nahiz psikologikoak izanik (26.irudia). Ondoren, eremu bakoitzean hartuko diren neurriak zehaztuko dira, baita horietaz arduratuko diren profesionalak ere (27.irudia).

ESKU-HARTZE PSIKOPEDAGOGIKOA

8. Ikasleak heriotza baino lehen aurkezten zituen behar psikopedagogikoak:

9. Ikasleak aurkezten dituen behar psikologikoak, heriotzaren ondoren izandako erreakzioei lotuta:

10. Ikasleak aurkezten dituen hezkuntza beharrak, heriotzaren ondoren izandako erreakzioei lotuta:

26.irudia. Esku-hartzea zehazteko inprimakiaren bigarren atala: Esku-hartzearen zehaztapena (1).

Ikasleak une honetan dituen behar guztiak kontuan izanda, hurrengo neurriak aplikatuko dira eremu bakoitzean:

11. - Ikaslearengan:

12. - Ikasgelan:

13. - Familiarengan:

Markatu aukera bakarra.

Kanpo-erakunde baten laguntza jasotzera bideratuko zaie.

Beste batzuk: _____

14. Esku-hartzearen eraginkortasuna baloratzeko eta ikaslearen bilakaera ebaluatzeko data:

_____ *Adibidea: 2012ko abenduaren 15a*

15. BESTELAKO OHARRAK:

27.irudia. Esku-hartzea zehazteko inprimakiaren bigarren atala: Esku-hartzearen zehaztapena (2).

Une honetan esku-hartzearen eraginkortasuna eta ikaslearen bilakaera ebaluatzeko data zehaztuko da, ikaslearen jarraipenari begira.

Behin esku-hartzea zehaztuta, familiari ikaslearekin eskolan aurrera eramanen diren neurrien berri emanen diogu. Edozein adierazle esanguratsu ikustean edo esku-hartze neurrietan aldaketa adierazgarriak egitean, familia jakinaraziko dugu. Modu honetan ere, familiak eskolan egindako esku-hartzearen jarraipena egin lezake, prozesuaren eraginkortasuna areagotuz. Halaber, funtsezkoa da familiarekin eskolan jarraitu behar diren jarraibideei buruz hitz egitea, baita umeak errefortzua behar duen edo bere bilakaeran geldialdia nabari den komunikatu ere, horren araberako neurriak hartzeko.

Hona hemen oinarrizko esku-hartze proposamen batzuk:

- *Nolabaiteko malgutasuna eskaini.*

Doluak eskola-errendimenduaren gutxitzea ekar dezakeenez, eragiten dituen arreta eta memoria zailtasunak direla eta, ikasleak lanen, zereginen eta azterketen gehiegizko presioa sentitzen badu, dolu prozesua konplika daiteke. Hortaz, irakasleak zenbait neurri har ditzake presio hori murrizteko, ikaslea bere mesederako egokieraz baliatzen ez dela ziurtatuz, jakina.

- *Eskola-eremuan ikasleari errefortzu gehigarria eskaini.*

Baliteke umeak, egunean zehar, gainerako senideen egoeraren inguruan kezkatu edo larritu sentitzea, eta horretaz gain, arreta edo jokabide arazoak azaltzea, ikaskideekin nahiz irakasleekin liskarrak izanik.

Horri erantzuteko neurri bat izan daiteke ikaslearentzako laguntza-pertsona bat finkatzea, egoera horietan berarentzat arnasbide izan daitekeen espazio bat edukitzeko, lasaitasuna ematen dion pertsona horren laguntzarekin. Beharrezkoa balitz, erabat lagungarria izan daiteke pertsona horren bisita erregularrak jasotzea, segimendu erregularrako bat egin ahal izateko, krisialdi egoera puntualak egotera itxaron ordez.

- *Telefono deiak edota ikasgelatik ateratzea baimendu.*

Dolu prozesuan dauden haurrak bere gertuko pertsonak kalte ditzakeen zerbait gertatzeko beldurra izan ohi duten beldur hori, batzuetan neurritz gaineko estutasuna eragin diezaieke. Kasu hauetan, eskolako zuzendaritzak senideen deiak jasotzeko edo egiteko baimena ematea baliagarria izan daiteke, hauek ongi daudela ziurtatzeko eta bere ezinegona murrizteko asmoz.

Horretaz gain, garrantzitsua da erne egotea, ikaslea bat-bateko estutasun egoerak bizi ditzakeelako, eta une horietan ikasgelatik ateratzeko baimena ematea lagungarria izan daiteke, komunera joateko nahiz laguntza-pertsona horrengana jotzeko, benetan behar hori badu.

- *Egun bereziei erreparatu*

Eguberriak, amaren/aitaren eguna, hildakoaren urtebetetzea, heriotzaren urteurrena, ikaslearen urtebetetzea... Berriki galera bat sufritu badugu, ohikoa da egun horietan goibelago egotea. Esku-hartze neurri gisa, egun horiek ospatzeko programatutako eskola-jarduerak ez burutzea baimen diezaikegu ikasleari, berak hala nahi badu edo zailtasun gehiegirekin biziko dituela aurreikusten badugu. Hala ere, umeak laguntza egokia jasotzen badu, eta berarentzat positiboa eta aberasgarria izan daitekeela baloratuz gero, jarduera hauek aurrera eramatea baliagarria izan daiteke, ikuspegi egokia emanaz.

Ikasleak desgaitasun intelektuala badu, esku-hartzerako orduan beste aspektu batzuk hartu beharko dira kontuan:

Gainerako ikasleek bezala, esku-hartzea beharko du. Ezin ditugu ikasle hauek gutxietsi beren ezagutza eta ulermen maila txikia dela argudiatuz. Izan ere, beraiek galera antzemateaz gain, sufrimendua eta horri lotutako arazoak jasaten dituzte, hala nola, tristura, ondoeza, depresioa nahiz emozio eta portaera arazoak. Ez zaie gezurra esan behar, ezta eritasun edo heriotza egoerak ezkutatu ere, baizik eta horretarako prestatu eta lagundu, bere aukeren arabera (Díaz, 2016).

Beraz, desgaitasun intelektualak duten ikasleekin esku-hartzean hurrengo dimentsioak hartuko dira kontuan:

- *Ongizate emozionala:*
 - Egia kontatuko diegu.
 - Konfiantzazko inguru bat sortzen saiatuko gara, beren emozioak adierazteko seguru senti daitezten.

- *Ongizate materiala:*
 - Bizitzeko toki atsegin bat izanen dutela ziurtatuko da (zaintzailez edo bizilekuz aldatu behar badira).
 - Behar izanez gero, babestuko dituen pertsona bat izanen dutela ziurtatu.
 - Bere errutinekin ordura arte bezala jarraitu, “normaltasunera” (beraiztatzen ohikoa zen errealitateara) itzultzen saiatuz, oinarrizko beharrak aseturik izanen dituztelarik.
 - Prozesuaren parte egin, hildako pertsonari lotutako zein oroitzapen material gorde nahi dituen erabakitzen utziz.

- *Ongizate fisikoa:*
 - Aurkezten ahal dituzten sintoma fisikoei arreta jarri.
 - Eguneroko lo egiteko, jateko, higienarako eta aisialdirako ohiturak eta egonkortasuna ematen dieten errutinak zaindu.
 - Tratamendu farmakologikoren bat badu, garrantzitsua da hori jarrai dezan.

- *Garapen pertsonala:*
 - Heriotzaren kontzeptua desgaitasuna duten pertsonen errealitatean barneratu behar da.
 - Egoera berrira egokitzen lagundu behar zaie.

- *Inklusioa:*
 - Gainerako haurrak bezala tratatuko ditugu, beren iritzia galdetuz eta erabakiak errespetatuz.
 - Errituetan parte-hartzera gonbidatuko eta lagunduko zaie.

- *Eskubideak:*
 - Egia ezagutzeko eta besteek bezala tratatuak izateko eskubidea dute.
 - Beren emozioak, galderak eta kezkek edozein modutan adierazteko edo ez adierazteko eskubidea dute.
 - Heriotza ulertzeko eskubidea dute.
 - Arreta jasotzeko eskubidea dute.

- *Pertsonarteko harremanak:*
 - Bere familia eta lagunekin egoteko beharra dute.
 - Maitasuna jasotzeko beharra dute.

- *Autodeterminazioa:*
 - Beren autonomia eta autokontzeptua sustatu behar da.
 - Erabakiak hartzeko prozesuan lagundu behar zaie.

2.4.3.2. Taldeko esku-hartzea (Ikasgela)

Esparru honetan aurretik aipatutako bi egoerak desberdinduko ditugu, izan ere, esku-hartzea erabat ezberdina izanen da ikasle baten gertuko pertsona baten heriotza bada edo eskolako kide baten heriotza bada.

Ikasle baten gertuko pertsona baten heriotza:

Familiak eragozpenik jartzen ez badu, ikastaldeari berria helaraziko diogu. Galera sufritu duen ikaslea presente ez dagoen epea baliatuko dugu hori egiteko, taldea ikasle horren itzulerarako prestatzeko. Horretarako, ahalik eta lasterren, naturaltasunez geratutakoa azalduko diegu. Informazioa adinari egokituta egon beharko da, baina beti egiazkoa. Konfiantzazko giro irekia eta segurua sortzen ahaleginduko gara, ikasleek sentitzeko askatasuna izan dezaten, emozio keinu naturalak baimenduz (negarra, harridura, amorrua, beldurra...), sentimendu horiek ohikoak eta osasungarriak direla azpimarratuz.

Ondoren, familia eta ikaslea ados egonez gero, gai hau ikasgelan lan daiteke, jarduera ezberdinak proposatuz. Jarduerak aukeratzeko eta garatzeko orduan, zenbait alderdi izan beharko ditugu kontuan:

- Ikasleen adinari dagozkien gaitasun ebolutiboak izanen dira kontuan.
- Jarduerak burutzerakoan giro egokia sortu beharko da, lasaia eta segurua, bakoitzak sentitzen duena eta behar duena esateko nahiz galdetzeko aukera izanen duelarik, beti ere ikasle bakoitzaren eta talde osoaren berezitasunak errespetatuz.
- Ikasle guztiek bere tokia izan beharko dute jardueretan, hau da, bakoitza garrantzitsu sentitzeko egoera esanguratsuak sortuko dira, elkarri entzuten, zaintzen eta ulertzen. Egoera hauen bitartez hurrek eboluzionatu eta ikasi egingo dute heriotzari, beldurrari eta atsekabeari lotutako uneetan.
- Jardueren helburua heriotzaren eta galeraren gaia tratatzeko helburua izanen dute. Honekin batera, erabat lagungarria da jarduerak taldeka egitea, ikasleei beren sentimenduak modu anitzetan adierazteko egoerak bideratuz (hitzez, idatziz, marraztuz...), baita jardueren amaieran hausnarketarako tartetxo bat eskaintzea ere.

Eskola-komunitateko kide baten heriotza:

Ikasle, irakasle nahiz eskolako bestelako langile bat hilko balitz, esku-hartzea erabat aldatuko litzateke, ez baita banakakoa izanen, kolektiboa baizik, eta kasu honetan ezinbestekoa da ikasgelan lantzea, egoerak ikasle guztiei eragiten dielako.

Hona hemen dolu kolektiboa lantzeko proposamen batzuk:

- *Ikasgelan elkarrizketak izan*, adierazpenerako tokia utziz, hildakoaren oroitzapenak partekatuz, heriotzaren inguruko zalantzak eta kezak argituz... Une hauek erabat baliagarriak izan daitezke haurrek galera horren aurrean duten jarrera eta erantzunak behatzeko, beren bilakaera ebaluatzeko asmoz.
- *Marrazki eta argazkien liburuxka*. Hildakoari omenaldia egiteko eta hura oroitzeko tresna izan daiteke. Liburuxka horretan ikasleek hildakoarentzako nahiz beren buruarentzako mezuak utz ditzakete. Polita izan daiteke, ondoren, liburuxka hori hildakoaren familiari oparitzea.
- *Hildakoaren txokoa*. Heriotza berriki eman denean, baliabide puntual gisa interesgarria izan daiteke hildakoari ikasgelan txoko bat eskaintzea, pertsona horren “desagerpena” ikasgelatik mailakatua izan dadin, eta ez bat-batekoa. Txoko hau modu anitzez egin daiteke, ikasleen artean erabakiko da. Bertan, hildakoaren argazkia, kandelaren bat, berarekin lotzen ditugun objektuak... jar ditzakegu.
- *Postontzia*. Ikasgelan postontzi bat jar daiteke ikasleek bertan nahi dituzten mezuak sar ditzaten. Batzuetan, besteen aurrean hitz egitea edo gure sentimenduak besteei kontatzea kostatzen zaigu, beraz, baliabide hau ikasle horientzako alternatiba izan daiteke, barruan dutena kanporatzeko, baita hildakoari eskutitz edo mezuren bat idaztekotan, bertan sartu ahal izateko.

- *Agur esateko mezuak, bertsoak, olerkiak.* Aurreko proposamenaren antzera, ikasleek hildakoari agur esateko mezuak idazten ahal dizkiote. Bertan egonen balitz esanen lioketeena jasoz, eskerrak emanez, barkamena eskatuz, oroitzapen politak bilduz... Jarduera hau bereziki gomendagarria izan daiteke heriotza bat-batekoa izan bada, agur esateko aukerarik izan gabe. Ondoren, mezu horiekin zer egin erabakiko dugu (bildu, familiari eman, erre, uretara bota, zerura bidali, ikastolan lurperatu...).
- *Hildakoak maite zituen jarduerak egitea.* Gainera, hildakoak gustuko zuen toki batera joan gaitezke, ikastolatik kanpo, eta bertan omenaldi moduko bat egin dezakegu, bere omenez eta bera gogoratzeko zerbait utzi...
- Data bereziak errespetatu. Hildakoaren urtebetetzean edota heriotzaren urteurrenean, esaterako, zerbait berezia prestatzen ahal da. Hala nola, bertso bat bota, idatzi bat prestatu, argazkiak paratu, bideo bat jarri, familia gonbidatu... hildakoa gogoratzeko edozein ekintza.
- *Galera lantzeko ipuinak edo filmak erabili.* Azpian, horiek erabiltzeko jarraibideak aurkezten dira.

Galera eta heriotza lantzeko proposamen bat: ipuinak eta filmak.

Ipuinak, eta ondorioz, filmak ere, ikasleen eta irakaslearen arteko elkarrekintzak eragiteko tresna paregabeak dira, ikasleek istorioan barneratzean pertsonaiekin eta haiek sentitzen nahiz bizitzen dutenarekin identifikaturik sentitzen dira, eta modu honetan, kontzeptu abstraktuak modu sinpleago, argiago eta zehatzago batean lantzen ahal direlako, ikaskuntza askoz ere esanguratsuago bilakatuz. Dena dela, baliabide hauek erabiltzean, hurrengo jarraibideak izan beharko ditugu kontuan (Pérez, Pérez, Sánchez, 2013):

- Ipuinaren edo filmaren aurkezpena (portada eta izenburua aztertu, zer iradokitzen dien...)
- Filma ikusi edo ipuina irakurri. Ipuinak ilustrazioak baditu askoz ere esanguratsuagoa izanen da, kasu horretan, garrantzitsua da marrazkiak aztertzea.
- Pertsonaien sentimenduak identifikatu eta aztertu. Istorioarekin bat badator, protagonistak galera gainditzeko jarraitutako prozesua eta erabilitako estrategiak aztertu.
- Filma ikustean edo ipuina irakurtzean zer sentitu duten bildu (hitzez, idatziz, marraztuz...) eta, nahi izanez gero, partekatu.
- Ikasleek heriotzarekin izandako esperientziak plazara ditzakete (gertuko pertsonena, ezagunena, animaliena...).
- Bizitzan ditugun beste galera moten inguruan hitz egin, sinpleenetatik (hortzen erorketa, jostailuen galera...) pisutsuenetara (bizilekuaren edo eskolaren aldaketa, gurasoen bereizketa...). Kasu honetan, beraiek galera horiek gainditzeko egin zutenari buruz hitz egin daiteke.
- Amaierako hausnarketa, lanketa eta ikasketa burutu: pertsonaien lekuan egonen balira zen eginen lukete, galera bat sufritu duen norbait nola lagun dezakegun, etab.

2.4.3.2. Familiako esku-hartzea


Familiak behar izanez gero, kanpo-erakunde bati bideratuko zaie (Nafarroaren kasuan, *Goizargi Elkarte*a, familiei errefortzua eta laguntza eskaintzen diena). Ondoko estekaren bitartez elkartearen web gunera jo daiteke: <http://www.asociaciongoizargi.org/>



28.irudia. Goizargi elkartearen logoa.

Hala ere, aipatu beharra dago Euskal Herrian dola prozesuan dauden pertsonak laguntzen dituzten bestelako elkarteak ere aurki ditzakegula, horien artean, Izarra fundazioa, Donostiako *Bidegin* elkartea eta Bilboko *Gurenduz* Psikologia Integralerako Zentroa, beste batzuen artean. Bestetik, badago *Biziraun* deituriko beste elkarte bat, bereziki suzidioaren ondorioz hildako senideak edo lagunak dituzten pertsoneri zuzenduta.

2.4.4. Jarraipena



29.irudia. Jarraipena

- Tutorea familiarekin harremanetan egonen da, elkarri edozein informazio esanguratsu partekatuz.
- Esku-hartzea abian jartzen den unetik, horren eraginkortasunaren eta ikaslearen bilakaeraren balorazio bat egingen da zehazten den denbora igarota (asteak, hilabeteak... kasuaren arabera).
- Esku-hartzea ikaslea bere bizitzarekin ohiko modura jarraitzeko gaitasuna eskuratzean bukatutzat emanen da. Honek ez du esan nahi ikasleak galdu zuen pertsona hori faltan botako ez duenik, baina bai gertatutakoak bere eguneroko bizitza oztopatzen ez duela, eta aurrera egiteko jarrera aurkezten duela.

Hona hemen ikaslearen bilakaeraren baloraziorako inprimakia⁷:

Aurreko inprimakietan bezala, lehenengo atalean ikaslearen eta bere egoeraren datuak bilduko dira (30.irudia).

IKASLEAREN BILAKAERA EBALUATZEKO INPRIMAKIA

1. Ikaslearen izena:

2. Jaiotze-data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

3. Behatzailea(k):

4. Behaketaren data:

Adibidea: 2012ko abenduaren 15a

30.irudia. Ikaslearen bilakaera ebaluatzeko inprimakiaren lehenengo atala: Ikaslearen eta egoeraren datuak.

⁷ Inprimakiaren eredia eranskinetan aurki daiteke (II.Eranskina).

Bigarren atala esku-hartzearen bilakaeraren ebaluazioari dagokio (31.irudia). Ebaluazio hori, gorabeherarik ez balego, esku-hartzea zehazterakoan horren jarraipena egiteko erabaki zen datan eginen da. Tarte hori ikaslearen egoeraren eta egindako balorazioaren arabera luzeagoa edo motzagoa izanen da, ikaslearen esku-hartzea bukatutzat eman daitekeela aurreikusten den datan (3 hilabete, 6 hilabete, 8 hilabete...). Data heltzean ikaslearen bilakaera egokia izan denetz baloratuko da, aurretik aipatutako irizpideak kontuan izanik:

- Ikaslea bere bizitzarekin ohiko modura jarraitzeko gaitasuna eskuratu du.
- Gertatutakoak ez du bere eguneroko bizitza oztopatzen.
- Aurrera egiteko jarrera aurkezten du.

Bilakaera egokia izanez gero, esku-hartzea bukatutzat eman daitekeen baloratuko da, eta baiezkoa bada inprimakia bertan amaituko litzateke. Ordea, bilakaera kezkarria edo desegokia balitz, hurrengo atalera igaroko gara, egoera horri nola erantzun erabakitzeko.

Esku-hartzearen arrazoia: Heriotza baten osteko dolu prozesua.

5. Ikaslearen bilakaerari dagokionez...

Markatu aukera bakarra.

- Ikaslea bere bizitzarekin ohiko modura jarraitzeko gaitasuna eskuratu du.
- Ikaslearen bilakaera kezkarria da.
- Beste batzuk: _____

6. Ondorioz, esku-hartzeari dagokionez...

Markatu aukera bakarra.

- Behar bezalakoa izan da eta esku-hartzea bukatutzat ematen da.
- Ez ditu bere helburuak bete (hala bada, segi hurrengo atalera).

31.irudia. Ikaslearen bilakaera ebaluatzeko inprimakiaren bigarren atala: Ikaslearen bilakaeraren eta esku-hartzearen eraginkortasunaren balorazioa.

Hirugarren atala ikaslearen bilakaera desegokia izan denean bete beharko da soilik, esku-hartze alternatibak eta neurri berriak bilatzeko (32.irudia). Gerta liteke esku-hartzearen balorazioa zehaztutako data baino lehen egin behar izatea, izan ere, ikasleak bilakaera desegokiaren adierazle argiak diren jarrera kezkarriak balitu, ez genuke zehaztutako data arte itxaron beharko. Hortaz, atal honen hasieran, ikaslearen bilakaeraren ebaluazioa arrazoi zehatz batengatik edo batzuegatik mugitua izan den galdetzen da, aukera batzuk emanez. Horren ondorengo pausoa, ikasleak dolu patologikoa garatu izateko aukerak dauden jaso beharko da, beharrezko diagnostikoa eta neurriak hartzeko. Jakina den moduan, familiari honen guztiaren berri eman beharko zaio.

IKASLEAREN BILAKAERA DESEGOKIA IZAN BADA:

Alternatibak

7. Ikaslearen bilakaeraren ebaluazioa hurrengo arrazoi batek mugitua izan da?

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Heriotzaren osteko erreakzioak era kezkarrian mantentzen ditu
- Heriotzaren osteko erreakzioak areagotu ditu
- Jarrera disruptiboak
- Gehiegizko urduritasuna eta egonezina
- Gehiegizko tristura, era jarraituan aurkeztuta
- Eskolako errendimenduaren jaitsiera nabaria
- Arreta eta kontzentrazio zailtasunen areagotzea
- Heriotzaren errudun sentitzen da
- Kideekin dituen harremanen aldaketa esanguratsua
- Beste batzuk: _____

8. Dolu patologikoaren sintomak antzematen dira:

Markatu aukera bakarra.

- Ez (hala bada, segi hurrengo galderara)
- Bai (hala bada, segi zuzenean hurrengo atalera)

32.irudia. Ikaslearen bilakaera ebaluatzeko inprimakiaren hirugarren atala: Ikaslearen bilakaera desegokia izan bada.

Dolu patologikoaren adierazgarririk ikusi ezean, hurrengo galderara jarraituko dugu (33.irudia), eta zehaztutako esku-hartzeak eraginik izan ez duela ikusita, neurri berriak planteatu beharko dira. Neurri horien artean, ikasleak laguntza espezializatua beharko duen baloratu beharko da, dagokion arrazoiekin justifikatuz.

9. Ikaslearen bilakaera ezegokia ikusita, dolu patologikoaren adierazgarririk ikusi ezean, hurrengo neurriak hartuko dira eskolatik:

10. Behatzailearen iritziz, ikasleak laguntza espezializatua beharko du?
Markatu aukera bakarra.

Ez

Bai (hala bada, osasun zerbitzuekin harremanetan jarri).

11. Laguntza espezializatuaren beharra hurrengo arrazoiekin justifikatzen da:
Markatu aplikagarriak diren guztiak.

Eskolak hartu dituen neurriak eragin gutxi izan dute.

Ikasleak inguruan dituen helduak arduratsuak ez direla edo giza trebetasun edo emozio trebetasun urria adierazten dituztela deritzogu.

Gertatutakoa gainditzeko haurrak zailtasun handiak dituela zuzenean adierazten du.

Eskolatik ikaslearen beharrei ezin zaie behar bezala erantzun.

Doluarekin batera ikasleak beste behar psikologikoren bat aurkeztu edo antsietatea eragiten dion beste egoera batean dago (depresioa, eskola jazarpena, desgaitasunen bat badu...).

Familiak ez du prozesuan parte-hartzen (ez da elkarriketara joaten, ez du informazioa errazten...).

Hasierako balorazioan bildutako erreakzio berdinak izaten jarraitzen ditu (edo gehiago).

Beste batzuk: _____

33.irudia. Ikaslearen bilakaera ebaluatzeko inprimakiaren laugarren atala: Ikaslearen bilakaera desegokia izan bada, baina dolu patologikoaren adierazgarririk gabe.

Dolu patologikoaren adierazleak ikusi badira, berriz, hurrengo atalera joko dugu (34.irudia). Bertan “Adaptación al castellano del inventario de duelo complicado” baliabideak proposatzen duen dolu patologikoaren diagnostiko-tresna aurki daiteke, ikaslearen egoeratik abiatuz beteko dena, diagnostiko posible batekin emateko. Emaitza baiezkoa balitz, osasun zerbitzuekin harremanean jarriko ginateke, beraiek benetako diagnostikoa emateko (eskolan egindako frogen emaitzak orientatzaileak baitira, osasun-profesional batek berretsi beharko dituenak). Emaitza ezezkoa balitz, atzera itzuli beharko ginateke esku-hartze neurri berriak planteatzeko.

DOLU PATOLOGIKOAREN DIAGNOSTIKOA

"Adaptación al castellano del inventario de duelo complicado" (euskaratua)

A irizpidea

Heriotzak eragindako bereizketa afektiboaren ondoriozko estresa

12. Egunero hurrengo sintometatik gutxienez 3 aurkeztea:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Intrusio-pentsamenduak – etengabe burura datozenak, hildakoari lotuta.
- Nostalgia – bere falta tristura sakonarekin gogoratu.
- Hildakoaren bilaketa – hilda dagoela jakin arren.
- Bakardade sentimenduak – heriotzaren ondorioz.

B irizpidea

Heriotzak ekartzen duen trauma psikikoaren ondoriozko estresa

13. Egunero, heriotzaren ondorioz, hurrengo sintometatik gutxienez 4 aurkeztea:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Helburu gabezia edota etorkizunari begira dena alferrekoa dela.
- Axolagabekeria, hostasun eta erantzun emozional ezaren sentsazio subjektiboa.
- Heriotzaren errealitatea onartzeko zailtasunak.
- Bizitzak zentzurik ez duela eta hutsa dela pentsatzea.
- Bere buruaren parte bat hil dela sentitzea.
- Hildakoarekin lotutako sintoma zein jokabide kaltegarriak hartu.
- Heriotzarekin lotutako gehiegizko suminkortasuna, haserrea edota samintasuna.
- Mundua ikusteko eta interpretatzeko era aldatua izan.

C irizpidea

Kronologia

14. Nahastearen iraupena (goian zehaztutako sintomak) 6 hilabete baino gehiagokoa da.

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

D irizpidea

Narriadura

15. Nahasteak subjektuaren bizitza modu esanguratsuan baldintzatzen du.

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

16. ONDORIOA

Markatu aukera bakarra.

- Aurreko galdetegiaren arabera, ikasleak dolu konplexua izateko aukera dago (osasun zerbitzuetara jo)
- Ikasleak ez ditu aurreko galdetegiaren irizpideak betetzen (eskolak esku-hartze neurri berriak zehaztu beharko ditu)

34.irudia. Ikaslearen bilakaera ebaluatzeko inprimakiaren bosgarren atala: Dolu patologikoaren diagnostikoa.

Inprimakiaren barne hurrengo taula aurki dezakegu, dolu patologikoaren diagnostikorako beste tresna batzuk jasotzen dituenak, aurreko urratsa betetzeko bestelako aukerak izateko.

Dolu patologikoaren diagnostikorako beste tresna batzuk:

GALDETEGI OROKORRAK
➤ Inventario de Experiencias en Duelo (IED) (The Grief Experience Inventory de Sanders, Mauger y Strong, 1985). Adaptado al castellano por García-García, Landa, Trigueros y Gaminde (2001).
➤ Inventario Texas Revisado de Duelo (The Texas Revised Inventory of Grief de Faschingbauer, Zisook y De Vul, 1987). Adaptado al castellano por García-García, Landa, Trigueros, Calvo y Gaminde (1995) y García-García y Landa (2001).
➤ Inventario de Duelo Complicado (IDC) (The Inventory of Complicated Grief de Prigerson y Jacobs, 2001). La adaptación al español ha sido llevada a cabo por García-García, Landa, Prigerson, Echevarria, Grandes, Mauriz y Andollo (2002).
➤ Cuestionario de Riesgo de Duelo Complicado (The Risk Index de Parkes y Weiss, 1983). Traducido al castellano por García-García, Landa, Grandes, Mauriz y Andollo (2002).
➤ Valoración del Riesgo de Complicaciones en la Resolución del Duelo (Soler, Barreto y Yi, 2002).
➤ Grief Reaction Checklist (Remondet y Hansson, 1987).
➤ Escala Emocional de Caras (Facial Affective Scale de McGrath, de Veber y Hearn, 1985).
GALDETEGI ESPEZIFIKOAK
➤ Perinatal Grief Scale (PGS) (Toedter, Lasker y Alhadeff, 1988).
➤ Hogan Sibling Inventory of Bereavement (HSIB) (Hogan y Greenfield, 1991).
➤ Grief Experience Questionnaire (GEQ) (Barret y Scout, 1989).

35.irudia. Dolu patologikoaren diagnostikorako beste tresna batzuk.⁸

⁸ Dolu patologikoaren diagnostikorako beste tresnen iturria: Gil-Juliá et al. (2018).

Aurretik aipatu den moduan, esku-hartzean zehar hurrengo egoeraren bat emanez gero, laguntza espezializatuaren beharra balioztatu beharko da (hala ere, honen beharra erabat agerizkoa bada, ez da ikaslearen bilakaeraren balorazioa eginen den unera arte itxaron beharrik):

- Eskolak hartutako neurrien eraginkortasuna desegokia izan denean.
- Hasierako balorazioan bildutako erreakzio berdinak izaten jarraitzen badu (edo gehiago).
- Haurrak galera gainditzeko arazo handiak aurkezten dituenean.
- Eskolatik ikaslearen beharrei egoki erantzun ezin zaienean.
- Doluarekin batera ikasleak beste behar psikologikoren bat aurkeztu edo antsietatea eragiten dion beste egoera batean badago (depresioa, eskola jazarpena, desgaitasunen bat badu...).
- Familiak esku-hartze prozesuan parte-hartzen ez duenean (ez da bileretara joaten, ez da kezkatzen, ez du egoeraren inguruko informaziorik ematen...).
- Ikasleren eskolaz-kanpoko egoera desegokia denean, erreferentziatzko helduak arduratsuak ez direnean laguntza eta arreta eskasa ematen diotenean...
- Bere buruaz beste egiteko jarrera azaltzen denean (kasu larrienetan).
- Dolu patologikoaren sintomak aurkezten dituenean (horretarako ikaslearen bilakaera ebaluatzeko inprimakiaren atal batean dolu patologikoaren diagnostikorako galdetegi bat aurki daiteke).

2.5. Ebaluazioa

Eskola bateko edozein hezkuntza-programarekin egiten den moduan, doluaren aurrean esku-hartzeko protokolo hau ere ebaluatua izanen da, etorkizunean egon daitezkeen kasuei begira hartutako neurrien, baliabideen erabilpenaren eta profesionalen jarduketaren hobekuntza egin ahal izateko.

Protokoloaren ebaluazioa amaieran egiteaz gain, modu jarraian eginen da ere, prozesu osoan zehar. Horretarako, hasieran planteatutako helburuak erdiesten ari diren baloratuko da, horiek lortzeko aurrera eraman den prozedura egokia izan den ikusiz. Modu honetan, ahulguneak identifikatu eta prozesuan zehar zuzendu ahalko dira.

Behin esku-hartzea amaitutzat ematean, AMIA (DAFO) ereduan oinarrituko gara protokoloaren ebaluazioa egiteko, eskumena izan duten adituek beteko luketeena. Horretaz gain, aipatutako ebaluazio hori errazteko, ebaluaziorako errubrika bat ere proposatzen da, protokoloaren oinarritzko aspektuak bete diren ebaluatzeko adierazgarriekin.

Orain arte erabilitako sistemarekin jarraitzearen, errubrika hori modu digitalean ere osatu da (36.irudia). Ebaluazioa hainbat ataletan banatu da, protokoloak dituen ataletan hain zuzen (prestaketa, balorazioa, esku-hartzea eta jarraipena). Gainera, amaieran balorazio orokor bat egiteko atal bat ere txertatu da. Azpiko irudian inprimakia ikus daiteke.

PROKOLLOAREN EBALUAZIOA

PRESTAKETARI DAGOKIONEZ...

1. Markatu aplikagarriak diren guztiak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Heriotza emandakoan eskolan lan-batzordea osatu da.
- Irakasle guztiak egoeraren berri jaso dute.
- Irakasle guztiak oinarritzko jarraibideak jaso dituzte.
- Inplikaturako arduradun guztiak beren eginkizunak ezagutzen dituzte.

BALORAZIOARI DAGOKIONEZ...

2. Markatu aplikagarriak diren guztiak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Familiak ikaslearen eskolaz-kanpoko egoeraren informazioa erraztu du.
- Ikasleari egindako balorazioa esku-hartze neurrien zehaztapena lagundu du.

ESKU-HARTZEARI DAGOKIONEZ...

3. Markatu aplikagarriak diren guztiak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Familiari aurrera eramandako neurri guztien inguruan jakinarazi zaie.
- Ikaslearen bestelako hezkuntza premiak kontuan hartu dira esku-hartzea zehazterako orduan.
- Tutorea ikaslearen gidari eta laguntzaile gisa aritu da prozesuan zehar.
- Tutorea ikasgelako jarduerekin malgua izan da.
- Ikasgelan ikaslea dolu prozesuan laguntzeko jarduerak gauzatu dira.
- Kanpo-erakundeen laguntza jaso da.

JARRAIPENARI DAGOKIONEZ...

4. Markatu aplikagarriak diren guztiak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Ikaslearen bilakaeraren balorazioa egokitutako datan (edo lehenago) egin da.
- Bilakaera kezkarria izanez gero, neurri edo alternatiba berriak bilatu dira.
- Beharrezkoa izan bada beste profesional batzuekin informazioa partekatu da (psikologoa, pediatria...)

BALORAZIO OROKORRA

5. Markatu aplikagarriak diren guztiak:

Markatu aplikagarriak diren guztiak.

- Inplikaturako arduradun guztiek bere zereginak bete dituzte.
- Esku-hartzeak espero ziren emaitzak izan ditu.
- Protokoloan zehaztuak dauden helburuak neurri handi batean bete dira.
- Tutorea eta orientatzailearen artean lan koordinatua burutu da.
- Ikaslearekin harremanetan dauden beste irakasleek prozesuan laguntzeko interesa adierazi dute.
- Eskola eta familia lankidetzan aritu dira.
- Familia eskolaren jarduketarekin pozik dagoela adierazi du.

36.irudia. Protokoloaren ebaluazio errubrika.

Behin errubrika hori beteta hurrengo urratsa bertan bildutako datuetatik abiatuz AMIA (gazteleraz, DAFO: Debilidades, Amenazas, Fortalezas y Oportunidades) eredua jarraituz ideia horiek sailkatzea izanen da, ondorioak atera ahal izateko. Bere web gune ofizialean agertzen den moduan, AMIA enpresariei beren enpresen, marken edota produktuen

errealitatea analizatzeko aukera ematen digun tresna da, etorkizunera begira erabakiak hartzeko. Kasu honetan, eredu hau hezkuntza-mundura egokituko dugu, esku-hartze protokolo baten ebaluazioari bideratuta, hausnarketarako tresna baliagarria baita.

AMIA analisia bi zatitan banatzen da:

1. *Barne-analisia (Indarguneak eta Ahulguneak):*

Honen helburua protokoloak eta hori aurrera eramateko arduradunek (eskolak) dituen ahulguneak eta indarguneak aurkitzean datza, lehenengoak horiek zuzentzeko, eta bigarrenak, horiek bultzatzeko. Horretarako, hainbat aldagai ikertuko dira: barne-koordinazioa, eskolaren baliabideak, esku-hartze neurrien aplikazioa eta eraginkortasuna, informazioaren bilketa eta erregistro egokia, eskolak erabakitakoa aurrera eramateko duen gaitasuna...

2. *Kanpo-analisia (Aukerak eta Mehatxuak):*

Analisi hau eskolaren testuinguruari dagokio, zuzenean zentroaren eta bertako profesionalen menpe ez dauden baina eragiten dieten aspektuak barne hartuz. Horien artean, familia-eskola koordinazioa, familiaren jarrera eta inplikazioa eskolarekiko, gaiarekiko nahiz ikaslearekiko eta kanpo-erakundeen laguntza eta parte-hartzea ditugu, besteak beste.

Hala aukerak nola mehatxuak eskolaren kanpo-munduaren parte dira, baina kontuan izan behar dira, mehatxuen kasuan, horiek gainditzeko, eta eskaintzen zaizkigun aukerak aprobetxatzeko.

Behin analisia eginda, indarguneak areagotzeko, ahulguneak gainditzeko, mehatxuak kontrolatzeko eta aukeren etekina lortzeko estrategia bat definituko dugu, etorkizuneko esku-hartzeei begira lagungarria izanen delakoan.

Hurrengo irudietan ebaluazio eredu honetan oinarrituz sortutako inprimakia azaltzen da, azken ondorioak atera ahal izateko:

AMIA (DAFO) ereduan oinarrituz

BARNE-AZTERKETA

6. INDARGUNEAK

7. AHULGUNEAK

8. AUKERAK

9. MEHATXUAK

37.irudia. Protokoloaren ebaluazioaren ondorioak AMIA ereduan oinarrituz.

ONDORIOAK

10. Egindako analisia kontuan hartuz, hauek dira ateratako ondorioak eta etorkizunera begira kontuan izan beharrekoak:

38.irudia. Protokoloaren ebaluazioaren ondorioak AMIA ereduan oinarrituz.

Inprimaki hori betetzerakoan AMIA ereduaren barne dauden (eta ezaugarri hauetara egokituak izan diren) 8 gako hauek kontuan edukiko dira:

1. Soiltasuna, pertsonalizazioa eta zehaztasuna.
2. Eskolaren edo, behintzat, protokoloan parte-hartu duten arduradun guztien ikuspegi orokorra kontuan izanen da.
3. Ebaluazio arduratsua egingen da, esanguratsua izan dadin eta beharrezko informazio guztia eskaini dezan.
4. Ebaluazioak hura egin zen uneko baldintzen egoeraren berri emanen du, ondoren erabakiak hartzeko abiapuntua izanik.
5. Gerta liteke ideia bera esparru bat baino gehiagotan agertzea, batzuetan, mehatxu gisa aurkezten den zerbait aukera ere izan daitekeelako.
6. Baliagarria izan daiteke denboran zehar hainbat analisi egitea, aplikatutako estrategiekin lortutako eboluzioa ikusteko, neurri horien eraginkortasuna ebaluatzearen.
7. Kontzeptu zehatzetan zentratuko gara, eta ez abstraktuetan.
8. Ondorioak ongi berrikusiko dira, elkarren artean kontrajartzen ez direla eta zentzua dutela ziurtatzeko.

3. DOLMEN: DOLU KASU BATI AURRE EGITEKO TRESNA DIGITALIZATUA

Atal honetan protokoloa modu digitalizatuan eskuragarri izateko sortutako tresnaren aurkezpena egiten da. Tresna hori protokoloaren eraginkortasuna eta funtzionaltasuna areagotzeko asmoz egin da, izan ere, gaur egun Informazio eta Komunikazio Teknologiek gero eta presentzia gehiago dute gure gizartean, eta horren ondorioz, ikastetxeetan ere bai.

Lan osoan zehar aipatu izan den moduan, heriotzaren gaia gure gizartean duen konnotazioa dela eta, askotan erabat galduak sentitzen gara galera bat sufritzen dugunean, baita dolu prozesuan dagoen pertsona bati lagundu behar diogunean ere. Eskolak, gizarteratze-prozesuaren bigarren agertoki garrantzitsuena den neurrian, dolu prozesuan dauden ikasleak laguntzeko beharra du, eta oraindik eskoletan gai hau ezezaguna da. Gainera, esku-hartzea azkarra izan behar denez, egun batetik bestera halako egoera baten aurrean aurki daiteke irakasle bat, nondik abiatu jakin gabe.

Protokolo bat izatea lagungarri izan daitekeen arren, ez baditugu beharrezko ezagutzak eta baliabideak, bat-bateko esku-hartze hori egitea zailagoa izanen da. Ondorioz, hori ekiditeko, dolu kasu baten aurrean segituan esku-hartzeko beharrezko informazio, baliabide eta jarraibide guztiak bilduko dituen tresna egituratu bat sortzea izan da lan honen azkeneko helburua.

“Dolmen” izan da nahi horren emaitza, interneteko web gune itxia, irakasleei zuzendua. Izena antzinako hilobi-markei erreferentzia eginez jarri diot, hitzak duen esanahiarengatik, zentzu poetikoarengatik (dolu hitzaren antzekoa delako), baita hauek duten itxura fisikoak irudikatzen duenarengatik. Bertan protokoloa eskuragarri egoteaz gain, protokolo hori martxan jarri ahal izateko beharrezko informazio eta baliabide osagarri guztiak aurki ditzakegu, jarraian aurkeztuko direnak.

Gunea “Google Sites” tresnaren bitartez sortu da. Nafarroako eskola askok Google zerbitzuko tresna anitz barneratu dituzte beren egunerokotasunean, irakasleen arteko koordinazioa errazteko helburuarekin, abantaila anitz ditu eta. Batetik, taldeak (zuzendaritza-taldeak edo web gunearen arduradunek) erabaki dezake norekin partekatu, talde itxi bat sortuz, eta bestetik, gailu guztietan eskuragarri dagoelako, erabiltzeko erraza izateaz gain.

Guneak egitura sinplea du, bere erabilerraztasuna ziurtatzeko, baina eduki aldetik aberatsa da, esan bezala, bertan eskaintzen diren baliabideak nahikoak direlako dolu kasu bati aurre egiteko. Gunea modu antolatuan eta jarraitutasun batekin egituratua dago, urratsak balira bezala, non pausoak jarraituz zeregin guztiak eta zeregin horiek betetzeko baliabideak ematen zaizkigun. Hala ere, nolabaiteko malgutasuna ematearren, bere egitura sinpleak aukera ematen digu bilatzen ari garen gauza zehatz hori aurkitzeko, jarraitutasun horren barnean. Hurrengo eskeman gunearen aurkibidea aurkezten da, lanaren egitura-ildoak jarraitzen duena:

1. INFORMAZIOA

a. Dolua

- i. Faseak
- ii. Erreakzioak
- iii. Motak

b. Heriotza

- i. Heriotzaren sinbologia
- ii. Heriotzaren kontzeptua haurrengan
- iii. Heriotzaren trataera eskolan

2. ESKU-HARTZEA

a. Helburuak

b. Arduradunak

- i. Funtzioak
- ii. Koordinazioa

c. Eremuak

d. Jarraibideak

e. Ebaluazioa

3. BALIABIDEAK

a. Gidaliburuak

b. Inprimakiak

c. Artikuluak

d. Ipuinak

e. Bideoak

f. Filmak

g. Proposamen didaktikoak

h. Administrazioaren baliabideak

i. Erakundeak



39.irudia. Dolmen hasiera orria ⁹ (goian eskuinean: atalak)

Hurrengo puntuetan aurkibide honen garapena egiten da atal bakoitzean aurkezten dena azalduz.

3.1. Web gunea.

Une honetan web gunea jarraian ageri den estekan eskuragarri dago:

<https://sites.google.com/view/dolmen-euskaraz>


Hala eta guztiz ere, une honetan izaera publikoa duen arren (esteka dutenek ikusi ahal izateko), eskola batek erabiliko balu gunea itxi beharko litzateke, eskolak berak generako sarbidea nork izanen duen kudeatu ahal izateko, pribatutasun kontua dela eta.

⁹ Irudi honetan, eta atal osoan zehar agertzen diren gainotzekoetan ikus daitezkenetan, Google Sites-en eskaintzen diren irudi aukerak, ikonoak, etab., erabili dira. Bestalde, proposatzen diren ipuinen nahiz filmen irudiak eta bestelako atalen irudiak, hainbat web orrialdeetatik eskuratu dira (Elkar liburu-denda: <https://www.elkar.eus/es/catalogo/libros/040404/1>, La Casa del Libro: <https://www.casadellibro.com/>, FilmAffinity: <https://www.filmaffinity.com/es/main.html>). Elkarteen logotipoak beren web gune ofizialetatik eskuratu dira.


Web guneak bilaketa tresna erraz bat du, interesatzen zaigun edozein eduki erraztasunez aurkitzeko.



40.irudia. Bilaketa botoia.



41.irudia. Bilaketa leihoa



42.irudia. Bilaketa tresna

Bestalde, bilaketa botoiaren ondoan dagoena nabigazio tresna litzateke, bertan, aipatutako hiru atal nagusiak ageri direlarik, eta horietan sakatuz, beren azpi-atalak ikus daiteke. Edozein orritan egonda ere, nabigazio barra hori eskuragarri egonen da web gunean zehar erraztasunez mugitzeko.

3.2. Informazioa

Atal honetan lan honen marko teorikoan jasotako informazio esanguratsuen aurkezten da, batetik, irakasleek gaiaren inguruko oinarritzko kontzeptuak eskura izateko eta, bestetik, familiari eskaintzeko materiala izateko.

Informazio zehatzaren bilaketa errazteko, informazioa bi multzotan sailkatu da, batetik, dolu prozesuari dagokiona, bertan doluaren faseak, ohiko erreakzioak eta dolu motak aipatzen direlarik, eta bestetik, heriotzaren kontzeptuari dagokiona, bertan heriotzak gizartean duen sinbologia, haurrek duten heriotza ideien bilakaera eta eskolan heriotzaren tratamendurako aholkuak ematen direlarik.



43.irudia. Informazioaren sarrera.

Goiko irudian ikusten diren laukietan sakatuz, informazio multzo batera edo bestera joko dugu.

44.irudia. Doluaren inguruko informazioa

Aipagarria da, tartean, bestelako informazio interesgarrira jotzeko botoiak aurki daitezkeela. Esate baterako, azpiko irudian ikus daitekeenez, dolu patologikoaren azalpena ematen denean, hori diagnostikatzeko inprimakirako esteka ageri zaigu, beraz, botoi horretan sakatuz inprimakia irekiko zaigu.

45.irudia. Bestelako informazio interesgarrira jotzeko botoiak.

dolua Hasiera INFORMAZIOA ESKU HARTZEA BALIABIDEAK Q

Heriotza

Heriotzaren esanahiaren inguruan hitz egiteko, lehenik, adierazpen konplexua dela izan behar dugu argi. Izan ere, gertakari biologikoaz gain, ñabardura sozialak, kulturalak nahiz erlijiosoak dakar harekin.

Hortaz, existitzen diren pentsaera eta sinesmen bakoitzetik abiatuz heriotzaren definizio bat eraiki genezake, heriotzak baduelako, batetik, alde objektiboa, guztiok modu berean ulertzen duguna, eta, bestetik, alderdi subjektiboa, heriotzaren ostean gertatzen denaren inguruko usteari dagokiona. Bernard Gert-ek heriotzaren definizioa ikuspuntu biologikotik aurkeztzen du, bere hitzetan heriotza klinikoki behagarri diren organismoaren funtzio guztien gelditzea da, bai eta organismo beraren alderdi identifikagarri guztietan kontzientziaren galtze iraunkorra. Hala ere, honek organismoa osotasun baten moduan ulertzen du, baina badira beste aditu batzuk gorputzaren heriotza eta adimenaren heriotza bereizten dituztenak, horrek ondorio batzuk edo beste ekarriz.

Garrantzitsua da heriotza ulertzeko modu ezberdinak daudela presente izatea, gizabanakoaren sinesmenek dolu prozesuan eragina izanen dutelako. Heriotzaren inguruko ezberdintasun horiek pertsonaren izaera eta pentsaeraren arabera izan daitezke, baina, askotan, jatorri orokorrago bat dute, hala nola, kultura eta erlijioa.

HERIOTZAREN SINBOLOGIA

Gaur egun, mendebaldeko gizarteetan, non erlijioek orain arte gizabanakoengan zuten eragin gehiena galdu duten, heriotza tabu moduan bizitzen da sozialki, eta garai honek heriotza arinkeriak tratatzera mugatzen da, horren inguruko kezka ukatuz, zutik dagoen galderari arreta zuzendu gabe: zer da "hiltzea"? Beraz, heriotza onartzea eta horren inguruan hitz egitea biziki zaila izaten da, heriotzak harekin dakarren itzulezintasunak estutzen gaituelako. Hilkorra izanik, heriotza ukatzen duen gizarte baten aurrean gaude, eta errefus honek seguruenik ez du gizabanakoa lagundu heriotzari aurre egin behar izan dion une horietan.

Aipatzekoa da lan hau mendebaldeko pentsaera honetan oinarrituz garatuko dela. Hala ere, argi izan behar dugu historian zehar heriotzaren inguruko pentsaera aldatuz joan den heinean, gaur egun munduan hau ez dela heriotza ulertzeko modu bakarra. Mendebaldeko kulturen bizitzari gogor heltzeko jarrera sustatzen da "betirako" ideiarekin haziz, heriotzaren inguruan hitz egin gabe, dolu prozesua modu osasuntsuan aurrera eramateko zailtasunak bultzatuz. Beste kultura batzuetan, aldiz, heriotza bizitza arruntean integraturik dago, horren parte izanik, normalizatua eta onartua dagoelarik.

HERIOTZAREN KONTZEPTUA HAURENGAN

Haurrek heriotzaren gertaera ulertzeko gai ez direlako uste orokortua dela eta, askotan, helduek pertsona maiteen galerak ezkutatzeko saiatzen dira zehaztasunik gabeko hitzen eta topikoen bitartez ("orain beste toki batean dago", "bidai batera joan da"...), seguruenik, haurra heriotzatik babesteko beharrik gabeko saiakerak batean.

Heriotzaren ulermena adinarekin aldatuz doa, hortaz, adinak badu zerikusia heriotzaren inguruan dugun kontzeptuan. Gai honetan sakontzen hasi aurretik, lagungarria izan daiteke haurren jokabide sozialei lotutako aspektuak gogoratzea, garunaren garapenaren emaitza direlarik, eta aldi berean, gaitasun kognitiboan eragiten dutenak.

Egungo azterlana heriotzaren ulermen biologikoan zentratzen da, eta ulermen hori heldutzat hartzen da hurrengo bost azpi-osagaiak eskuratu direnean, ikerketa ugarietan identifikatuak eta berretsiak izan direnak

ITZULEZINTASUNA

UNIBERTSALTASUNA

SAHIETSEZINTASUNA

GELDITZE FUNTZIONALA

KAUSALITATEA

46.irudia. Heriotzaren inguruko informazioa.

Hortaz, laburbilduz, atal honen helburua protokoloa eta, horrekin, esku-hartze eraginkorra aurrera eraman ahal izateko beharrezko ezagutza orokorrak eskuratzea litzateke.

3.3. Esku-hartzea

Atal honetan esku-hartzea egin ahal izateko jarraibideak eta antolaketa era azaltzen zaigu, protokoloa, hain zuzen. Bertan, lan honetako 2.puntuaz azaldu den protokoloa modu digitalizatuan ageri zaigu, egitura berdina jarraituz, hau da, helburuak, arduradunak (bakoitzaren funtzioak eta beren arteko koordinazioa), esku-hartze eremuak, jarraibideak eta protokoloaren ebaluazioa azaltzen dira.

47.irudia. Esku-hartze protokoloaren goiburua.

Atalik indartsuena jarraibideena litzateke. Bertan, eskolan dolu kasu bati aurre egiteko jarraitu beharreko urratsak ematen dira. Gainera, protokoloaren eraginkortasuna eta erabilerraztasuna areagotzeko, protokoloan aurrera joan ahala, beharrezkoak diren unean, baliabideak (inprimakiak, informazio osagarria...) eskaintzen zaizkigu. Azpiko irudian ikus daiteke nolakoak diren baliabide horietara jotzeko botoiak. Horietako bakoitzean sakatuz, eskaintzen den baliabidera joko dugu.




48.irudia. Baliabide osagarrietara jotzeko botoiak (1).



49.irudia. Baliabide osagarrietara jotzeko botoiak (2)

Jarraibideen atalak lau azpi-atal ditu, jarraitu beharreko urratsei erreferentzia eginez: prestaketa, balorazioa, esku-hartzea eta jarraipena. Bakoitzaren laburpen bat egiten da eskema edo mapa kontzeptual¹⁰ baten bitartez, begi-kolpe batez ikusteko, baita intuitiboagoa izateko ere. Hurrengo irudietan adibide batzuk ikus daitezke:

¹⁰ Web orrian ageri den protokoloaren laburpena eta hori osatzen duten eskemak I.Eranskinean eskuragarri daude.



50.irudia. Prestaketa (1).



51.irudia. Prestaketa (2).

Atal honen barne informazio osagarria eskaintzen da, egoera honetan irakasleek izaten ahal dituzten ohiko galderari erantzunez.

Ohiko galderak

Nola izan behar da gure jarrera irakasle gisa?

Ikasgelan heriotza bat ematen denean, bereziki ikasle edo irakasle batena bada, tutorea atsekabetuta egon daiteke, eta agian, bera ere dola prozesu batean ere bai. Beraz, ikasgelan gaia lantzean, irakaslea minduta azal daiteke, baina garrantzitsua da uneoro bere emozioak kudeatzen dituela adieraztea. Hau da, argi izan behar du une horretan ikasleentzat euskarri bat dela, bere laguntza behar dutela, hortaz, zaila izanagatik ere ezinbestekoa da egoera, bere mina eta bere emozioak kontrolpean izatea. Egoerak gainezka egiten badio eta ez bada prest sentitzen, beste irakasle bati laguntza eska diezaioke. Ez da deus gertatzen irakasleek helduek ere sufrizten dutela ikusten badute, hala ere, ezin gara egoera zail horretan bere laguntzaile gisa aurkeztu, ezin badugu aurrera egin, beraz, ez badugu gure burua gai ikusten, irakasleak eskubide osoa du lankide bati laguntza eskatzeko eta hark ikasleen laguntzaile izatea tutorea prest egon arte.

Horretaz gain, garrantzitsua da partekatze espazio bat sortzea, bertan ikusten eta hautematen dugunari arreta eskaini, baita berria ematen dugun bitartean ager daitezkeen hitzeko nahiz hitzekoak ez diren adierazpenei ere (gorputz-adierazpenak, keinuak, eskuak, hanken mugimenduak...). Adierazpen emozionala sustatu, adierazitakoari harrera eginez, ulertuz eta epaitu gabe, emozio horri balioa eman.

Gerta liteke haurrak elkarren artean epaitzea besteen adierazpen emozionalak ikustean, esaterako, beste ikasle batzuk negarrez ikustean. Halako kasuren bat ematen bada, tutoreak ez du horretan lagundu behar, dolaari balioa edo indarra kentzen ari baitio. Hala ere, komenigarria da ikasleen arteko emozioen adierazpenen epaiketei mugarik ez jartzea, baizik eta emozio adierazpenei balioa ematea. Ikasleen aurreko esperientzietan halako egoerak gainditzeko lagungarri izan zena aztertu eta arakatu daiteke, baita lagungarria izan ez zena ere. Egoera hau ikasleen iraganeko adierazi gabeko dolaak arintzeko aukera paregabea izan daiteke, alderaketak ekidituz.

Zeintzuk dira oinarritzko jarraibideak ikasgelan dola prozesuan dagoen ikasle bat dugunean?

Ikasgelan normattasunari eutsi, nolabaiteko malgutasunarekin.

52.irudia. Ohiko galderak.

2. BALORAZIOA

Helburua:

Ikasleak eskolatik-kanpo (familiaren bitartez) eta eskolan (behaketaren bitartez) duen egoera ezagutzea litzateke, baita heriotzaren ondorioz izandako erreakzioak eta aldaketak ere, geroago, arrisku eta babes faktoreak definitu ahal izateko, esku-hartzera begira ondorioak ateraz.

Eskuineko ikonoetan sakatuz, inprimakiak eta baliabideak eskuratuko dituzu.

1 FAMILIAREKIN BILDU

Tutorea Orientatzailea

Egoera ikastaldeari plazaratzeko baimena eskatu.

GALDETU → DATU BILKETARAKO GALDETEGI EREDUA

ESKAINI → HAURREN DOLU PROZESUA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK

2 IKASLEAREKIN BILDU

Tutore gisa, behar gaituenerako bertan gaudela argi utzi.

Gaia ikasgela osoarekin lantzeko prest dagoen galdetu, bere kideei egoera azalduz.

IKASLEAREN BALORAZIORAKO INPRIMAKIA

AHOLKUAK

Ikaslearekin indibidualki hitz egiteko nahia ahalik eta modu naturalenean adierazi, egunerokoaren barne (egoera desatsegin eta deseroso bat ekiditeko).


Ezin da ikaslea behartu, hark ez badu onartzen eta ez badu egoera ikaskideen aurrean komentatu nahi, bere erabakia errespetatuko da.

Hortik aurrera, ikaslearen garapenaren behaketa eginen da, hasierako balorazio bat egin ahal izateko.

53.irudia. Balorazioa.

Eskolan dolauren aurrean esku-hartzeko protokoloa

Goiko irudian, eskuineko aldean, atal honetan eskaintzen diren baliabideak ikus daitezke. Ikaslearen balorazioa egin ahal izateko, batetik, datu bilketarako galdetegi ereduak eskaintzen da, ikaslearen familiari zuzendua. Horretaz gain, haurraren dolu prozesua kudeatzeko jarraibideak ere erantsi dira, horiek familiari eskaintzeko helburuarekin. Azkenik, informazio nahikoa dugularik, ikaslearen hasierako balorazioa egiteko inprimakia eskaintzen da.



54.irudia. Esku-hartzea.

Esku-hartzeari dagokionez, protokoloak zehazten duenez hiru eremuri erreparatu behar diegu eta bakoitzaren barne baliabide multzo bat eskaintzen da azpiko aldean ikusten diren botoi horietan sakatuz. Ikaslearekin egin beharreko esku-hartzearen kasuan, hartuko diren neurriak zehazteko inprimaki bat eskaintzen da. Hori osatzearen, banakako esku-hartze horretarako zenbait proposamen eskaintzen dira, baita doluan dagoen ikaslea desgaitasun intelektuala duenean kontuan izan beharreko orientabideak ere. Ikasgelarekin esku-hartzeko, zenbait proposamen ematen dira, eta familiarekin esku-hartzeko doluari aurre egiteko baliabideak eskaintzen dira (3.4.puntuan zehazten direnak). Bertan, Goizargi Elkartearen kontaktua aurki daiteke, dolu prozesuan dauden pertsoneri laguntzeko nafar elkarteak.




55.irudia. Banakako esku-hartzerako proposamenak




56.irudia. Desgaitasun intelektualak duen ikaslearen esku-hartzea.

Azkenik, ikaslearen jarraipena egiteko, gainerakoetan bezala inprimaki bat eskaintzen da. Web gunean urrats honetan jarraitu beharreko jarraibide guztiak azaltzen dira eskema baten bitartez, baina inprimakiaren barne jarraibide horiek guztiak ere ematen dira, beraz, inprimakiak dioena betetzearekin nahikoa litzateke.



57.irudia. Protokoloaren funtzionamendua.


Jarraibideen atala alde batera utzita, protokoloaren azkeneko atala ebaluazioa da. Hori egiteko errubrika moduko bat erabiliko da, eta tresna digital honen ildoarekin jarraitzeko, inprimaki formatuan eskaintzen da, betetzen errazagoa izan dadin.



58.irudia. Protokoloaren ebaluaziorako inprimakia.

3.4. Baliabideak ¹¹

Hirugarren atala doluari aurre egiteko baliabideei dagokio. Bertan, bereziki irakasleentzat zuzenduta dagoen baina familientzat ere baliagarria izan daitekeen baliabide sorta bat eskaintzen da, hurrengo irudietan zehazten dena.



59.irudia. Baliabideak nabigazio-barran.

¹¹ Eranskinetan baliabide bilduma bat aurki daiteke (III.Eranskina).



60.irudia. Baliabideen aurkezpen orria.

Hurrengo puntuetan multzo horietako bakoitzaren barne aurki daitekeena azaltzen da.

3.4.1. Gidaliburuak

Web gunean gaiaren inguruko oinarritzko informaziorako atal bat egon arren, irakasleek informazio hori osatzekotan, zenbait erakundeek sortutako gidaliburuak eskura ditzakete hemen. Gida hauek gaia modu simple eta orokorragoan lantzen dute, hartzaile nagusia familia izanik. Dena den, irakasleek bertan informazio baliagarria aurki dezakete, baita gida horiek familiei eskaini hauek informazioa behar izanez gero.

EXPLÍCAME QUÉ HA PASADO
Guía para explicar a los niños la muerte y el duelo con los años.

HABLEMOS DE DUELO
Manual práctico para abordar la muerte con niños y adolescentes.

CREENCIAS ERRÓNEAS, MITOS Y PSEUDOTERAPIAS SOBRE EL CÁNCER

Libros de los hijos de la muerte y los libros de la vida.

CÓMO HACER FRENTE A LA PÉRDIDA DE UN SER QUERIDO

Maite dugun pertsona baten heriotzari aurre egiteko gida.

CÓMO VIVEN LOS NIÑOS LA PÉRDIDA DE UN SER QUERIDO

Haurrek ere beren bizitzan garrantzitsua den pertsona hurren galera sentituko dute, biziko duten dolu prozesua ez da zertan heldiena bezala izanen.

Minbiziaren inguruko ipuinak eta baliabideak:


Asociación Española Contra el Cáncer

GUÍA PARA FAMILIARES EN DUELO

Elaborada por la Sección Española de Padres de Niños con Problemas de Conducta (SECPAL)

61.irudia. Gidaliburuak (1).

Goian ikusten denez, gida horien irudiak agertzen dira, eta irudien gainean sakatuz dokumentua irekiko zaigu, hurrengo irudian ikus daitekeen moduan. Gainera, gida argitaratu duen elkartearen logoan sakatuz bere web gunera eramaten gaitu.




62.irudia. Gidaliburuak (2).

3.4.2. Inprimakiak

Hemen protokolo osoan zehar eskaini diren inprimakien bilduma dugu. Bertan inprimaki guztien zerrenda ageri zaigu, eta irudien gainean klik eginez inprimakia irekiko zaigu, azpiko irudian ikusten den gisan.

Inprimaki guztiak orri batean bildurik izatea baliagarria izan daiteke inprimaki zehatz bat bilatzen ari bagara (protokoloa jarraitu gabe), kasu horretan errazago aurkituko dugularik.




63.irudia. Inprimakiak.

Aipatu beharra dago protokolo honetan ageri diren inprimaki guztiak on-line betetzen ahal direla, hau da, web gunean bertan. Hau izan zen Google Sites tresna erabiltzeko arrazoietako bat, izan ere, web gunean bertan inprimakiak txerta daitezkeelako, eta jabeak inprimaki horien egitura edo galderaren bat aldatzen badu, automatikoki web gunean ere aldatzen dira, beraz, erabat eroso da.

3.4.3. Artikuluak


Atal honetan gaiarekin zerikusia duten zenbait artikulu interesgarri biltzen dira. Gidaliburuak familientzat erabilgarriagoak izan daitezkeen bitartean, artikulu hauek profesionalentzat zuzenduagoak daude, gehienak artikulu zientifikoak eta akademikoak baitira, lan hau osatzeko erabili ditudanen artean esanguratsuenak iruditu zaizkidanak, hain zuzen.

Gainerako ataletan bezala, artikulu bakoitzaren irudi bat azaltzen da, eta horren gainean sakatuz dokumentua irekiko zaigu. Horretaz gain, artikulu bakoitzaren izenburua, autore(a), urtea eta bestelako datuak ageri dira.



64.irudia. Artikuluak

Horretaz gain, orri honen amaieran interesgarriak izan daitezken bestelako blog eta egunkari artikuluen zerrenda bat eskaintzen da.




65.irudia. Web guneak.


Eskolan doluaren aurrean esku-hartzeko protokoloa

3.4.4. Ipuinak

Atal honetan dolua, heriotza eta galera lantzeko ipuin zerrenda eskaintzen da. Ipuin bakoitzaren izenburua, irudia eta laburpen txiki bat ageri zaigu¹². Gainera, ipuin bakoitza zein adinerako gomendatzen den ikus dezakegu. Orriaren hasieran ipuin guztien izenburuen zerrenda ageri da, aurkibide gisa, eta amaieran dokumentu bat txertatu da, Ermuako Udal Liburutegiak kaleratutakoa, bertan ipuin gehiago aurki daitezkeelarik.



66.irudia. Ipuin zerrenda




67.irudia. Ipuinak

¹² Ipuinen laburpenak *La Casa del Libro* eta *Elkar* liburu-denden web guneetatik eskuratu dira.

Horretaz gain, ikasgelan ipuin bat lantzeko zenbait aholku eta jarraibide aurki ditzakegu orriaren hasierako botoi batean sakatuz, irakasleentzat lagungarriak izan daitezkeelakoan.

Azkenik, aipatzekoa da ipuin batzuk bere autoreek eskaintako baliabide didaktikoak dituztela. Kasu horietan, baliabideak eskuragarri daudela zehazten da, beheko irudietan ikus daitekeen moduan¹³.



68.irudia. Ipuinen baliabide didaktikoak.

¹³ Baliabide hauek Anna Llenas idazlearen web gune ofizialetik eskuratu dira (<http://www.annallenas.com/>)

3.4.5. Bideoak

Ipuinekin bezala, galera lantzen duten zenbait bideo eskaintzen dira. Bideoa web gunean bertan eskuragarri dago, baita bideo bakoitzean ikusiko dugunari buruzko laburpen bat.

edukion
Hasiera INFORMAZIOA ESKU HARTZEA BALIABIDEAK
Q

Bideoak

LABURMETRAIAK

THE LIGHTHOUSE



Istoria hau gurasoentzako omenaldi modukoa da, beren seme-alabek ametsak bete ditzaten laguntzen baitituzte, gerta ala gerta, haiek itsasargia bailitzan jarduten dute, seme-alaben bizitzak gidatuz eta argituz.

LA SEMILLA DEL RECUERDO



Neskatila bat bere aitonaren etxean bizi da, gaixorik dagoena. Behin, aitona lore bat ematen dio bere bilobari, zuhaitz batetik gertu landatu zezan. Neska itziltzen denean, bere beldurrik handienarekin topatzen da: bakardadea.

MALAIKA PRINTZESA




Malaika afrikako elefante talde bateko printzesa da, bere aita Komba-ren gainean bizi dena. Sabanan zehar abiatzen duten bidaietan gauza asko ikasiko ditu, baina egun zailak helduko dira Komba bere heriotza gertu ikusten duenean. Orduan, Malaika bere bizitzako erronkarik handienetarikoa aurre egin eta ikasituzta sakona esiarutako du, bere zalantza ugari argituz.


69.irudia. Bideoak.

3.4.6. Filmak

Atal hau aurreko bien antzera egituratzen da. Heriotza eta galera lantzeko film zerrenda ageri zaigu, bakoitzaren laburpenarekin¹⁴, trailerrarekin eta filmetik eskura dezakegun ikasgaiarekin. Hemendik ere, ipuinen ataletik bezala, ikasgelan filmak lantzeko jarraibideetara jo dezakegu.



70.irudia. Film zerrenda




71.irudia. Filmak

¹⁴ Film bakoitzaren inguruko informazioa FilmAffinity web gunetik eskuratu da.

3.4.7. Proposamen didaktikoak

Atal honetan ikasgelan heriotzaren gaia lantzeko proposamen didaktikoak aurki ditzakegu, bereziki, talde-mailan egin beharreko esku-hartzeari zuzenduta. Dena den, ez dugu zertan dolu kasu bat izatera itxaron proposamen hauek aurrera eramateko, heriotzaren gaiak balio hezigarria baitu bere baitan. Proposamen didaktiko hauek iturri ezberdinetatik hartuak izan dira, zerrenda batean aurkezten dira, eta horietako bakoitzean sakatuz bere iturrira bideratzen gaitu.



72.irudia. Proposamen didaktikoak (1).

Ikusten den moduan, proposamen didaktiko zehatzez gain, ikus-entzunezkoak ere baliabide didaktikotzat hartzen direnez, aurreko puntuetan ikusi ditugun ipuinen, bideoen eta filmen ataletara zuzentzen gaituzten botoi batzuk daude. Horren arrazoia da proposamen didaktikoen bila dagoen irakasle edo hezkuntza profesional batek orri honekin topo eginez gero, ikus-entzunezko baliabideak ere gaia lantzeko eta jarduera ugari egiteko balio zaizkigula gogoraraztea.



73.irudia. Proposamen didaktikoak (2).

3.4.8. Administrazioaren baliabideak


Nafarroako Gobernuak dola prozesua ezagutzeko eta horri aurre egiteko hiru liburuxka eskaintzen ditu bere web orrian, Osasun atalean. Egia da liburuxka hauek “Gidaliburuak” atalean egon lirakeela, baina kontuan izanda administrazioak eskaintzen dizkigun baliabideak direla, atal propio bat behar zutela iruditu zait.



74.irudia. Administrazioaren baliabideak (1).

Eskolan doluaren aurrean esku-hartzeko protokola

Bertan, hiru liburuxka horiek ageri zaizkigu, gainerakoetan bezala, bere irudiekin eta beharrezko azalpenekin. Azpiko aldean, eskuinean, Nafarroako Gobernuaren web orrirako lotura dugu. Liburuxkak ikusi ahal izateko dagokion irudiaren gainean sakatu eta irekiko zaizkigu.



75.irudia. Administrazioaren baliabideak (2).

3.4.9. Erakundeak eta proiektuak

Azkeneko atalean Nafarroan dolu prozesuan dauden pertsoneri laguntzeko eskura ditugun erakundeak eta proiektuak ageri zaizkigu. Zehatzago esanda, batetik, Goizargi Elkartearen kontaktua eta kokapena azaltzen da, baita bere web gunerako lotura. Bestetik, “Sé: Sensibilización y Educación acerca del Final de la Vida” programaren inguruko informazioa dugu, San Juan de Dios ospitalearen eskutik. Hauek hala familiei eskaintzeko (bere laguntza behar izanez gero), nola eskolak berak erabiltzeko (aholkua eta laguntza eskatzeko) eskaintzen dira.

Erakundeak eta proiektuak

Hurrengo irudietan sakatuz, une honetan Nafarroan dola prozesuan dauden pertsonak laguntzeko eta heriotzaren errealitatea ikasgeletan txertatzeko elkarriak eta proiektuak ezagutu ahaliko dituzu:

Asociación GOIZARGI

Elkarte honen helburua dola prozesuan dauden pertsonak bere bizitza normalizatzen laguntzea litzateke, gertulo pertsona bat galdu ostean, xedea betetzeko beharrezko ekintza sozialak aurrera eramanez.

KONTAKTUA
Emilio Arrieta kalea, 1.
31002, Iruñea.
660 034 101
948 363 883

Sensibilización y Educación acerca del Final de la Vida

Sé+ ikasleak bizitzaren amaierako prozesuaren inguruan sentibilizatzeko proiektua da. Haur, Lehen nahiz Bigarren Hezikuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta honen helburua heriotzaren errealitatea gai hau ukatzeko joera duen gizarte honetan barnatzea da.

KONTAKTUA
Proiektuaren arduraduna: M^o Pilar Huarte Artigas
Telefonoa: 948 23 18 00
E-maila: proyectoemas@ohujd.es
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:00-14:00.

76.irudia. Erakundeak eta proiektuak

Aipatutako guztia laburbilduz, web gune hau protokolo digital bat eskaintzeko helburuarekin sortu bada ere (non erabiltzaileak prozesu bat jarraitu behar duen, bidean baliabide ezberdinak topatuz), tresna honek erabilera anitzak ditu, bere egitura malgua dela eta. Izan ere, tresna erabiltzen duen hezkuntza-profesionalak web gunera bere interesetara egoki dezake, hala prozesu osoa epealdi batez jarraitzera, nola une puntual batez zerbait zehatza kontsultatzera.

4. IMPLICACIONES PSICOLÓGICAS, PEDAGÓGICAS Y SOCIALES EN LA ESCUELA.

La utilización de un protocolo para la realización de una tarea concreta, respondiendo a una necesidad detectada en cualquier ámbito, facilita en gran medida la labor de su responsable, ya que nos sirve como un libro de instrucciones. Por tanto, ¿qué supone para la escuela la utilización del protocolo digital expuesto en el presente trabajo?

En el ámbito educativo, los protocolos de intervención escolar ofrecen multitud de beneficios, ya que, por un lado, aseguran que todo el alumnado vaya a tener el mismo trato ante una situación concreta, adaptando el procedimiento a las particularidades del caso y de la misma alumna o alumno. Por otro lado, al ser una herramienta creada por expertas que han estudiado el tema, se puede considerar que nos indican el mejor camino a seguir, y esto ayuda a evitar tener que improvisar sobre la marcha, estar preparadas, previendo lo que puede ocurrir y adelantarnos a ello, asegurando resultados óptimos, y favoreciendo la eficacia del proceso, puesto que facilita la toma de decisiones.

El protocolo de actuación e intervención ante un caso de duelo que se ha presentado en este trabajo ofrece además todos los recursos necesarios para abordar la problemática y poder llevar a cabo el protocolo. Como se ha señalado anteriormente, al ser la muerte un tema que nos resulta desagradable, y al no ser este un caso tan habitual en los centros escolares, cuando ocurre y una alumna o alumno pierde a un ser querido, muchas docentes se sienten perdidas, sin saber por dónde empezar, ya que es una situación delicada, que muchas veces surge repentinamente pero que necesita una intervención inmediata. Por lo tanto, el hecho de ofrecer a los centros educativos un protocolo, que además se presenta en formato digital, y que también incluye información y recursos para que incluso las profesoras con menos experiencia en el tema sean capaces de responder a ello, me parece que puede servir de gran ayuda para los mismos.

Me gustaría destacar que es un protocolo que aún no se ha puesto en práctica, por tanto, la idea es que se vaya mejorando con la práctica y la experiencia, puesto que un protocolo no es perfecto ni universal, y muchas veces no pueden resolver todos los

hechos e imprevistos, así que deberá ir perfeccionándose y adaptándose, incluso completándose. Para eso está, de hecho, el apartado de evaluación en el mismo protocolo.

Por otro lado, cabe decir que un protocolo es una herramienta orientativa, una referencia general, que puede ir adecuándose a las diferentes circunstancias para sacarle el mayor partido y obtener los mejores resultados.

